



**NI PASAIAGILE NAIZ**

**PASAIAKO TOKIKO AGENDA 21eko  
EKINTZA PLANA**

**2019-2026**

2019ko otsaila



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ingurumeneko eta Obra  
Hidraulikoetako Departamentua



**Diputación Foral  
de Gipuzkoa**  
Departamento de Medio  
Ambiente y Obras Hidráulicas

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako proiektua, Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamenduko Tokiko Agenda 21 programako ekintza planak garatzeko diru-laguntzen esparruan.

**LAGUNTZA TEKNIKOA:** Udalak ENEA enpresaren laguntza teknikoa jaso du, zeina IKERTALDEekin elkarlanean aritu den.

# PASAIKO TOKIKO AGENDA 21eko EKINTZA PLANA

---

## ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA: Pasaiako Udala

**Iñaki Ormazabal.** Hirigintza eta Ingurumen Saileko burua

**Joana Larrea.** Ingurumen teknikaria

## LAGUNTZA TEKNIKOA: ENEA eta IKERTALDE

**Aiala Zubieta (ENEA).** *Koordinazioa*

*Lurralde eta ingurumen gaiak: lurralde eta antolamendua, etxebizitza, mugikortasuna eta biodibertsitatea eta paisaia.*

**Ana López (ENEA).** *Koordinazioa*

*Ingurumen gaiak: energia eta klima aldaketa*

**Susana Torregaray (ENEA).**

*Ingurumen gaiak: ura, hondakinak, ingurumenaren kalitatea, arriskuen kudeaketa, erosketak publiko berdea eta administrazioaren ingurumen kudeaketa.*

**Elena Eizagirre (IKERTALDE).**

*Gizarte eta ekonomia gaiak: biztanleria, garapen ekonomikoa eta lan merkatua, ongizatea eta gizarteratzea, berdintasuna eta immigrazioa, hezkuntza, euskara, kultura eta kirola eta etxebizitza.*



# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA ETA TESTUINGURUA .....</b>	<b>1</b>
<b>2. 2019-2026 EKINTZA PLANA .....</b>	<b>2</b>
2.1. Ekintza Planaren ekarpena Garapen Jasangarriaren Helburuei:.....	3
2.2. Ildo estrategikoak.....	4
2.3. Programak .....	5
2.4. Ekintzak .....	6
<b>3. PASAIAKO TOKIKO AGENDA 21AREN JARRAIPEN PROPOSAMENA.....</b>	<b>123</b>



# 1. SARRERA ETA TESTUINGURUA

Pasaia Gipuzkoako ipar-ekialdean dago kokatuta, eta beste 10 udalerrirekin batera, Donostialdea eskualdea osatzen du. Portuaren inguruan sortutako herria da eta portua da udala batzen eta banantzen duena, lau barrutitan zatitzen baitu; Antxo, Donibane, San Pedro eta Trintxerpe. Eskualde osoko biztanleriaren %5a suposatzen du Pasaia biztanleriak, 16.587 bizilagunez osatuta dagoena.

**PASAIA ETA TOKIKO AGENDA 21.** Pasaia udalak 2004. urtean heldu zion Tokiko Agenda 21aren gaiari Oarsoaldeako Garapen Agentziaren bidez. Pasaia diagnostikoa egin bazen ere, ez zen ondorengo ekintzarik definitu, nahiz eta udalak hainbat aspektutan iraunkortasun gaiak landu izan dituen. Orain, 2018an, **Udalsarea 21eko**, jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea, kide egin da Pasaia eta horrela, bide honetan lanean jarraitzeko asmotan, lehentasunak, ardurak, eta epeak ezarriko dituen plangintza batean lan egin du.

Plana definitzeko lehenengo pausua, udalerriko egungo egoera ezagutzea izan da. Horretarako, udalerriko **lurralde, ingurumen, ekonomia eta gizarte arloei buruzko azterketa** egin da, eremu bakoitzeko gune sendoak azpimarratuz eta hobetu beharreko gaitan atentzioa jarritz. Azterketa hau *“Pasaia Tokiko Agenda 21eko Iraunkortasun diagnostikoa, 2017”* dokumentuan jaso da. Horrez gain, 2030erako **Pasaiarako Formulazioa Estrategikoa** ere landu da, zeinak osatu den plangintzari izaera estrategikoan ematen dion, hau *“Pasaia Tokiko Agenda 21eko Formulazio Estrategikoa, 2018”* dokumentuan dago jasota.

Bi dokumentu horietan oinarrituz **2019-2026** iraunaldia izango duen **Ekintza Plan berria** osatu da. Plan honek **8 lerro estrategiko ditu, 29 programa eta 147 ekintza.**

**GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURUAK.** Garapen Jasangarriaren Helburuek (**GJH**), Milurteko Garapen Helburuen oinordekoak direnak eta Nazio Batuen **Agenda 2030**aren testuinguruan 2015. urtean onartutakoak, herrialde guztiei oparotasuna ekartzea eta aldi berean planeta babestea dute helburu. Gainera, tokiko mailara ere hedatzen dira. Udalsarea 21ek berriki GJH-k euskal udalerrietako errealitatera egokitzea onartzen duen txostena argitaratu du.

Honekin guztiarekin, eta Pasaia bere lehen Ekintza Plana egin duela kontutan hartuz, **udalerriko garapen iraunkorarekin eta Garapen Jasangarriaren Helburuekin konprometitzen** da ekintza hauek gauzatzuz.


## 2. 2019-2026 EKINTZA PLANA

Diagnostikoaren emaitzetatik eta formulazio estrategikotik abiatuz, etorkizunari begira Pasaian iraunkortasunaren alorrean lortu nahi diren helburuak definitu dira, baita berauek lortzeko martxan jarri behar diren ekintzak ere. Horiek, Pasaiaiko Tokiko Agenda 21eko ekintza plana osatzen dute.

### LAN TEKNIKOKA




### Ekintza Planaren proposamena



Elkarrizketak eta barne  
bilerak **udal  
teknikariekin**

### Ekintza Plana



### HERRITARREN PARTE HARTZEA



Herritarren **parte  
hartzearen diseinua**  
(diagnostikoan parte  
hartutako herritarrekin)



Elkarrizketak **eragile  
gakoekin**



**Ekarpenak** bidaltzeko  
epea

Herritarren parte hartzea diseinatzeko diagnostiko fasean parte hartutako herritarrekin bildu zen udala. Bilera horretan ateratako ondorio nagusienak hauek izan zirelarik:


- Gaur egun parte hartzea eraginkorra izan dadin eragile gakoekin elkarrizketak egitea da bideragarriena
- Pasaian garrantzitsuenak deritzoten gaiak bi dira: Herria eta portuaren arteko elkarbizitza eta barrutien arteko eta inguruko herriekiko mugikortasuna



**Hirigintza  
Batzordearekin bilera**

*Irudia:* Pasaiaiko 2019-2026 Ekintza Plana definitzeko jarraitu den prozesua

Ekintza plana 3 mailatan egituratua dago:




*Irudia: Ekintza Plana osatzen duten elementuak*

Pasaiaiko ekintza Planean **8 helburu** nagusi edo ildo estrategiko definitu dira, beraiek gauzatzeko **29 programa** eta **147 ekintza** definitu direlarik. Gainera, ildo estrategikoak, programak eta ekintzak Garapen Jasangarriaren Helburuei egokituta definitu dira.

## 2.1. Ekintza Planaren ekarpena Garapen Jasangarriaren Helburuei:

Pasaiaiko ekintza planak GJH-ei zer nolako ekarpena egiten dieten aztertu da. Udalerrian garatu beharreko ekintza bakoitzari dagokion GJH esleitu zaio (ekintzen fitxetan zehazten dela) eta horren arabera GJH bakoitzari Pasaiaiko Ekintza Planak zein ekarpen egiten dion adierazi da, ekintza kopurutan, beheko grafikoan azaltzen den moduan. Bertan ekintza kopuruaren araberrako azterketa egin da, baina kontutan izan behar da ekintza bakoitzak bere izaera, pisua eta inpaktua daukala eta ekintza batetik bestera nabarmenki aldatzen dela.



*Grafikoa: Ekintza planak GJHri egiten dion ekarpena, ekintza kopurutan adierazita*

## **2.2. Ildo estrategikoak**

Pasaiako Planak jasotzen dituen 8 Ildo estrategikoek udalerrian lortu nahi diren funtsezko hobekuntza-helburuak jasotzen dituzte:

**1 IE. POLITIKA PUBLIKOETAN ZEHARKAKOTASUNA, ERAGINKORTASUNA ETA GARDENTASUNA SUSTATU**

**2 IE. HERRI GARAPENEAN LURZORUAREN ERABILERA JASANGARRIA EGIN ETA GIZA KOKALEKUEN INKLUSIBITATEA, SEGURTASUNA ETA NORTASUNA INDARTU**

**3 IE. INGURU OSASUNTSUA BERMATU, PERTSONEN BIZIMODU OSASUNGARRIA BERMATUZ**

**4 IE. BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA EKOIZPEN ETA KONTSUMO MODALITATE JASANGARRIAK SUSTATU**

**5 IE. ENERGIA ESKURAGARRIA, JASANGARRIA ETA MODERNOA DUEN UDALERRI EREDUA SUSTATU ETA KLIMA-ALDAKETAREN ETA HAREN ONDORIOEN AURKA EGITEKO NEURRIAK HARTU**


**6 IE. TOKIKO EKONOMIAREN HAZKUNDEAREN ETA LAN DUINAREN SUSTAPENERAKO POLITIKAK BULTZATU**


**7 IE. EUSKARA ETA KIROL MAILAN UDALERRI AKTIBO ETA DINAMIKOA IZATEKO TRESNAK ESKAINI**

**8 IE. PERTSONAK ARDATZ IZANIK, ONGIZATEA, BERDINTASUNA ETA OINARRIZKO ZERBITZUETARA SARBIDEA BERMATU**

## 2.3. Programak

Programetan ildo estrategikoak lortzera bideratutako helburua espezifikoak zehazten dira:





## 2.4. Ekintzak

Ondoren Planean jaso diren ekintza bakoitzaren fitxa azaltzen da.

**1.go ILDO ESTRATEGIKOA:**

**POLITIKA PUBLIKOETAN ZEHARKAKOTASUNA,  
ERAGINKORTASUNA ETA GARDENTASUNA SUSTATU**



<b>1.1.1</b>	<b>TA21en parte hartzen duten sailen arteko koordinazio teknikorako mekanismo eta protokolo egonkorak ezarri</b>		
<b>PROGRAMA</b>	1.1 Udal sailen arteko koordinazio eremuak ezarri eta zeharkako politikak indartu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ekintza honen helburua udal politiketan zeharkakotasun maila handiagoa lortzea da, lerro eta proiektu estrategiko jakinen garapen egokia lortze aldera. Horretarako ezinbestekoa da koordinazio guneak definitzea eta, behar izanez gero koordinazio maiztasuna eta garaian garaiko premiaren arabera guztia sinkronizatzea. Guzti honekin, sailen arteko koordinazioa eta elkarlanaren bitartez proiektuen efizientzia eta eraginkortasuna handitzea lortu nahi da, bai iraunkortasun gaietan, baita udalerrian interesa duten bestelako gaietan ere.</p> <p>Gaur egun badaude koordinaziorako eremu jakin batzuk, baina kasu hauetan guztietan ez dira udaleko sail desberdinak elkartzen, beraz ekintza honekin, haratago joan nahi da eta sail desberdinetako (Gizarte Ekintza, Hirigintza eta Ingurumena, Udaltzaingoa, Euskara, Gazteria, Kirolak...) udal teknikariez osatutako mahaia sortuko da. Teknikarien Mahai egonkorra izango da eta urtean gutxienez 2 aldiz bilduko da, proiektu desberdinak planteatu eta hauen jarraipena egiteko, baita Tokiko Agenda 21aren jarraipena egiteko ere.</p>			
<b>Epea</b>	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
<b>Kostua</b>	0.0 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Ingurumena	Beste arduradunak	
<b>Gaia</b>	21. KOORDINAZIOA	Aalborg konpromisoa	1. GOBERNATZEKO MODUAK
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>	16- BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK		

1.1.2	Tokiko Agenda 21eko gaiak erabaki eremuetan landu		
PROGRAMA	1.1 Udal sailen arteko koordinazio eremuak ezarri eta zeharkako politikak indartu		
Deskribapena:			
<p>Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planean jasotzen diren lerro estrategiko eta ekintza multzo guztia garatzeko, baita Formulazio Estrategikoan zehaztu diren xedeen betetze mailaren jarraipena egiteko ere, bertan parte hartuko duten giza baliabide (udal teknikari, zinegotzi) eta udal departamentuen arteko gunen bat osatu behar da.</p> <p>Gaur egun Pasaiaiko Udalean astelehenero biltzen den Zuzendaritza Taldea dago (Gobernu taldeko politikari eta zerbitzu buruek osatutako taldea) baita Hirigintza Batzordea ere (Udaleko talde politiko guztiek hartzen dute parte), maiztasun gutxiagorekin biltzen dena.</p> <p>Ekintza honen bidez, Tokiko Agenda 21eko gaiak urtean hirutan Zuzendaritza taldean lantzea proposatzen da. Bilera bakoitzean ondorengo eginen delarik:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 1go bilera: Lerro estrategikoen garapena programatu eta koordinatu, sail edo arlo bakoitzeko lehentasunak finkatzerakoan Plana erreferentzi moduan eduki.</li> <li>- 2. bilera: Planaren ebaluazioaren eta adierazleen emaitzak ezagutu eta hauek baloratu eta interpretatu. Garapen Jasangarrien Helburuak (GJH) aztertu</li> <li>- 3. bilera: Ekintzen garapenean erabaki beharreko zuzentze neurriak proposatu: helburuak, epeak, ardurak, ... Eta teknikarien Mahaian eta Herritarren Parte Hartze Foroan proposatutako jarduerak baloratu eta hurrengo urteko aurrekontuetan sartuko direnak erabaki.</li> </ul> <p>Horrez gain, urtean behin, Hirigintza Batzordean, TA21eko ebaluazio eta adierazleen kalkuluen emaitzen berri emango da.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	
Gaia	21. KOORDINAZIOA	Aalborg konpromisoa	1. GOBERNATZEKO MODUAK
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		16- BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	

<b>1.1.3</b>	<b>Eskola Agenda 21arekin koordinatu, Tokiko Agenda 21eko gaiak bertan ere lantzeko</b>		
<b>PROGRAMA</b>	1.1 Udal sailen arteko koordinazio eremuak ezarri eta zeharkako politikak indartu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Hezkuntza komunitatea parte garrantzitsua da Tokiko Agenda 21ean eta Pasaiako Ikastetxeetan Eskola Agenda 21 lantzen denez, bi programen arteko harremana eta koordinazioa lantzea da ekintza honen helburua. Horretarako ondorengo jarduerak burutuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Pasaiako zein ikastetxeetan eta nola lantzen duten Eskola Agenda 21 aztertu</li> <li>- Ikasturte hasieran ikastetxeetan zein gai landuko diren aztertu</li> <li>- Pasaiako Tokiko Agenda 21ean gai horiekin dauden ekintzak behatu eta hauek ikastetxean lantzeko aukera aztertu Eskola Agenda 21aren prozesuaren barruan</li> <li>- Eskola Agenda 21eko lanaren ondorioz sortuko diren proposamenek, Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planean txertatu bideragarri izatekotan.</li> </ul>			
<b>Epea</b>	<b>Ertaina (2021-2023)</b>	<b>Lehentasuna</b>	<b>Ertaina</b>
<b>Kostua</b>	0.0 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	<b>Ingurumena</b>	<b>Beste arduradunak</b>	<b>Haur eta Nerabeen Planaren Koordinatzailea</b>
<b>Gaia</b>	<b>21. KOORDINAZIOA</b>	<b>Aalborg konpromisoa</b>	<b>1. GOBERNATZEKO MODUAK</b>
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		<b>16- BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK</b>	

<b>1.1.4</b>	<b>Udalerriko mapa digitala sortu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	1.1 Udal sailen arteko koordinazio eremuak ezarri eta zeharkako politikak indartu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak emandako diru-laguntza baliatuz, honako informazioa hau duen Mapa Digitala sortuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Oinarri topografikoa</li> <li>- Ortofoto digitala</li> <li>- Elebazio eredu-digitala</li> <li>- Erlike mapa</li> <li>- Toponimia</li> <li>- Kale-izendegia</li> <li>- Ekonomia-jarduerak</li> <li>- Udal-zerbitzuak: garraioak, osasuna, hezkuntza, aisialdia, etab.</li> </ul> <p>Eusko Jaurlaritzako diru-laguntza erregulatzen dituen oinarriei jarraiki, mapa digitala SHAPE formatuan egingo da eta udaleko web orrian argitaratu eta paperean inprimatuko da, horrela herritarren eskura egon dadin.</p>			
<b>Epea</b>	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
<b>Kostua</b>	3.000-15.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Ingurumena	Beste arduradunak	Delineatzailea
<b>Gaia</b>	21. KOORDINAZIOA	Aalborg konpromisoa	1. GOBERNATZEKO MODUAK
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		16- BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	

1.1.5		GIS korporatiboa garatu eta eguneratua mantendu	
<b>PROGRAMA</b>	1.1 Udal sailen arteko koordinazio eremuak ezarri eta zeharkako politikak indartu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ekintza hau Udaleko GIS korporatiboa sortzean datza, zeina udaleko sail ezberdinetako informazioarekin elikatuko den, adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ur-hornidura sarea</li> <li>- Saneamendu sarea</li> <li>- Hondakinen edukiontzien kokapena eta bilketarako ibilbideak.</li> <li>- Eraikin babestuen</li> <li>- ITE-a aurkeztu duten eraikinak eta horien informazioa.</li> <li>- Espazio naturalen zonifikazioa</li> <li>- Landare inbaditzaileen kokapena eta erradikazio plana</li> <li>- Espezie babestuen kokapena</li> <li>- Puntu beltzak</li> <li>- ....</li> </ul> <p>GIS korporatiboak Udaleko Sail ezberdinen informazio espaziala bateratuko du eta, dagokion bisorearen bitartez, web orrian eskuragarri jarriko da herritarrentzat interesgarria izan daitekeela irizten den informazioa. Bestalde, informazio espaziala bateratzeak, udal-kudeaketa hobetuko du. GIS korporatiboa elikatzeko ardura Hirigintza eta Ingurumen Sailak edukiko du eta programa delineatzaileak editatuko du, baina gainerako Sailek informazioa prestatu eta helaraziko diote.</p> <p>Sail ezberdinetako informazioa espaziala eguneratzen edota sortzen doan heinean GIS-a eguneratu edo datu berriekin elikatuko da.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Delineatzailea
Gaia	21. KOORDINAZIOA	Aalborg konpromisoa	1. GOBERNATZEKO MODUAK
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		16- BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	

<b>1.2.1</b>	<b>Portuko Agintaritzarekin koordinazioa sendotu, Portuko jardueretan ingurumen hobekuntzarako neurriak bultzatzeko elkarlanean</b>		
<b>PROGRAMA</b>	1.2 Udala eta portuaren arteko elkarlana sustatu, informazioaren eskuragarritasuna eta gardentasuna oinarri hartuz		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Gaur egun Portuko Agintaritzarekin biltzen dira erakunde desberdinak, horien artean, Pasaiako Udala, Pasaiako Badiako ingurumena hobetzeko erakunde arteko Batzordearen bidez. Ekintza honen bidez bilera horiek mantendu nahi dira, baina bertan lantzen diren gaiak areagotuz, ekintza eta irtenbide berriak proposatuz ingurumen inpaktua sortzen duten jardueri eta herritarren beharrei erantzunez.</p> <p>Azken finean, portuko jardueretan ingurumen hobekuntzarako neurriak bultzatu nahi dira, erakunde desberdinen arteko elkarlana sustatuz eta ekologia zirkularraren ereduak jarraituz. Lanketa honetan kontuan izan beharko dira portuko ohiko jarduerak (adibidez, gaien garraioa, karga/deskarga, trafikoa), handitzen ari diren zerbitzuak (adibidez, itsas-bidaien turismoa), Plan Integralak ekarri behar dituen lanak... Egokia litzateke baita ere, inguruko Portuen ereduak aztertzea (Santander edo estatuko beste edozein instrukzio teknikoari dagokionean, Baionakoa herritarrekin nola lan egiten dutenkontutan izateko...) eta Pasaiako Portura jardunbide egokiak ekartzea.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	
Gaia	21. KOORDINAZIOA	Aalborg konpromisoa	1. GOBERNATZEKO MODUAK
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		16- BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	

<b>1.2.2</b>	<b>Udalak gai desberdinen baitan burutzen dituen parte hartze prozesuetan Portua barneratu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	1.2 Udala eta portuaren arteko elkarlana sustatu, informazioaren eskuragarritasuna eta gardentasuna oinarri hartuz		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Portua eta herriaren artean elkarbizitza egokia izatea nahi da eta horretarako beharrezkoa da udalaren parte hartze prozesuetan Portua kontuan izatea, eta bere iritzia eta ekarpenak jasotzea. Ekintza honen helburua Udalak garatuko dituen proiektu/prozesuetako parte-hartzeetara Portua gonbidatzea da, batez ere proiektu/prozesu horrek Portuan eragina badu. Parte-hartze saioen bidez ez bada, dagokion teknikariarekin elkarriketak izango ditu Udalak, informazioa elkarbanatu eta ekarpenak jasotzeko helburuz.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Hirigintza
Gaia	21. KOORDINAZIOA	Aalborg konpromisoa	1. GOBERNATZEKO MODUAK
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		16- BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	

<b>1.2.3</b>	<b>Portu Agintaritzari portuko jarduera ekonomikoek sor ditzaketen aldizkako isuriengandik edo isuri lausoengatik gerta daitekeen uraren kutsadurari buruzko informazioa eskatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	1.2 Udala eta portuaren arteko elkarlana sustatu, informazioaren eskuragarritasuna eta gardentasuna oinarri hartuz		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Portuko jarduera ekonomikoek isuriak sor ditzakete uretara. Kasu batzuetan ur saneamendura egin daitezke isuriak, eta hauek beraz, kudeatu egiten dira, baina beste batzuetan isuriak zuzenean badiara egin daitezke edo euri jarioren ondoriozko isuri lausoak gerta daitezke portuko eremuan, eta hauek ere badiako uretara isuri. Guzti honen ezagutzarik ez dauka udalak, batez ere horretarako eskumena duen erakundea Ur Agentzia delako. Horregatik ekintza honen helburua, alde batetik, isuri hauek gertatzen diren edo ez ezagutzea eta beraien jatorriak eta helmugak ezagutzea da, eta bestetik, beharrezkoa den kasuetan neurriak hartzea, udalari dagozkion eskumenen baita beti ere. Portuan kokatutako jardueren gaineko informazioa denez, Portuko Agintaritzarekin adostu beharko du udalak, informazio hau elkarbanatzeko modua.</p>			
Epea	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	
Gaia	21. KOORDINAZIOA	Aalborg konpromisoa	1. GOBERNATZEKO MODUAK
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		16- BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	

<b>1.2.4</b>	<b>Portuko jarduerak sortzen dituzten hondakinei buruzko informazioa elkarbanatu Udalaren eta Portuaren artean</b>		
<b>PROGRAMA</b>	1.2 Udala eta portuaren arteko elkarlana sustatu, informazioaren eskuragarritasuna eta gardentasuna oinarri hartuz		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ekintza honen bidez, Portuko jarduerak sortzen dituzten hondakinei buruzko informazioa jaso nahi da: zein hondakin eta zenbat hondakin sortzen duten, nola kudeatzen dituzten, hondakinen bilketaren sistema zein den... Informazio hau jasotzeko, lehenik jarduera lizentzian dagoen informazioa eskatu eta aztertuko da, eta ez badago edo osatu behar bada Portuko Agintaritzak eta San Marko Mankomunitatearekin elkartuko da udala. Horrez gain, enpresei ere eskatu dakiok informazioa zuzenean (bilerekin bidez, telefono bidez...).</p>			
Epea	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	
Gaia	21. KOORDINAZIOA	Aalborg konpromisoa	1. GOBERNATZEKO MODUAK
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		16- BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	

<b>1.2.5</b>	<b>Pasaiaren eta Portuaren tradizioa biziberritzea eta Badiaren erabilera sustatzea, ekintzak, kirol probak... bertan egitea</b>		
<b>PROGRAMA</b>	1.2 Udala eta portuaren arteko elkarlana sustatu, informazioaren eskuragarritasuna eta gardentasuna oinarri hartuz		
<b>Deskribapena:</b>			
Pasaiatarrek portua eta batik bat badia herriaren espazio bat dela sentitzeko helburuarekin burutu nahi da ekintza hau, horretarako herriko hainbat jarduera espazio honetan aurrera eramatea proposatzen da, beharrezkoa den kasuetan, Portuarekin elkarlana sustatuz. Hau da, herritarrek badia aisirako eremu gisa ulertzea eta aldi berean Pasaia duen bereizgarria, portua, bereganatzea eta sentitzea.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	15.000-35.000 €		
Arduradun nagusia	Jarduera Fisikoa eta Kirola	Beste arduradunak	Hirigintza
Gaia	21. KOORDINAZIOA	Aalborg konpromisoa	1. GOBERNATZEKO MODUAK
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		16- BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	

<b>1.3.1</b>	<b>Udal-ekimenetan lau barrutiek bakar bat osatzen dutela komunikatzeko jarraibideak zehaztu eta definitu eta protokolo bat egin</b>		
<b>PROGRAMA</b>	1.3 Herritarren komunikazioa indartu eta politika publikoetan beraien parte-hartze aktiboa sustatu		
<b>Deskribapena:</b>			
Lau barrutiek bakar bat osatzen duten leloa komunikatzen jarraitzea eta Udal-ekimenetan islatzea beharrezkoa da. Ekintzaren helburua beraz, edozein udal sailek egin dezaketen ekimenetan, lau barrutiek bat osatzen dutenaren leloa komunikatzea da. Horretarako udal teknikari edo sail guztien artean zein jarraibide jarraitu behar diren definituko da elkarlanean eta horrekin protokolo bat egiten da, sail guztietan aplikatuko dena ekimenak egiten diren kasuetan. Ekintza honek sail guztiei eragiten dienez, Zuzendaritza taldetik burutu beharreko ekintza da.			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Altua
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Zuzendaritza taldea	Beste arduradunak	Informatika
Gaia	21. KOORDINAZIOA	Aalborg konpromisoa	1. GOBERNATZEKO MODUAK
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		16- BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	

<b>1.3.2</b>	<b>Herritarrei zuzendutako ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazioa egin herriko sektore desberdinekin (gazteak, emakumeak, atzerritarrak, ostalaritza, merkataritza...) eta udalerriko eragileekin batera</b>		
<b>PROGRAMA</b>	1.3 Herritarren komunikazioa indartu eta politika publikoetan beraien parte-hartze aktiboa sustatu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Udalak ekintza nahiz kanpaina desberdinak garatzen ditu urtean zehar udalerrian. Ekintza honen bidez, ingurumenarekin erlazioa duten arloen gaineko hezkuntza eta sentsibilizazio kanpainak indartu nahi dira modu programatu batean, horrela herritarrak ingurumen arloan ahaldunduz: ingurune naturala, energia, klima aldaketa, hondakinak, biodibertsitatea, ura... Horretarako urte hasieran programatu egingo dira hezkuntza eta sentsibilizazio kanpaina desberdinak, eta programazio horretan urtean zein gai eta gai bakoitza noiz landuko den eta nori zuzenduta izango den adostuko da ondorengo kontutan izanik: Udalerrian garatzen ari diren ekintza desberdinak eta nazioarteko ospakizun eta egutegiak (aste berdea, mugikortasun astea...).</p> <p>Udalaz gain, badaude ingurumen hezkuntza egiten duten bestelako eragileak ere herrian (emakume taldeak, atzerritarrak, eragile pribatuak...), udalak hauek ere kontuan izanen ditu programazioa egiterako orduan, eta beraiekin elkarlana sustatuko du, lanerako bide berriak irekiz.</p>			
<b>Epea</b>	<b>Ertaina (2021-2023)</b>	<b>Lehenetasuna</b>	<b>Baxua</b>
<b>Kostua</b>	0.0 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	<b>Ingurumena</b>	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Gaia</b>	<b>19. SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA</b>	<b>Aalborg konpromisoa</b>	<b>4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUA</b> <b>10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA</b>
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		<b>12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK</b>	

<b>1.3.3</b>	<b>Tokiko Agenda 21eko herritarren parte-hartze foro egonkorra sortu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	1.3 Herritarren komunikazioa indartu eta politika publikoetan beraien parte-hartze aktiboa sustatu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ekintza honen helburua Tokiko Agenda 21eko herritarren parte-hartze Foroa Pasaiako Tokiko Agenda 21aren jarraipena egiteko organo osagarri gisa bultzatu eta finkatzea da, horretarako lehenik foro hau sortu beharko delarik.</p> <p>Foroaren betekizuna, eztabaida gunea izatea da. Foroan parte hartzen duten talde eta pertsona indibidualak dira barne dinamikaren protagonistak, hauek dira, iritzi emaile nagusiak. Foroaren emaitzak Teknikarien Mahaiak eta Zuzendaritza Taldeak (dagozkion bileretan) kontuan izan beharko lituzke. Foroa espazio formal bihurtu ahal izateko, ondorengo jarduerak egingo dira besteak beste:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Foroaren irismena adostu: zein kolektibo erakarri nahi diren erabaki eta hauek erakartzeko egin beharreko pausuak zehaztu. TA21eko Planaren diseinuan parte hartu duten eragile/pertsonak osatu dezakete Foroa, baita interesatua egon daitekeen beste edonor ere.</li> <li>- TA21eko herritarren parte-hartze foroaren etorkizuneko funtzionamenduaren oinarriak definitu (parte-hartze arautegia definitu)</li> </ul> <p><b>FOROAREN HELBURUAK.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Pasaiako TA21aren ildo estrategikoak, ekintza planak eztabaidatu eta ekarpenak proposatu.</li> <li>- Aipatu ildo eta ekintza planaren garapenaren berri jaso eta eztabaidatu eta, horrela balegoke, Udalak hartu dituen zuzentze-neurriak eztabaidatu eta proposatu.</li> <li>- Urtean zehar egin beharreko jardueren proposamena egin</li> </ul>			
<b>Epea</b>	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
<b>Kostua</b>	0.0 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Ingurumena	Beste arduradunak	
<b>Gaia</b>	20. HERRITARREN PARTE-HARTZEA	Aalborg konpromisoa	2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL-KUDEAKETA
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		11- HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	

<b>1.4.1</b>	<b>Tokiko Agenda 21aren kudeaketa aktiboa egin</b>		
<b>PROGRAMA</b>	1.4 Udalaren gardentasuna bermatu instituzio eraginkorra bultzatuz		
<b>Deskribapena:</b>			
Ekintzaren helburua Udalsarea 21ek definitutako metodologia erabiliz Pasaiaiko Tokiko Agenda 21aren Ekintza Planaren kudeaketa egitea da, bertan sortuko diren udaleko Mahai teknikoa, Zuzendaritza Taldeko bilerak eta TA21eko herritarren parte-hartze Foroa inplikaturik egon direlarik.			
Ekintza Planean ezarritako helburuen lortzea ziurtatzeko eta beraien egokitasuna baloratzeko, urtero ondorengo egingen da Udalsarearen metodologiaren eta baliabideen bidez:			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekintza Planaren ebaluazioa.</li> <li>- Tokiko iraunkortasun adierazleen kalkulua.</li> <li>- Jardueren programazioa eta ebaluazioaren eta adierazleen emaitzekin koherentea den eguneraketaren (zuzentze neurriak) proposamena egin.</li> <li>- Garapen Jasangarriaren Helburuei Pasaiaik egindako ekarpena aztertu</li> </ul>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	
Gaia	22. GARDENTASUNA	Aalborg konpromisoa	2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL-KUDEAKETA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		16- BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	

<b>1.4.2</b>	<b>Tokiko ekintzen emaitzak argitaratu herritarrek informatuta egon daitezkeen eta parte hartzea errazteko</b>		
<b>PROGRAMA</b>	1.4 Udalaren gardentasuna bermatu instituzio eraginkorra bultzatuz		
<b>Deskribapena:</b>			
Ekintza honen helburua Tokiko Agenda 21aren ebaluazioaren emaitzak eta Tokiko Iraunkortasun Adierazleen kalkuluen emaitzak argitaratzea da. Honetarako lehenik TA21aren kudeaketa egingen da, eta bertako emaitzak herritarrentzat ulergarri diren moduan azalduko dira txostenen bidez. Txosten hauek Udalaren web orrian zintzilikatuko dira, Tokiko Agenda 21aren atalean.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	
Gaia	22. GARDENTASUNA	Aalborg konpromisoa	2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL-KUDEAKETA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		16- BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	

<b>1.4.3</b>	<b>Udal barnean Tokiko Agenda 21aren kontu ematea erraztu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	1.4 Udalaren gardentasuna bermatu instituzio eraginkorra bultzatuz		
<b>Deskribapena:</b>			
Sortutako Teknikarien Mahaian eta Zuzendaritza Taldeko bileretan, TA21aren kudeaketaren ondorioz ateratako emaitzen berri ematea da ekintzaren helburua. Informazio hau Iraunkortasunaz eta TA21aren kudeaketaz arduratzen den udal teknikariak emango du urtean behin.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	
Gaia	22. GARDENTASUNA	Aalborg konpromisoa	2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL-KUDEAKETA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		16- BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	

<b>1.4.4</b>	<b>Udalaren ingurumen eta TA21aren informazioa herritarren eskura jarri web orriaren bidez</b>		
<b>PROGRAMA</b>	1.4 Udalaren gardentasuna bermatu instituzio eraginkorra bultzatuz		
<b>Deskribapena:</b>			
Web orria udalaren erakustokia da, horregatik garrantzitsua da bertan herritarrentzat interesgarria izan daitekeen informazio guztia jartzea. Ekintza honen bidez, Tokiko Agenda 21aren baitan egiten diren ekintzen berri eman nahi da herritarrei; burutzen diren jarduerak, kanpainak, bilerak..., baita udalak arlo desberdinen baitan duen informazioa ere: energia kontsumoaren datuak, hondakinei buruzkoak, Portuarekin erlazioa duen informazioa, bileretako aktak...			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	
Gaia	22. GARDENTASUNA	Aalborg konpromisoa	2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL-KUDEAKETA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		16- BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	

## **2. ILDO ESTRATEGIKOA:**

**HERRI GARAPENEAN LURZORUAREN ERABILERA  
JASANGARRIA EGIN ETA GIZA KOKALEKUEN  
INKLUSIBITATEA, SEGURTASUNA ETA NORTASUNA INDARTU**



<b>2.1.1</b>	<b>Hiria Antolatzeko Plan Orokorren (HAPO) eguneraketa egin eta Donibane eta San Pedroko herrigune historikoak birgaitzeko Plan Berezia birplanteatzerakoan, bertako komertzioa eta turismoa sustatzea ahalbidetu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	2.1 Herriaren birgaitzea bultzatu, hiriaren garapen inklusibo eta jasangarria oinarri izanik		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaiaiko Udalak HAPOa berrikusteko lantaldea aukeratzeko prozesua abian jarri zuen, nahiz eta oraindik kontratua ez den behin betiko esleitu. HAPOa berrikusteko prozesuaren baitan, besteak beste, Donibane eta San Pedroko herrigune historikoak birgaitzeko Plan Berezia berrikustea ere aurreikusten da. Egun Plan Bereziak babestutako eraikinak definitzen ditu eta ordenazioz kanpo edo bateragarriak ez diren elementuak identifikatu. Horrez gain, edozein jarduketa partzial egiten denean elementuok jatorrizko egoerara itzularazi behar direla ezartzen du eta horrek zenbait kasutan merkataritza-jarduerak ezartzea zaildu dezake, batez ere eskatu beharreko jarduketa proportzionatuak zeintzuk diren ez delako definitzen. Bestalde, egungo AASS-ek eta herrigune historikoak birgaitzeko Plan Bereziak ez dituzte etxebizitza turistikoak baimentzen. Ekintza honen helburua, HAPOa berrikusteko prozesuaren baitan Donibane eta San Pedroko herrigune historikoetako merkataritza-jarduerak eta turismoa sustatzea baina, aldi berean, erregulatzea da. Horretarako, HAPOan, Donibane eta San Pedroko herrigune historikoak birgaitzeko Plan Bereziaren edo ordenantza konkretuetan ezar daitezkeen baldintzak aztertuko dira.</p> <p>Etxebizitza turistikoaren kasuan, horiek erregulatzen dituen ordenantza idatziko da.</p> <p>OHARRA: HAPOa berrikusteko lantaldeak eguneratuko du plan berezia. HAPOa egingo duen lantaldea kontratatzeke aurrekontuaren parte bat da.</p>			
<b>Epea</b>	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
<b>Kostua</b>	35.000-50.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Hirigintza	Beste arduradunak	
<b>Gaia</b>	01. LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA	Aalborg konpromisoa	5. HIRIGINTZA DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		11- HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	

<b>2.1.2</b>	<b>50 urtetik gorako eraikinek eraikinaren egoerari buruzko ziurtagiria eskuratzea sustatu eta hauen jarraipena egin</b>		
<b>PROGRAMA</b>	2.1 Herriaren birgaitzea bultzatu, hiriaren garapen inklusibo eta jasangarria oinarri izanik		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaiako eraikinen % 65ak 50 urte baino gehiago du eta, hortaz, EIT-a aurkeztu beharra du Udalean. Haatik, oraindik ez dira jaso EIT guztiak. Ekintza honen helburua da, oraindik jaso ez diren EIT-ak egitea sustatzea eta, behin jasota, guztietan jasotzen diren ekintzak aztertu eta egin diren ala ez kontrolatzea.</p> <p>OHARRA: epe laburra jarri da dagoeneko hasita dagoelako udala EIT-ak jasotzen eta aurkeztutakoen (eta falta direnen) jarraipena egiten. Aurrekontua 0 jarri da orain arte, behintzat, udalaren baliabideekin egin delako. GIS korporatiboak ere lagunduko du jarraipenean</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Hirigintza	Beste arduradunak	
Gaia	01. LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA	Aalborg konpromisoa	5. HIRIGINTZA DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)	11- HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK		

<b>2.1.3</b>	<b>Lau barrutietan eraberritze lanak egiten jarraitu, berroneratze planen edota Paisaia Planen bitartez</b>		
<b>PROGRAMA</b>	2.1 Herriaren birgaitzea bultzatu, hiriaren garapen inklusibo eta jasangarria oinarri izanik		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaiaiko lau barrutietan badaude eraberritzea beharrezkoa duten eremuak edo espazioak. Horiek egun indarrean dauden AASS-etan identifikatzen dira. Ekintzaren helburua, eremu horien berroneratzea sustatzeko jarduerak martxan jartzea da. Horretarako, lehenik, berroneratzea behar duten eremuak aztertu eta lehenatasuna esleituko zaie eta horren arabera, eremu edo espazio hauen planeamenduak egingo dira.</p> <p>Bizilagunen ikuspuntua barneratzea ere beharrezkotzat jotzen da. Horretarako, herritarren ikuspuntua zein eremu/espazioetan barneratu behar den adostu eta erabakiko da, eta eremu/espazio hauek diseinatzerako orduan, bizilagunen parte hartzea bermatu behar da; beraiekin elkarlanean diseinatuko da eremuaren antolamendua, bertako guneak berreskuratzeko moduak bilatuko dira, espazio publikoen erabilera definituko da, espazio eta eraikin publikoetara irisgarritasuna bermatuko da eta guzti hau barrutiaren identitatea errespetatuz.</p> <p>Pasaiaiko Udala Andonaegi, Salinas eta arrantzale-etxaldeko Paisaia Plana idazten dabil. Bertan, aipatutako eremuetako eraikinak eraberritzeko zenbait ekintza zehaztuko dira, zeintzuk datozen urteetan gauzatzeko diren. Eremu horiek ez dira, ordea, eraberritzeko beharrean dauden bakarrak. Ekintza honen bitartez, Andonaegi, Salinas eta arrantzale-etxaldean eginiko Paisaia Planaren antzekoa udalerriko gainerako eremuetarako idaztea eta bertako ekintzak garatzea aurreikusten da.</p> <p>OHARRA: Epe laburra jarri da dagoeneko hasita dagoelako udala Paisaia Plan bat garatzen eta beraz ekintza hasi delako. Paisaia Plana idatzi eta bertan aurreikusitako ekintzak gauzatzeko aurrekontua da jarri dena.</p>			
<b>Epea</b>	Laburra (2019-2020)	Lehenatasuna	Ertaina
<b>Kostua</b>	>80.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Hirigintza	Beste arduradunak	
<b>Gaia</b>	01. LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA	Aalborg konpromisoa	5. HIRIGINTZA DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		11- HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	

<b>2.1.4</b>	<b>Egun Pasaian dauden berdegune, parke eta gune publikoak kalitate onean mantendu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	2.1 Herriaren birgaitzea bultzatu, hiriaren garapen inklusibo eta jasangarria oinarri izanik		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaiaiko Udalak bere eskumenekoak diren parke eta berdeguneen mantentze-lanak egiten ditu. Ekintza honen helburua da berdegune eta gune publikoen egoera aztertu eta, beharrezkoa balitz, mantentze-lan mota edota maiztasuna aldatzea. Horrez gain, bere eskumenekoak ez diren berdegune eta gune publikoak egoera egokian mantentzeko eskumendunei dagozkion mantentze-lanak egiteko agintzeko zaie, edota dagokion administrazioaren hitzarmenak sinatuko dira. Horretarako, lehenengo eta behin Pasaian dauden berdegune, parke eta gune publikoen inbentarioa egingo da, bakoitzaren mantentze-lanak egiteko eskumenduna identifikatuz.</p> <p>OHARRA: aurrekontua 0 jarri da, printzipioz udalaren baliabideekin egingo delako dena.</p>			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Altua
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Zerbitzuak	Beste arduradunak	Hirigintza
Gaia	01. LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA	Aalborg konpromisoa	5. HIRIGINTZA DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		11- HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	

<b>2.1.5</b>	<b>Antxoko Molinao ingurua berdegune moduan egokitzeko aukera aztertu Donostiako udalarekin batera</b>		
<b>PROGRAMA</b>	2.1 Herriaren birgaitzea bultzatu, hiriaren garapen inklusibo eta jasangarria oinarri izanik		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ekintzaren helburua, Pasaian aisialdirako eremu berdeak areagotzea da. Gaur egun parke, lorategi eta berdeguneen azalera txikia da herrigunean eta horregatik, Antxon dagoen Molinao ingurua berdetu nahi da. Eremu hau Donostiako lurretan dago, horregatik, lehenengo eta behin, Donostiako udalari ideien berri eman behar zaio, eta bideragarri izatekotan adostasun batera iritsi, eremu hori aisialdirako eremu bihurtzeko. Behin adostasuna izanik, proiektua diseinatu eta gauzatu egingen da. Proiektuaren diseinuan interesgarria izango litzake herritarren eta bizilagunen iritzia jasotzea eta beraiekin batera diseinatzea eremua.</p> <p>OHARRA: Ezarri den aurrekontua (15.000-35.000 €) proiektua idatzi eta gauzatzeari dagokio. Aurrekontu txikia jarri da, aurreikusten baita Donostiako Udalarekin akordio batera heltzea eta Donostiak jartzea diru kopururik handiena. Hala ere, partida bat aurreikustea ondo legoke, proiektua idatzi, gauzatu, mantentze-lanetarako...</p>			
Epea	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	15.000-35.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Hirigintza
Gaia	01. LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA	Aalborg konpromisoa	5. HIRIGINTZA DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		11- HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	

<b>2.1.6</b>	<b>Natura eta herrigunearen arteko trantsizio eremua ordenatu eta antolatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	2.1 Herriaren birgaitzea bultzatu, hiriaren garapen inklusibo eta jasangarria oinarri izanik		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Egun hiri-lurzoria eta babestutako natur guneen arteko eremuan ordenatu gabeko erabilerak egiten dira, askotan okupatutako udal lurzoruetan eta, gehienetan, lizentziarik gabe eta inolako baldintzarik bete gabe eraiki izan dira (txabolak). Pasaiaiko Udalak dagoeneko abiatu du eremu horiek antolatzekeo prozesua eta Azkuene Goiako eremua urbanizatzeko proiektua behin betiko onartu du. Lehenik eta behin proiektu horretan aurreikusten dena gauzatu eta, ondoren, beste zenbait trantsizio guneetako eremuak antolatzea da ekintza honen helburu nagusia, kasurako: Azkuene Goia iparraldea, Arrandegi kaleko goiko aldea eta San Pedro. Horietan guztietan, erabiltzen ez diren lur pribatuak publikatzeko aukera aztertuko da.</p> <p>OHARRA: epe laburra jarri da dagoeneko hasita dagoelako (Azkuene Goiako proiektuarekin), baina denboran luzatuko den ekintza da (epe luzera). Azkuene goiako proiektua gauzatzeko aurrekontua dagoeneko 80.000 euro baino handiagoa da.</p>			
<b>Epea</b>	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
<b>Kostua</b>	>80.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Hirigintza	Beste arduradunak	Ingurumena
<b>Gaia</b>	01. LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA	Aalborg konpromisoa	5. HIRIGINTZA DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>	11- HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK		

<b>2.2.1</b>	<b>Mugikortasun Iraunkorrerako plana egin eta bertako ekintzak aurrera eraman</b>		
<b>PROGRAMA</b>	2.2 Ura, eremu lehorra eta naturala konektatuko dituen mugikortasun iraunkor eta seguruaren alde lan egin		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Udalak mugikortasunari loturiko azterketak egin izan ditu, hala nola, aparkalekuen okupazioaren eta egungo arazoan azterketa, eta mugikortasun iraunkorra sustatzeko ekimenak ere martxan jarri ditu azken urteetan. Hala ere, ez du mugikortasuna bere osotasunean jasotzen duen egungo azterketarik.</p> <p>Ekintza honen helburua mugikortasunaren egungo egoeraren argazki bat izatea da, horretarako azterketa bat burutzea proposatzen delarik, bertan udalerriko ahuleziak zehazki non dauden ongi ezagutzeko. Ahulezi horiei aurre egiteko eta udalerrian mugikortasun iraunkorrerako politikak modu egoki batean garatzeko, Mugikortasun Iraunkorrerako Plana diseinatuko da eta bertan planteatzen diren ekintzak aurrera eramango dira.</p>			
Epea	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Altua
Kostua	>80.000 €		
Arduradun nagusia	Mugikortasuna	Beste arduradunak	Hirigintza
Gaia	03. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	Aalborg konpromisoa	6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		3- OSASUNA ETA ONGIZATEA	

2.2.2		Motora zerbitzua zabaltzea aztertu eta beharrezko hobekuntzak egin	
PROGRAMA	2.2 Ura, eremu lehorra eta naturala konektatuko dituen mugikortasun iraunkor eta seguruaren alde lan egin		
Deskribapena:			
<p>Gaur egun motora zerbitzua Itsaszerbi enpresak eramaten du eta Donibane eta San Pedro lotzen ditu. Zerbitzua emateko Udalarekin hitzarmen bat du Itsaszerbik. Ekintza honen bidez motora zerbitzuaren bideragarritasun azterketa bat egin nahi da, besteak beste, zerbitzua beste barrutietara zabaltzeko aukera eta zerbitzuak behar dituen hobekuntzak lantzeko, hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Herritarrei lehentasuna emango dion garraio publikoa izateko proposamenak barneratu (tarifaren bidez, dagoeneko aplikatzen den BIZIbadia zerbitzuaren bidez edo bizikleta erregistratua izatearen bidezko doako bidaia aplikatuz herritarrei)</li> <li>- Pantalanaren irisgarritasuna hobetzeko proposamenak landu</li> <li>- Zerbitzua bizikletentzat egokitzeko proposamenak landu.</li> <li>- Udalarekin hitzarmena eguneratzeko aukera aztertu.</li> <li>- Motora zerbitzua elektrifikatzea teknikoki eta ekonomikoki bideragarria den aztertu erakunde kudeatzailearekin batera. Motora elektrifikatzeak ondorengo onurak ekarriko lituzke: soinu akustikoa gutxitu, airera botatzen diren gai kutsakorrak ekidin, uretara egiten diren isuriak ekidin, energia garbia erabili eta energia aurreztu.</li> </ul>			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Altua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Mugikortasuna	Beste arduradunak	
Gaia	03. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	Aalborg konpromisoa	6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA  10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		3- OSASUNA ETA ONGIZATEA	

<b>2.2.3</b>	<b>Bidegorri sarea amaitu, bertako segurtasuna hobetzeko lanak barneratuz eta bizikletentzako aparkalekuak egokituz</b>		
<b>PROGRAMA</b>	2.2 Ura, eremu lehorra eta naturala konektatuko dituen mugikortasun iraunkor eta seguruaren alde lan egin		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ekintzaren bidez, Pasaiako barrutiak beren artean eta inguruko herriekin (Lezo-Donibane, Escalerillas/San Pedro-Trintxerpe-Donostia...) lotzeko bidegorri sarea amaitzeko lanak burutu nahi dira. Horretarako dagokion erakundeari eskaera egingen zaio. Horrez gain, bizikletentzako bide eroso eta seguruak lortu nahi dira, horretarako udalak ondorengoa egin dezake:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Herri barruko bizikleten bideetako (koexistentzia bideak eta 20 eremuak) seinaletika bertikala eta horizontala errefortzatu eta mantendu</li> <li>- Bidegorriak amaitzen diren lekuetan, jarraipen bat eman eta bertako seinaletika hobetu</li> <li>- Bizikletentzako aparkalekuak jarri, lehenik aparkalekuentzako leku interesgarrienak zeintzuk diren aztertuz</li> <li>- Herritarrak bidegorriaren erabilera egokian hezi</li> </ul>			
<b>Epea</b>	<b>Ertaina (2021-2023)</b>	<b>Lehentasuna</b>	<b>Altua</b>
<b>Kostua</b>	15.000-35.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Mugikortasuna	Beste arduradunak	Hirigintza Udaltzaingoa
<b>Gaia</b>	03. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	Aalborg konpromisoa	6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		3- OSASUNA ETA ONGIZATEA	

<b>2.2.4</b>	<b>Udalerriko irisgarritasun plana egin eta bertako ekintzak aurrera eraman</b>		
<b>PROGRAMA</b>	2.2 Ura, eremu lehorra eta naturala konektatuko dituen mugikortasun iraunkor eta seguruaren alde lan egin		
Deskribapena:			
Egun Pasaiaiko Udala Irisgarritasun Plana idazteko prozesuan da. Bertan, udal eraikin, kale eta garraiorako zerbitzuetan egin beharreko zenbait ekintza identifikatuko dira, horietan Irisgarritasun baldintzak betetze aldera. Ekintza honen helburua, plana idazten bukatzea eta bertan aurreikusten diren ekintzak gauzatzea da.			
OHARRA: epe laburra jarri da dagoeneko hasita dagoelako, baina ekintzak garatzeko epea luzea izango da (batez ere aurrekontu dexente beharko dutelako).			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
Kostua	>80.000 €		
Arduradun nagusia	Hirigintza	Beste arduradunak	Mugikortasuna
Gaia	03. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	Aalborg konpromisoa	6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		3- OSASUNA ETA ONGIZATEA	

<b>2.2.5</b>	<b>Udalerrian ibilgailu motordunak aparkatzeko arazoari buruzko hausnarketa egin eta puntu beltzenetan arazoa gainditzeko jarduerak burutu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	2.2 Ura, eremu lehorra eta naturala konektatuko dituen mugikortasun iraunkor eta seguruaren alde lan egin		
Deskribapena:			
Pasaiaiko udalerrian ibilgailuak aparkatzeko arazoaren azterketa eta diagnostikoa egin zen 2017an baita aparkalekuen okupazio mailaren azterketa ere. Ekintza honen bidez, aparkalekuen auzia berriro mahai gainean jarri nahi da, eta honen gaineko eztabaida burutu udal mailan. Egindako azterketa horietako emaitzak berriro aztertu daitezke, eta arazo larrienak dauden eremuetan irtenbideak bilatu eta jarduera horiek martxan jarri.			
Epea	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	15.000-35.000 €		
Arduradun nagusia	Udaltzaingoa	Beste arduradunak	Hirigintza
Gaia	03. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	Aalborg konpromisoa	6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		3- OSASUNA ETA ONGIZATEA	

<b>2.2.6</b>	<b>Udalerriko erdiguneak naturan dauden ibilbideekin lotu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	2.2 Ura, eremu lehorra eta naturala konektatuko dituen mugikortasun iraunkor eta seguruaren alde lan egin		
<b>Deskribapena:</b>			
Ekintzaren helburua hiri-ingurua edo erdigunea naturarekin lotzea da, erronka edota joko moduko ibilbideak sortuz. Horretarako, herrian hasi eta bukatzen den ibilbideak diseinatuko eta seinaleztatuko dira. Ibilbide hauen diseinua horrelako arloan lanean dabiltzan elkarrekin elkarlanean garatu daiteke. Behin ibilbideak diseinatuak eta seinaleztatuak daudenean, hau ezagutzera emateko kanpaina bat egingen da, eta komunikaziorako materiala prestatuko da.			
<b>Epea</b>	<b>Ertaina (2021-2023)</b>	<b>Lehentasuna</b>	<b>Ertaina</b>
<b>Kostua</b>	3.000-15.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	<b>Mugikortasuna</b>	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Gaia</b>	03. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	Aalborg konpromisoa	6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		3- OSASUNA ETA ONGIZATEA	

<b>2.3.1</b>	<b>Ulia-Pasaiako landa parkea antolatu Donostiako Udalarekin koordinatuz eta definitzen diren ekintzak aurrera eraman</b>		
<b>PROGRAMA</b>	2.3 Lehorreko eta itsasoko bizitza babestu, kontserbatu eta ezagutzera eman biodibertsitatearen galera ekidinez		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ekintza honen helburu nagusia Donostialdeako LPP-an azaltzen den Uliako parke periurbanoaren erabilerak antolatzea da, ingurumena babesteko irizpideak kontuan izanik. Horretarako, lehenengo eta behin dagoeneko Donostiako Udalarekin landutako Uliako Plan Berezia onartzeko prozesua abiarazi beharko da. Ondoren, Uliako Plan Berezia behin betiko onartuta dagoela, dokumentuak jasotzen duen Ekintza Planak aurreikusitako ekintzak gauzatu beharko dira, bertan adierazten diren epeak kontuan hartuz.</p> <p>Uliako Plan Bereziaren egungo dokumentuak 27 ekintza aurreikusten du eta horietatik 6 Donostiako Udalarari dagozkio soilik eta gainerako 21 ekintzak Donostiako eta Pasaiako udalek egin beharko dituzte elkarlanean. Horretarako bi udalen arteko hitzarmenak sinatzea aztertuko da eta, posible denean, sinatu gastuak konpartitu ahal izateko.</p> <p><b>OHARRA:</b> Aurrekontua, Uliako Plana idatzi, onartu eta ekintza plana gauzatzearena (dena gehituta) 80.000 € baino handiagokoa izan daitekeela aurreikusten da baina Donostiako Udalarekin sinatuko diren hitzarmenetan zehaztuko da. Epeari dagokionez, Uliako Plan Bereziako Ekintza Plana 2020an abiaraztea aurreikusten da (eta 2019an onartu).</p>			
<b>Epea</b>	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Ertaina
<b>Kostua</b>	>80.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Ingurumena	Beste arduradunak	Hirigintza
<b>Gaia</b>	02. BIOANIZTASUNA ETA INGURUMEN NATURALA	Aalborg konpromisoa	3. NATUR ONDASUN KOMUNAK
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		15- LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA	

<b>2.3.2</b>	<b>Jaizkibelgo Plan Berezia idatzi</b>		
<b>PROGRAMA</b>	2.3 Lehorreko eta itsasoko bizitza babestu, kontserbatu eta ezagutzera eman biodibertsitatearen galera ekidinez		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ekintza honen helburua Jaizkibelgo eremu naturalean egin daitezkeen ekintzak eta erabilerak antolatzea da, KBE izanik, dagokion dokumentuan xedatutako helburuak eta neurriak bete daitezzen. Horretarako, dagoeneko onartua egongo den Uliako Plan Berezia hartuko da erreferentziatzat eta Jaizkibelgo Plan Berezia idatziko da Hondarribi eta Lezoko udalekin elkarlanean. KBE denez, ordea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren elkarlana ere beharrezkoa izango da Plan Berezia idazteko prozesuan.</p> <p>Behin idatzita, Plan Bereziak jasotzen dituen ekintzak gauzatu egingo dira, bertan definitzen diren arduradunekin elkarlanean.</p> <p>OHARRA: Aurrekontuan Plan Berezia idatzi eta bertako ekintzak gauzatzea aurreikusten da (dena gehituta)</p>			
<b>Epea</b>	Luzea (>2024)	<b>Lehentasuna</b>	Baxua
<b>Kostua</b>	>80.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Ingurumena	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Gaia</b>	02. BIOANIZTASUNA ETA INGURUMEN NATURALA	Aalborg konpromisoa	3. NATUR ONDASUN KOMUNAK
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>	15- LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA		

<b>2.3.3</b>	<b>Jaizkibel eta Uliako Kontserbazio Bereziko Eremuen kudeaketa aktiboa egin</b>		
<b>PROGRAMA</b>	2.3 Lehorreko eta itsasoko bizitza babestu, kontserbatu eta ezagutzera eman biodibertsitatearen galera ekidinez		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Kontserbazio Bereziko Eremuen (KBE) kudeaketa Foru Aldundiaren eskumena izan arren, Udalek badaukate aukera kudeaketa horretan aktiboki parte-hartzeko, modu ezberdinetan: Foru Aldundiari garrantzitsuak irizten diren ekintzak gauzatzeko proposatuz, KBE bakoitzean egin beharreko planifikazioan parte hartuz edo GFA-ren baimenarekin udalek diseinatu, planifikatu eta finantziaturiko ekintzak gauzatuz. Orain arte Pasaiaiko udalak ez du parterik hartu Ulia eta Jaizkibelgo KBE-ren kudeaketan eta, hori dela eta, ekintza honen helburua kudeaketa aktiboa egiteko moduak aztertu eta definitzea da. Ondoren, kudeaketa aktiborako ekintzak definitu eta aurrera eramango dira.</p> <p>OHARRA: Ulia eta Jaizkiblego Plan berezietan jasoko diren ekintza asko kudeaketa aktibokokoak izango dira. Bertan zehaztutakoez gain, aparteko ekintza batzuk ere definitu beharko dira. Ekintza moten arabera aurrekontua bat edo beste izango da. Tartekoa jarri da horregatik.</p>			
<b>Epea</b>	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Ertaina
<b>Kostua</b>	35.000-50.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Ingurumena	Beste arduradunak	
<b>Gaia</b>	02. BIOANIZTASUNA ETA INGURUMEN NATURALA	Aalborg konpromisoa	3. NATUR ONDASUN KOMUNAK
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>	15- LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA		

<b>2.3.4</b>	<b>Tokiko biodibertsitatea hobetzeko lursailen jabeekin hitzarmenak egiteko lur zaintzailatza tresna erabiltzeko aukera baloratu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	2.3 Lehorreko eta itsasoko bizieta babestu, kontserbatu eta ezagutzera eman biodibertsitatearen galera ekidinez		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaian lur zati handiena jabeago publikoaren esku dago, Jaizkibel eta Uliak hartzen baitute eremu naturalaren zati handiena. Hala ere, badaude lurjabe pribatuaren eskuetan dauden azalerak. Ekintzaren helburua, beraz, lursail hauen jabeek beraien lurren kudeaketa egokia egitea da, eta pixkanaka bertako baso eta larreak berreskuratzea. Horretarako, lehenik, biodibertsitateko interesgarria den eremu pribatu bat identifikatu da. Ondoren, lur jabeak identifikatu eta beraiekin harremanetan jartzea baloratuko da, beraiei lur zaintzailatzaren bidez egindako hitzarmenek zer diren azaltzeko bilera bat egitea proposatuz. Jabeen prestutasunaren arabera lursailen kudeaketa egokia egiteko hitzarmenak egingo dira.</p> <p>OHARRAK: Uliako Plan Berezian pribatuak diren lurak eskuratzea aurreikusten da (ez denak, baina ia). Jaizkibelen ia dena publikoa da, militarrek eta zenbait jabe pribatu daude. Hitzarmenena (batez ere militarrekin) interesgarria dela uste dut, eskuratu ezin daitezkeen lurak behintzat kudeaketa egokia eduki dezaten.</p>			
<b>Epea</b>	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Baxua
<b>Kostua</b>	0.0 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Ingurumena	Beste arduradunak	
<b>Gaia</b>	02. BIOANIZTASUNA ETA INGURUMEN NATURALA	Aalborg konpromisoa	3. NATUR ONDASUN KOMUNAK
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		15- LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA	

<b>2.3.5</b>	<b>Nekazaritzak eta abeltzaintzak paisaian eta naturan duten balioa balorean jarri, bertako paisaia mantendu eta gune degradatuak berreskuratzeko</b>		
<b>PROGRAMA</b>	2.3 Lehorreko eta itsasoko bizi babestu, kontserbatu eta ezagutzera eman biodibertsitatearen galera ekidinez		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ekintza honen bitartez, Pasaian (nagusiki Jaizkibelen) egiten diren nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak balioan jarri nahi dira. Horretarako, artzainekin elkartu eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, Jaizkibelgo larreetako kontserbazio Plana idaztea da helburua, mota honetako guneen erabilera eta kontserbazioa bermatzeko.</p> <p>OHARRA: Aurrekontutxo bat aurreikusten da kasualitatez plana idazteko lantaldearen kontratazioan parte hartu beharko balu Udalak.</p>			
Epea	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	
Gaia	02. BIOANIZTASUNA ETA INGURUMEN NATURALA	Aalborg konpromisoa	3. NATUR ONDASUN KOMUNAK
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		2- GOSERIK EZ	

<b>2.3.6</b>	<b>Espezie inbaditzaileekin lanean jarraitu, erakundeen arteko elkarlana eta koordinazioa ahalbidetuz</b>		
<b>PROGRAMA</b>	2.3 Lehorreko eta itsasoko bizi babestu, kontserbatu eta ezagutzera eman biodibertsitatearen galera ekidinez		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaiako Udalak, zenbait herrialderekin batera Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dihardu elkarlanean landare inbaditzaileak erradikatzeko. Horretarako, urtean zenbait bilera egiten dira, lehenengo eta behin, urteko baliabideen arabera ekintzak planifikatu eta tratatuko diren guneak identifikatzeko. Behin guneak tratatuta, balorazio bilera bat ere egiten da.</p> <p>Ekintza honen helburua orain arte bezala, udalerrian dauden landare inbaditzaileen erradikatzeko parte-hartzea da gainerako udalerriri eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Zerbitzuak Udaltzaingoa
Gaia	02. BIOANIZTASUNA ETA INGURUMEN NATURALA	Aalborg konpromisoa	3. NATUR ONDASUN KOMUNAK
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		15- LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA	

<b>2.3.7</b>	<b>Ingurune naturalaren balioa ezagutarazteko eta horiek behar bezala mantentzeko jardunbide egokiak dibulgatzeko kanpainak egin Pasaiaiko eragileekin batera</b>		
<b>PROGRAMA</b>	2.3 Lehorreko eta itsasoko biziaren babestu, kontserbatu eta ezagutzera eman biodibertsitatearen galera ekidinez		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Herritarrek balio naturalen eta bertako biodibertsitatearen kontserbazioan paper garrantzitsua daukate, eta horregatik interesgarria da pertsonen biodibertsitatearen eta ingurune naturalen balioen gaineko kontzientzia izatea eta beraien kontserbazioan jarraitu beharreko pausuen berri izatea.</p> <p>Ekintza honen helburua, herritarrek eta kanpotik datozen pertsonak ingurune lur naturalaren zaintzan eta kontserbazioan partaide egitea da, horretarako beharrezko informazioa beraiei emanez. Lanketa sektore guztietan (industria, nekazaritza, abeltzaintza, ikastetxe) eta adin guztietan egin beharko litzateke.</p> <p>Hau burutu ahal izateko, lehenik eta behin Pasaiaik daukan lur natural esanguratsuen identifikatuko dira (adibidez pertsonengatik oso erabiliak diren Talaia eta Donejakue bidea edo Jaizkibel eta Uliako geologia), eta ondoren herritarrei balio hauen berri, hauek zaintzeko aholkuak eta bertan Udalak egiten dituen lanen berri emango zaie bide desberdinak erabiliz eta Pasaiaiko eragile desberdinekin elkarlanean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Guneetara bisitak antolatuz</li> <li>-Udaleko web orriaren bidez</li> <li>-Informazio orriak, triptikoak...banatuz</li> <li>-Guneetan panel informatiboak jarritz.</li> <li>-...</li> </ul> <p>OHARRA: aurrekontua, triptikoak, maketazioak etab. egin ahal izateko da.</p>			
<b>Epea</b>	Luzea (>2024)	<b>Lehentasuna</b>	Baxua
<b>Kostua</b>	0-3.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Ingurumena	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Gaia</b>	02. BIOANIZTASUNA ETA INGURUMEN NATURALA	Aalborg konpromisoa	3. NATUR ONDASUN KOMUNAK
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		15- LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA	

<b>2.3.8</b>	<b>Itsasoak eta bertako biodibertsitateak udalerrian duen garrantzia balioan jarri eta berau zaintzeko jardunbide egokiak zabaldu Pasaiaiko eragileekin batera</b>		
<b>PROGRAMA</b>	2.3 Lehorreko eta itsasoko biziaren babestua, kontserbatu eta ezagutzera eman biodibertsitatearen galera ekidinez		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Aurreko ekintzarekin guztiz lotuta dago eta honen helburua ere herritarrak eta kanpotik datozen pertsonak ingurune naturalaren zaintzan eta kontserbazioan partaide egitea da, baina kasu honetan itsasoarekin lotutako natura eta biodibertsitatea zaintzea eta kontserbatzea delarik helburu. Kasu honetan ere, Pasaia daukan itsaso edo itsaso bazterreko balio natural esanguratsuak identifikatuko dira (adibidez Alabortza hondartza) eta ondoren herritarrei balio hauen berri, hauek zaintzeko aholkuak eta bertan Udalak egiten dituen lanen berri emango zaie bide desberdinak erabiliz eta Pasaia eragile desberdinekin elkarlanean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Guneetara bisitak antolatuz</li> <li>-Udaleko web orriaren bidez</li> <li>-Informazio orriak, triptikoak...banatuz</li> <li>-Guneetan panel informatiboak jarri.</li> <li>-...</li> </ul> <p>Horrez gain, Udala gainerako udal eta erakundeekin jarriko da harremanetan itsas-bazterra eta itsasoa elementu babestu izendatzeko aukerak aztertzeko.</p> <p><b>OHARRA:</b> aurrekontua, triptikoak, maketazioak etab. egin ahal izateko da.</p>			
<b>Epea</b>	Luzea (>2024)	<b>Lehentasuna</b>	Baxua
<b>Kostua</b>	0-3.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Ingurumena	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Gaia</b>	05. URA	Aalborg konpromisoa	3. NATUR ONDASUN KOMUNAK
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		14- ITSASPEKO BIZITZA	



**3. ILDO ESTRATEGIKOA:**  
**INGURU OSASUNTSUA BERMATU, PERTSONEN BIZIMODU**  
**OSASUNGARRIA BERMATUZ**



<b>3.1.1</b>	<b>Atmosferaren kutsadura eragiten duten fokuen inbentario egin eta eguneratua mantendu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	3.1 Airearen kalitatea hobeto ezagutu sor lezakeen ingurumen-inpaktu murrizteko helburuarekin		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ekintzaren helburua Pasaian airearen kalitatean eragin dezaketen fokuen inbentarioa egitea da. Kontutan izan beharko dira jarduera ekonomikoetatik zein beste jarduera batzuetatik (obrak, trafikoa, itsasontziak, etab.) eratorritako foku puntualak, baina baita foku lausoak ere. Inbentariatutako fokuen karakterizazioa eginen da ondoren: isurtzen diren kutsatzaileak identifikatu, non kokatuta dauden, inpaktu altua edo baxua izan dezaketen, eskumena norren gain dagoen... Informazio guzti hau eguneratua mantentzea komenigarria da. Behin informazio guztia izandakoan, lehenetasunak ezarriko dira udalaren eskumenak kontutan izanik, eta lehenetasunen arabera hartuko dira neurriak.</p>			
<b>Epea</b>	<b>Ertaina (2021-2023)</b>	<b>Lehenetasuna</b>	<b>Ertaina</b>
<b>Kostua</b>	3.000-15.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	<b>Ingurumena</b>	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Gaia</b>	<b>10. OSASUNA</b>	<b>Aalborg konpromisoa</b>	<b>7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA</b>
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		<b>11- HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK</b>	

<b>3.1.2</b>	<b>Udalerriko aire kalitateari buruzko informazio hobea izateko tresnak jarri</b>		
<b>PROGRAMA</b>	3.1 Airearen kalitatea hobeto ezagutu sor lezakeen ingurumen-inpaktu murrizteko helburuarekin		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Egun Lezoko estazio finkoa da inguruan dagoen airearen kalitatea kontrolatzeko estazio bakarra eta PM10 baino ez du neurtzen. Ekintza honen bidez aire kalitateari buruzko informazio hori hobetzea da, eta ahal den neurrian informazio zehatzagoa lortzea. Horretarako ondorengo egitea aztertutik da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Portuan aire kalitatea neurtzea aztertuko da, horretarako Eusko Jaurlaritzaren estazioak erabiliz, udalak gailu portatilak erosteko aukera aztertuz edo kanpo enpresa baten bidez egitea aztertuz</li> <li>- Lezoko estazio finkoan kutsatzaile gehiago neurtzeko proposamena egin Eusko Jaurlaritzara.</li> <li>- Udalerriko aire kalitatea neurtzeko estazio mugikor bat izateko eskaera luzatu Eusko Jaurlaritzari. Estazio hau denboraldi batez egonen zen udalerrian kokatuta, udalak erabakitzen duen tokian.</li> <li>- Udalerrian modu ekonomiko eta erraz batean neurketa jakin batzuk egiteko gailu portatilak erosi daitezke. Neurketa horiek udalerriko beste zein puntutan neurtu behar diren aztertuko da eta neurgailu hauen erabilera egiteko protokolo bat zehaztuko da: nork egin neurketak, non, zein parametro neurtu...</li> <li>- Airearen kalitatearen datuak udaleko web orrian argitaratuko dira herritarren eskura egon daitezen.</li> </ul> <p>Datu guzti hauek aztertu egingen dira, eta beharrezko neurriak hartu.</p> <p><b>OHARRA:</b> Aurrekontu txikia jartzen da (kontratu txikia) aurreikusten delako interesgarriena portuan kanpo enpresa baten bitartez neurketak egitea dela, gailu portatilak erostea aztertuko da baina alde aurretik ez da aurreikusten aukera aipatzen izatea.</p>			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Altua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	
Gaia	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		11- HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	

<b>3.1.3</b>	<b>Pasaiaiko Badia Eraberritzeko Planarekin erlazionatutako lanetan sor daitezkeen isurien gaineko kontrola areagotu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	3.1 Airearen kalitatea hobeto ezagutu sor lezakeen ingurumen-inpaktu murrizteko helburuarekin		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Airearen kalitatean eragin dezaketen jarduerak ez dira soilik eguneroko edo ohiko jarduerak. Izan ere, ez-ohiko jarduerak ere aire kalitatean eragin dezakete, kasurako, obrak. Ekintza honen helburua Pasaiaiko Portuko Plan Bereziak aurreikusten dituen obretan sor daitezkeen isuriak kontrolatzea da, isuriak murriztu eta aire kalitate egokia bermatzeko. Horretarako, Udalak emango dituen obra lizentzietan isuriak murrizteko baldintzak jarriko dira, kasurako: lan-esparruan trafikoa modu egokian seinaleztatzea, ibilgailuen abiadura mugatzea, kamioien kaxa estaltzea, hautsa sor dezaketen materialak estaltzea, beharrezkoa balitz tarteka lan-esparrua ureztatzea, periodikoki ikuskapenak egitea, etab.</p>			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Hirigintza
Gaia	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		11- HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	

<b>3.2.1</b>	<b>Zarata ordenantza onartu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	3.2 Soinu kalitate egoki baten alde lan egin pertsonen ongizatea ziurtatzeko		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaiako Udalak dagoeneko badu landua EAeko hots-kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretuari egokitzen zaion zarata ordenantza. Haatik, oraindik ez du abiarazi ordenantza onartzeko prozesua. Hori dela eta, ekintza honen helburua dagoeneko landua dagoen ordenantza behin betiko onartzea da. Horretarako, honako hau egitea aurreikusten da:</p> <p>Zarata ordenantzaren eduki teknikoa birpasatu eta, hala badagokio, aldaketak egin.</p> <p>Zarata ordenantza herritarrei aurkezteko parte-hartze prozesua egin: saio irekiez gain, ostalaritza elkarteko kideekin saio berezi bat egitea aurreikusten da.</p> <p>Parte-hartze prozesuan jasotako ekarpenak aztertu eta, hala badagokio, ordenantzan txertatu.</p> <p>Ordenantza behin betiko onartzeko izapideak gauzatu.</p> <p>OHARRA: Ordenantza idazteko lantalde bat kontratatu zen eta aurrekontua kontratazio horri dagokio (+ pixka bat gehiago parte-hartze prozesuan gastatu daitekeena)</p>			
<b>Epea</b>	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
<b>Kostua</b>	3.000-15.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Ingurumena	Beste arduradunak	Hirigintza
<b>Gaia</b>	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>	3- OSASUNA ETA ONGIZATEA		

<b>3.2.2</b>	<b>Babes Akustiko Bereziko Eremuak (BABE) izendatzeko neurketak egin, izendatu eta planak garatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	3.2 Soinu kalitate egoki baten alde lan egin pertsonen ongizatea ziurtatzeko		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaiaiko Udalak 2015ean zehar egin zuen zarata mapa eta 2016an onartu zuen behin betiko. Egindako zarata maparen arabera, udalerriko bi eremutan gairatzen dira 213/2012 Dekretuak ezartzen dituen kalitate-akustikoko helburuak: Euskadi etorbidean (Esnabide eta Markina Ingeniaria kaleak barne) eta Nafarroa etorbidea. Haatik, zarata mapa modelo matematikoak erabiliz egiten da (213/2012 Dekretuak ezarritako prozedurari jarraiki) eta, hortaz, bi eremuotako balio-akustikoak kalkulatuak dira. Hori dela eta, Euskadi etorbidean eta Nafarroa etorbidean neurketak egitea aurreikusten da, bertako biztanleek jasaten duten zarata-maila erreala zein den jakiteko eta, horren arabera, 213/2012 Dekretuak ezartzen dituen kalitate-akustikoko helburuak betetzeko neurri zuzentzaileak zeintzuk diren zehazteko.</p> <p>Behin hori eginda eta, beharrezkoa balitz, aipatutako eremuak BABE izendatu eta dagozkion planak garatuko litzateke, neurketen emaitzak eta zehaztutako neurri zuzentzaileak baliatuz.</p>			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Hirigintza
Gaia	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)	3- OSASUNA ETA ONGIZATEA		

3.2.3		Zarata kutsaduraren murrizketa egin	
<b>PROGRAMA</b>	3.2 Soinu kalitate egoki baten alde lan egin pertsonen ongizatea ziurtatzeko		
<b>Deskribapena:</b> Nahiz eta Zarata mapak kalitate-akustikoko helburuak gainditzen dituzten bi eremu identifikatu, garrantzitsua da gainerako eremuan zarata kutsadura murriztea, pasaitarren bizi-kalitatea hobetze aldera. Helburu hori lortzeko, honako ekintza hauek gauzatuko dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Udaleko zarata planaren edukia Mugikortasun planean txertatu, trafikoari loturiko zarata murrizteko.</li> <li>- Udalaren eskumenekoak ez diren gainerako azpiegiturak sortutako zarata murrizteko beste administrazioekin elkarlanean aritu: errepideen zarata planean, trenbideen zarata planean (ADIF eta ETS-k sustatutakoak)</li> <li>- Pasaiaiko Portuak eta beste jarduera batzuek sor dezaketen zarata murrizteko, zarata-ikerketak egitea zarata-iturri berriak identifikatzerakoan eta jarduera industrial berriek aplikagarri zaien legedia betetzen dutela egiaztatu.</li> </ul> OHARRA: aurrekontu txikia jartzen da zarata neurketak egitea aurreikusten delako (foku berriak daudenean).			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	
Gaia	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		3- OSASUNA ETA ONGIZATEA	

3.2.4		Zonalde lasaiak babestu udalerrian	
<b>PROGRAMA</b>	3.2 Soinu kalitate egoki baten alde lan egin pertsonen ongizatea ziurtatzeko		
<b>Deskribapena:</b> Zaratari buruzko 37/2003 Legeak hiri-lurzoruan dauden zonalde lasaiak honela definitzen ditu: egunez gehienez 60 dBA eta gauzez gehienez 50 dBA jasaten dituztenak. Legearen arabera, zonalde hauetan zarata-mailak ez handitzea gainerako eremuetan zarata murriztea bezain garrantzitsua da. Hori dela eta, ekintza honen helburua zonalde lasaiak babestea da, bertako zarata-mailak ez daitezen handitu. Horretarako, besteak beste, eremu hauetako trafikoa kontrolatuko da, hori baita zarata-iturririk handiena.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Hirigintza
Gaia	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		3- OSASUNA ETA ONGIZATEA	

<b>3.2.5</b>	<b>Zarataren aurreko prebentzio-ekintzak aurrera eraman</b>		
<b>PROGRAMA</b>	3.2 Soinu kalitate egoki baten alde lan egin pertsonen ongizatea ziurtatzeko		
<b>Deskribapena:</b>			
Zarata murrizteko modurik eraginkorra zarata prebenitzea da. Hori egin ahal izateko, honako ekintza hauek aurreikusten dira:			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Etxebizitza edo urbanizazio berriak egiterakoan (etorkizuneko garapenak) promotoreek aurkeztu beharreko zarata-ikerketaren edukia zehaztu. Etorkizuneko garapenak azpiegituraren baten zortasun akustikoaren eremuan baleude, zarata-ikerketak horren trafikoa eduki beharko lituzke kontuan eta ikerketa azpiegituraren kudeatzaileari bidali beharko litzaioke. Trenbideetatik 75 m-ra dauden garapenek dardaren ikerketa ere eduki beharko du.</li> <li>- Zaratari buruzko informazioa aztertu eta fokuen kudeatzaileei bidali (hala badagokio).</li> <li>- Zarata-ikerketetan zehaztutako neurri zuzentzaileen jarraipenerako protokoloa zehaztu.</li> <li>- Eraikin berrien promotoreei ENAC erakundeak eginiko zarata-neurketen txostena eskatu.</li> <li>- Espazio publikoen zarata-pertzepzioa aztertu eta espazio publiko berrien diseinuan zarata kontuan hartu.</li> </ul>			
<b>Epea</b>	Ertaina (2021-2023)	<b>Lehentasuna</b>	Baxua
<b>Kostua</b>	0.0 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Ingurumena	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Gaia</b>	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		3- OSASUNA ETA ONGIZATEA	

3.2.6		Zarata maparekin lotuta ez dauden ekintzak aurrera eraman	
<b>PROGRAMA</b>	3.2 Soinu kalitate egoki baten alde lan egin pertsonen ongizatea ziurtatzeko		
<b>Deskribapena:</b>			
Zarata mapan kontuan hartzen diren fokuez gain, badaude herritarrei kalte gehiago sortzen dizkieten gainerako zarata-iturriak, hala nola: ostalaritza-jarduerak, terrazak, bide publikoan egiten diren kontzertuak, etab. Ekintza honen helburu nagusia zarata-iturri horiek identifikatu eta murriztea. Horretarako, honako hau egingo da:			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zarata mapan ez dauden zarata-iturriak identifikatu.</li> <li>- Jardueren ordutegiak kontrolatzea.</li> <li>- Jarduera-lizentzietan eta aurretiazko komunikazioetan 213/2012 Dekretuak xedatutakoa betearaztea.</li> <li>- Udalak antolatutako kontzertu, jai, kultur-jardunaldi, kirol proba, etab-etan neurri zuzentzaileak ezarri.</li> <li>- Udal zerbitzuekin loturiko fokuak ebaluatu.</li> <li>- Baldintza-orrietan zarata murrizteko baldintzak sartu (udal ibilgailuak eta makineria erosteko, adibidez).</li> </ul>			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	
Gaia	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		3- OSASUNA ETA ONGIZATEA	

3.2.7		Informazio akustikoari buruzko informazioa zabaldu eta kontzientziazio eta heziketa kanpainak egin	
<b>PROGRAMA</b>	3.2 Soinu kalitate egoki baten alde lan egin pertsonen ongizatea ziurtatzeko		
<b>Deskribapena:</b>			
Udalerriko zarata murrizteko ekintzak osatzeko ezinbestekoa da udal teknikariak eta herritarrak kontzientziatu eta sentsibilizatzea. Ekintza honen helburua udal teknikariak eta herritarrak zarataren inguruan trebatzeaz gain, Udalak duen informazioa eskuragarri jartzea da. Horretarako, aldiro-aldiro web orrian argitaratuko da informazioa, eta udal teknikari zein herritarrentzat sentsibilizazio eta trebatze kanpainak antolatuko dira.			
OHARRA: Aurrekontu txikia jarri da, euskarriak inprimatu, eta informazioaren zabalkundea egiteko.			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	
Gaia	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		3- OSASUNA ETA ONGIZATEA	

3.3.1		Pasaiaiko Larrialdi Plana ezarri eta mantendu	
PROGRAMA	3.3 Arrisku eta jardure ekonomikoek sor ditzaketen ingurumen-inpaktuen kudeaketa aktiboa egin		
<p>Deskribapena:</p> <p>Pasaiaiko Udalak 2015ean Larrialdi Plana eguneratu zuen eta orduz geroztik, plan hau da indarrean dagoena. Ekintza honen bidez plan honen ezarpena gauzatu nahi da, Portuko Autobabes Planarekin koordinatuz. Horretarako ondorengoa egin daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Plana udaletxe barnean zein herrian hedatuko da, hau da, udaletxe barneko langileei zein herritarrei planaren inguruko informazioa zabalduko zaie eta sentsibilizazioa egingen da.</li> <li>- Baliabideen aldizkako egiaztapena egingen da</li> <li>- Etengabeko prestakuntza emango da</li> <li>- Simulakroak egingen dira</li> <li>- Plana errebisatu eta eguneratu egingen da dagokionean</li> <li>- Portuko Autobabes Planarekin koordinatzeko lanak indartu</li> </ul>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Udaltzaingoa	Beste arduradunak	
Gaia	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		11- HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	

<b>3.3.2</b>	<b>Pasaiaiko Larrialdi Planak ematen dituen gomendioak jarraitu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	3.3 Arrisku eta jardueren ekonomikoek sor ditzaketen ingurumen-inpaktuen kudeaketa aktiboa egin		
<b>Deskribapena:</b>			
Ekintzaren helburua 2015ean onartutako Pasaiaiko Larrialdi Planean ematen diren gomendioak jarraitzea da, besteak beste:			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Itsasertzeko fenomeno edota meteorologia-fenomeno larrien abisu sistemak jarri</li> <li>- Herritarrentzat prebentzio-abisu neurriak jarri</li> <li>- Babes taldeei baliabide gehiago eman</li> <li>- Aparkalekuak zaindu kanpo zerbitzuen lanak errazteko</li> <li>- Donibaneko topaguneak seinaleztatu. Alarma akustikoak jarri Portuan larrialdiaren bat gertatzen bada.</li> </ul>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Udaltzaingoa	Beste arduradunak	Udaltzainburua
Gaia	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		11- HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	

<b>3.3.3</b>	<b>Larrialdi Plana garatzeko suhiltzaileekin harremana eta koordinazioa mantendu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	3.3 Arrisku eta jardueren ekonomikoek sor ditzaketen ingurumen-inpaktuen kudeaketa aktiboa egin		
<b>Deskribapena:</b>			
Pasaiaiko Udalak GFArekin batera Pasai Donibaneko suteen aurreko jardueren Protokoloa definituta dauka. Ekintza honen helburua, suhiltzaileekin harremana eta koordinazioa mantentzea da, batez ere, Donibanen gertatzen diren suteen aurrean, bertan baitago arriskurik handiena.			
Horrez gain, eta sutea gertatzekotan arriskua txikitzeko helburuz, Donibaneko saneamendu sarea hobetzeko lanak egitean, suteen aurreko hobekuntzak ere sartu daitezke lan horietan.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Udaltzaingoa	Beste arduradunak	Udaltzainburua
Gaia	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		11- HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	

<b>3.3.4</b>	<b>Udaleko jarduera eta establezimenduetako Autobabes Planak bukatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	3.3 Arrisku eta jardueren ekonomikoek sor ditzaketan ingurumen-inpaktuen kudeaketa aktiboa egin		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaiaiko Udala bere establezimendu eta jardueretan Autobabes Planak garatzen ari da, hala nola, Ciriza Etxean, San Pedroko garajeetan, Antxoko Merkatuan, Trintxerpeko kiroldegian, Donibaneko Arraun Elkartean... Ekintzaren helburua, beraz, abian dauzkan Autobabes Plan hauek amaitzea da, baita horiez gain, beharrezkoak diren Autobabes Planak egitea. Behin Autobabes Planak eginda, beharrezkoa den kasuetan, Autobabes Plan hauek Euskadiko Planen Erregistro Orokorrean homologatu edota erregistratu egin beharko dira. Ekintza hau aurrera eramateko eraikin bakoitzeko arduradunarekin koordinazioa eta elkarlana behar da.</p> <p>Horrez gain, Plan hauek gauzatu eta eguneratuta mantenduko dira.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Udaltzaingoa	Beste arduradunak	
Gaia	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		11- HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	

<b>3.3.5</b>	<b>Udalerriko jarduera zaharren jarduera-lizentzia izapideen egoera errebisatu eta behar diren kasuetan izapidea sustatu behar bezalakoa izan arte</b>		
<b>PROGRAMA</b>	3.3 Arrisku eta jardueren ekonomikoek sor ditzaketan ingurumen-inpaktuen kudeaketa aktiboa egin		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Asko dira Udalan jarduera-lizentzia eskuratzeko prozedura abiarazi zuten jarduerak, zegokion espedientea abiaraziz. Baina kasu askotan prozedura ez zen bukatu eta horretarako oraindik izapideren bat falta dutenak. Horrez gain, badaude behin betiko jarduera-lizentzia eskuratu zuten jarduerak, baina egungo legediari egokitu behar zaienak. Ekintza honen helburu nagusia jarduera guzti horien lizentziaren egoera aztertu eta behin betiko lizentzia lortu edota jarduera eguneratu dezaten beharrezkoak diren pausuak ematea da.</p>			
Epea	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Hirigintza
Gaia	09. UDALARENK EZ DIREN ERAKUNDEEN INGURUMEN KUDEAKETA	Aalborg konpromisoa	8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		9- INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA	

<b>3.3.6</b>	<b>Portuko jarduera zaharren jarduera-lizentzia izapideen egoera errebisatu eta behar diren kasuetan izapidea sustatu behar bezalakoak izan arte</b>		
<b>PROGRAMA</b>	3.3 Arrisku eta jardure ekonomikoek sor ditzaketan ingurumen-inpaktuen kudeaketa aktiboa egin		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Nahiz eta Portuko eremuan jarduera asko kokatzen diren, gutxi dira Udalean jarduera-lizentzia eskuratzeko izapidea abiarazi dutenak, auzia epaitegietan baitzegoen. Ebatzi ondoren, Portuko Mahai Instituzionalaren baitan erabaki zen jarduera guztiak legeztatze prozesua abiaraztea. Horretarako, honako pausu hauek eman beharko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Portuan egiten diren jarduera guztiak (eta kokapena) identifikatu.</li> <li>- Udal artxiboan jarduera bakoitzaren lizentziaren egoera zein den aztertu.</li> <li>- Prozesua bukatu gabe edo abiarazi gabe duten jardueri epe zehatza ematea jarduera legeztatze.</li> <li>- Eskudun gainerako administrazioekin batera neurri zuzentzaileak eta horien kontrola egiteko protokoloa zehaztu.</li> <li>- Jardueren ikuskapena egin.</li> </ul>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehetasuna	Altua
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Hirigintza
Gaia	09. UDALARENK EZ DIREN ERAKUNDEEN INGURUMEN KUDEAKETA	Aalborg konpromisoa	8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		9- INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA	

<b>3.3.7</b>	<b>Udal jardueren edo establezimenduen jarduera-lizentzia edo jardueraren aurre komunikazioa egin</b>		
<b>PROGRAMA</b>	3.3 Arrisku eta jardueren ekonomikoek sor ditzaketen ingurumen-inpaktuen kudeaketa aktiboa egin		
<b>Deskribapena:</b>			
Egun Pasaiaiko Udalak sustatzen dituen jarduerak edo bere jabetzako lokaletan egiten direnak, beste edozein jarduera bezala, legeztatu egiten dira (adibidez: Alabartzako kantina, Antxoko frontoiko kantina, San Pedroko jubilatuen etxea, etab.). Haatik, jarduera gehienak legeztatu gabe daude. Ekintza honen helburua, jarduerok legeztatzea da eta horretarako, honako hau egin beharko litzateke:			
Pasaiaiko Udalak sustatzen dituen edo bere jabetzako lokaletan egiten diren jarduerak identifikatu,			
Udal artxiboan dagoen informazioaren arabera, jarduera bakoitzaren egoera aztertu.			
Legeztatu gabe dauden jarduerak legeztatzeko prozesua abiarazi. Kasu batzuetan beharrezkoa izango da lokalak egokitzeko lanak egitea.			
OHARRA: Normalean proiektuak idazteko lantaldea kontratatu egiten da. Jarduera asko dira eta beraz, proiektu asko, eta lokalak egokitzeko lan asko egin beharko da.			
Epea	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	>80.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Hirigintza
Gaia	18. UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN KUDEAKETA	Aalborg konpromisoa	2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL-KUDEAKETA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	



#### **4. ILDO ESTRATEGIKOA:**

**BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA EKOIZPEN ETA KONTSUMO  
MODALITATE JASANGARRIAK SUSTATU**



<b>4.1.1</b>	<b>Udal eraikinen eta instalazioen ur kontsumoak neurtu eta kontrolatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.1 Baliabide hidrikoen erabilera erangikorra handitu eta ur-hornikuntzaren jasangarritasuna lortu, edateko uraren kalitatea kontutan izanik		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ekintzaren helburua udal eraikinen (udaletxea, kiroldegia...) eta beste udal instalazioen (ureztatzea egiteko hargunea, garbiketarakoa...) ur kontsumoak neurtu eta kontrolatzea da, horrela kontsumo hauek ezagutu, egokiak diren edo ez baloratu eta eraginkorrakoak izan daitezzen neurriak hartu ahalko dira, beharrezkoa izatekotan.</p> <p>Horretarako, lehenik eraikin eta instalazioetan jarrita dauden kontagailuen egokitasuna eta beraien funtzionamendu egokia berrikusiko da. Ondoren, kontsumoak aztertu beharko dira uraren kontsumoa eraginkorragoa izateko neurriak hartzea baloratuz. Kontrol honek, udal establezimendu eta instalazioetan erabiltzen den baina kontabilizatu gabeko uraren kontsumoa murriztea ekarriko du.</p>			
<b>Epea</b>	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
<b>Kostua</b>	3.000-15.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Zerbitzuak	Beste arduradunak	
<b>Gaia</b>	05. URA	Aalborg konpromisoa	3. NATUR ONDASUN KOMUNAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		6- UR GARBIA ETA SANEAMENDUA	

<b>4.1.2</b>	<b>Ur-hornikuntzako sarean egon daitezkeen ur-ihesak detektatzeko eta zuzentzeko protokoloa egin eta ur kontsumoen jarraipen eta kontrola sistematizatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.1 Baliabide hidrikoen erabilera erangikorra handitu eta ur-hornikuntzaren jasangarritasuna lortu, edateko uraren kalitatea kontutan izanik		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaian kontabilizatu gabeko ur kantitatea desberdina da barrutiaren arabera: Donibaneko eremu sakabanatua da kontabilizatu gabeko uren portzentaje altuena erakusten duena, %32, ondoren San Pedro eta Trintxerpeko sistemak, %22ko portzentajearekin, Donibanekoa %19arekin eta azkenik Antxoko sistema, %5arekin.</p> <p>Ekintza honen bidez ur deposituen eta hornikuntza sarean egon daitezkeen ihesak landu nahi dira. Horretarako ondorengo egingen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ihes puntuak detektatzeko programa intentsibo bat egin</li> <li>- Ihes hauen zergatiak aztertu eta definitu</li> <li>- Ihesak zuzentzeko Plan bat diseinatu</li> <li>- Uraren banaketa sarea berritzen jarraitu</li> <li>- Ur-hornidura sarearen modelizazio matematikoa egitea aztertuko da, besteak beste, ihesak detektatu eta zuzentzeko.</li> </ul> <p>Horrez gain, beste helburuetako bat, kontsumoen karakterizazioaren eta ebaluazioaren inguruko informazioaren kudeaketa hobetzea da, lan tresna tekniko eta kudeatzaile egokiak eskuratuz. Lan tresna hauek faktoretatik abiatuz uraren kontsumoen karakterizazio eta jarraipena egitea ahalbidetuko dute eta kontratu garrantzitsuen jarraipena eta bertako kontsumoen erregistrotik identifikatutako intzidentzia edo desbideratzeak identifikatzea ere ahalbidetuko dute.</p> <p>Informazio guzti honen kudeaketak ondorengo ezagutzea suposatuko du, beste gauza batzuen artean: ur kontsumoa karakterizatzea (uraren erabileraren arabera zenbatekoa, fakturazioaren portaeraren eta eskariaren egituraren azterketa...), kontsumoaren bilakaera ezagutzea eta honetan eragiten duten intzidentzien faktoreak zeintzuk diren jakitea, eta abar.</p> <p>Ur-hornidura sarearen modelizazioa ihesak detektatzeaz gain, sarearen kudeaketa egokia ahalbidetzen du, besteak beste, kontsumoen karakterizazioa egiten du, sarearen osagaiak eta datu tekniko eta hidraulikoak kontrolatzeaz gain. Horiez gain, modelizazioak ur-hornidura sareak duen portaera aztertzen du, sarean egin daitezkeen aldaketan (hobekuntzak) edota istripuen (kutsatzaileak) aurrean. Hori dela eta, ekintza honen beste helburuetako bat ur-hornidura sarearen modelizazio matematikoa egitearen bideragarritasuna aztertzea da.</p>			
<b>Epea</b>	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
<b>Kostua</b>	>80.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Zerbitzuak	Beste arduradunak	
<b>Gaia</b>	05. URA	Aalborg konpromisoa	3. NATUR ONDASUN KOMUNAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		6- UR GARBIA ETA SANEAMENDUA	

<b>4.1.3</b>	<b>Ur horniduraren kalitatearen egoera aztertu eta komunikatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.1 Baliabide hidrikoen erabilera erangikorra handitu eta ur-hornikuntzaren jasagarritasuna lortu, edateko uraren kalitatea kontutan izanik		
Deskribapena:			
<p>Pasaiaiko Udalak, Añarbeko Uren bitartez, ur-horniduraren kalitatearen egoera aztertu egiten du aldiro. Alabaina, datuok ez ditu herritarrekin konpartitzen. Ekintza honen helburua egiten diren azterketen datuak bildu eta web orrian eskuragarri jartzea da, egiten diren bakoitzeko.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Zerbitzuak
Gaia	05. URA	Aalborg konpromisoa	3. NATUR ONDASUN KOMUNAK
Garapen Jasagarriaren Helburuak (GJH)		6- UR GARBIA ETA SANEAMENDUA	

<b>4.1.4</b>	<b>Ur-hornidura sarean dauden amiantozko hodiak kentzeko plangintza egin</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.1 Baliabide hidrikoen erabilera erangikorra handitu eta ur-hornikuntzaren jasagarritasuna lortu, edateko uraren kalitatea kontutan izanik		
Deskribapena:			
<p>Ekintzaren helburua, ur-hornikuntzaren aldaketa egiten den heinean amiantozko hodiak ordezkatzeko joatea da plangintza baten bidez. Lehenengo eta behin inbentarioa eguneratu egin behar da eta gero sarearen azterketa egin lehentasunak jartzeko (adibidez, aurrekusten diren urbanizazio lanak kontuan izanik). Horrela, sarea atalka banatuko da, atal bakoitzean dauden amiantozko hodiak kendu edo ez-erabilgarri uztea komeni den erabakiz. Horren arabera, aurrekontua (ahalik eta zehatzen) eta epea jarriko dira.</p> <p>Arriskuen prebentziorako protokoloa ezarri behar da ekintza hau burutzeko: zein eremutan kendu daitezkeen, nora eraman behar den kudeatzeko, kentzeko prozesua nolakoa izango den...</p> <p>OHARRA: Aurrekontua jarri diot (kontratu txikia) pentsatuz beharbada lantalde bat kontratatatu behar dela lan hori egiteko. Plana idazteko alegia.</p>			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Zerbitzuak	Beste arduradunak	
Gaia	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
Garapen Jasagarriaren Helburuak (GJH)		11- HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	

<b>4.2.1</b>	<b>Donibaneko ur zikinen jasotzea bukatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.2 Pertsona guztientzako ur-saneamendua bermatu eta uraren kalitatea hobetu isuriak kontrolatuz eta ekidinez		
<b>Deskribapena:</b>			
Ur Agentziak, Añarbeko Urak eta Pasaiaiko Udalaren laguntzaz, Donibane kaleko saneamendu proiektua idatzi berri du. Ekintza honen helburua, proiektuan jasotako lanak gauzatzea da, hots, saneamendu sarea egin eta gainerako azpiegiturak eraberritzea (ur-hornidura, gasa, telekomunikazioak, argindarra). Horretarako, lehenengo eta behin, lanok gauzatzeko finantziazio-iturriak zehaztu eta dagozkion hitzarmenak sinatu beharko dira eta, ondoren, lanak egin. Proiektuaren arabera, lanak 3 fasetan egingo dira, udako denboraldia saihestuz, turismoa eta Donibane kaleko biztanleak ahalik eta gutxien kaltetzeko.			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Altua
Kostua	>80.000 €		
Arduradun nagusia	Hirigintza	Beste arduradunak	Zerbitzuak
Gaia	05. URA	Aalborg konpromisoa	3. NATUR ONDASUN KOMUNAK
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		6- UR GARBIA ETA SANEAMENDUA	

<b>4.2.2</b>	<b>Ur saneamendu sistemara lotu gabeko isuri puntuak kontrolatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.2 Pertsona guztientzako ur-saneamendua bermatu eta uraren kalitatea hobetu isuriak kontrolatuz eta ekidinez		
<b>Deskribapena:</b>			
Ekintzaren bidez, azaleko uretara (errekak edo badiako uretara) doazen isuriak gutxitu edota kontrolatu nahi dira. Horretarako udalerriko eremuan saneamendu sarera lotu gabeko isuri puntuak identifikatuko dira lehenik, eta ondoren hauek sarera lotzearen bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa aztertuko da. Horrez gain, konektatu gabeko isuri puntu hauen aldizkako kontrola egingen da.			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Zerbitzuak
Gaia	05. URA	Aalborg konpromisoa	3. NATUR ONDASUN KOMUNAK
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		6- UR GARBIA ETA SANEAMENDUA	

4.2.3		Arazketa-sistema autonomoak inbentariatu eta kontrolatu	
<b>PROGRAMA</b>	4.2 Pertsona guztientzako ur-saneamendua bermatu eta uraren kalitatea hobetu isuriak kontrolatuz eta ekidinez		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Hiriguneetako ur zikinez gain, sakabanatutako guneeetan sortzen diren urak ere ingurumen-inpaktua sor dezakete. Sakabanatutako guneeetako etxebizitza eta gainerako eraikinek arazketa-sistema autonomoak izan ohi dituzte baina, orokorrean, sortzen dituzten isurketak ez dute isurketa-baimenik. Ekintza honen helburua da arazketa-sistema autonomoak eta sortzen dituzten isurketak kontrolatzea. Horretarako, lehenengo eta behin, arazketa-sistemen inbentarioa egingo da, eta Ur Agentziarekin elkarlanean horien egoera administratiboa aztertuko da, hau da, isurketa-baimena duten ala ez aztertuko da. Isurketa-baimenik ez daukaten etxebizitza edo jardueri hori izapidetzeko eskatuko zaie eta, hala badagokio, arazketa-sistemak aldatu edo eguneratzeko edota dagozkion mantentze-lanak egiteko.</p> <p><b>OHARRA:</b> aurrekontua jartzen da, inbentarioa bera egiteko beharbada lantalde bat kontratatu beharko delako eta zenbait arazketa-sistema udalaren eraikinetan daudelako (aldatu edo zerbait egin behar bada ordaindu beharko dugu).</p>			
Epea	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Zerbitzuak
Gaia	05. URA	Aalborg konpromisoa	3. NATUR ONDASUN KOMUNAK
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		6- UR GARBIA ETA SANEAMENDUA	

4.2.4		Badiako uraren kalitatea zaindu, kontrola egin eta herritarrei horren berri eman	
<b>PROGRAMA</b>	4.2 Pertsona guztientzako ur-saneamendua bermatu eta uraren kalitatea hobetu isuriak kontrolatuz eta ekidinez		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Donibane eta San Pedroko biztanleek eta umeek, batez ere, Badian bainatzeko ohitura daukate aspalditik, nahiz eta Badiako urak ez diren bainurako-ur izendatu. Hori dela eta, Osasun Sailak ez du aldiro-aldiro uron kalitatearen kontrola egiten. Ekintza honen helburua Badiako uren aldizkako kontrola egitea da, bainu-garaian, bermatzeko uraren kalitateak legediak bainurako urentzat ezarritako parametroak betetzen dituela. Horretarako, Pasaiaiko Udalak Osasun Sailari eskatuko dio Badiako uren kontrola egitea, horretarako beharrezko baldintzak betez (bainurako eremua mugatu adibidez) eta, beharrezkoa balitz, kontrol horiek Udalak berak egindakoekin osatuko ditu. Hondartzetan eta gainerako bainurako uretan egiten den bezala, legediak ezarritako parametroak gaindituz gero, biztanleria informatzeko protokoloa garatuko da.</p>			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Zerbitzuak
Gaia	05. URA	Aalborg konpromisoa	3. NATUR ONDASUN KOMUNAK
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		14- ITSASPEKO BIZITZA	

<b>4.2.5</b>	<b>Fangoak eta itsas hondoaren kalitatea aztertzea ea bideragarri den analizatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.2 Pertsona guztientzako ur-saneamendua bermatu eta uraren kalitatea hobetu isuriak kontrolatuz eta ekidinez		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaiako Badiaren inguruan mendeetan zehar egin den Portuaren jarduerak eta bertara isurtzen duten ibaiadarrek, beste zenbait ibai eta itsasadarretan bezala, urak denbora luzez kutsatuta egotea ekarri zuen. Zenbait kutsatzaile itsas-hondoan metatu ahal izan dira, nahiz eta egun Badiako uraren kalitatea ona izan. Kontuan izanik Badiako urak bainurako erabiltzen direla, garrantzikoa da ur-hondoan egon daitezkeen kutsatzaileak identifikatzea eta horiek sor ditzaketen kalteak aztertzea. Beharrezkoa balitz hondoaren garbiketa ere aztertuko da. Ekintza honen helburua, horretarako beharrezkoak diren lehengo pausuak ematea da; hots: Aztik bi urtetik behin egiten dituen azterketen berri izatea udalak eta analisi horien emaitzen berri izatea, EHU bezalako erakundeek honen gaineko ikerketak egin ote dituzten ikustea, eta hala bada emaitzak aztertzea, beharrezkoa bada itsas-hondoan egon daitezkeen kutsatzaileak zeintzuk diren identifikatzea eta horien kontzentrazioa kalkulatu edo neurtu (bideragarritasunaren arabera). Azkenik, hondo garbitzeko beharrezkoak diren ekintzak identifikatuko dira eta horien bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa aztertu.</p>			
<b>Epea</b>	Luzea (>2024)	<b>Lehentasuna</b>	Baxua
<b>Kostua</b>	15.000-35.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Ingurumena	<b>Beste arduradunak</b>	Zerbitzuak
<b>Gaia</b>	05. URA	Aalborg konpromisoa	3. NATUR ONDASUN KOMUNAK
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>	14- ITSASPEKO BIZITZA		

<b>4.3.1</b>	<b>Auzo konpostajea sustatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.3 Hondakinen sorrera murriztu, prebentzio, murrizketa, birziklapen eta berrerabileran oinarrituz		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaiako egungo hondakin-bilketa sistema edukiontzietan egiten da. Frakzio organikoari dagokionez, gaur egun, borondatezkoa da edukiontzi marroiaren erabilera eta horren edukia San Markoko mankomunitatearen bitartez kudeatzen da eta dagokion tasa ordaindu. Tasaren ordainketara bideratutako gastua murriztu eta udalerrian sortutako hondakinak udalerrian bertan kudeatze aldera, auzo-konpostajea sustatuko da organikoaren edukiontzia erabiltzaileen artean. Horretarako, honako hau egingo da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Auzo-konpostajearen esperientzia duten Udalekin harremana sendotu eta haien kudeaketa-sistemari buruzko informazioa jaso: konpost-ontzi motak, puntu bakoitzeko erabiltzaile-kopurua, materia lehorraren hornitzaileak, sortutako konpostaren erabiltzaileak, konpostari egiten zaizkion analisiak, sistemaren abantaila eta desabantailak, gastuak eta aurrezpenak, konpostaguneen kontrolerako protokoloak, konpostaguneen kudeaketa (arduradunak, etab.), erabiltzaileen hobariak, ...</li> <li>- Pasaiako biztanleen artean galdetegia egin auzo-konpostajeak eduki ditzakeen erabiltzaile-kopurua zehazteko.</li> <li>- Erabiltzaile kopurua eta bizilekua zehaztuta, auzo-konpostaje sistema zehaztu eta konpostaguneen kokagunea erabaki.</li> <li>- Konpostaguneak jarri.</li> <li>- Hondakinei buruzko udal ordenantzan auzo-konpostajeari dagokion atala sartu.</li> </ul>			
<b>Epea</b>	<b>Ertaina (2021-2023)</b>	<b>Lehentasuna</b>	<b>Baxua</b>
<b>Kostua</b>	15.000-35.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	<b>Ingurumena</b>	<b>Beste arduradunak</b>	<b>Zerbitzuak</b>
<b>Gaia</b>	07. HONDAKINAK	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	

<b>4.3.2</b>	<b>Ontzi arinen eta plastikozko bilgarrien kontsumoa eta erabilera murrizteko sentsibilizazio jarduerak burutu, udalerriko eragileekin batera</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.3 Hondakinen sorrera murriztu, prebentzio, murrizketa, birziklapen eta berrerabileran oinarrituz		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Hondakinen kudeaketarako hierarkiaren lehenengo pausua hondakinen prebentzioa da. Bestalde, ontzi arinak eta plastikoak dira bolumenean gehien sortzen den hondakin mota, nahiz eta pisuan gutxien sortzen dena izan. Ekintza honen bitartez, ontzi arinen eta plastikoen kontsumoa eta, hortaz, hondakin mota horren sorrera murriztu nahi da, herritarrei zuzendutako sentsibilizazio kanpainen bitartez. Horretarako, lehenengo eta behin lantalde aditu baten laguntzaz egin daitezkeen sentsibilizazio jarduerak aztertuko dira (hitzaldiak, tailerrak, edukiontzietan bertan informazio puntuak, merkatariari zuzendutako ekintzak, etab.) eta horien helburu izango diren herritar-taldeen ezaugarriak kontuan izanik (umeak, gazteak, jubilatuek, emakumeak, etab.) sentsibilizazio kanpaina diseinatu eta gauzatuko dira, honetan lanean dabiltzan Pasaiaiko eragileak kontutan izanik, eta beraiekin elkarlana sustatuz.</p>			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Informatika
Gaia	07. HONDAKINAK	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	

<b>4.3.3</b>	<b>Birziklatze-tasa handitzeko Udalak eman ditzakeen zerbitzuak aztertu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.3 Hondakinen sorrera murriztu, prebentzio, murrizketa, birziklapen eta berrerabileran oinarrituz		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ekintzaren helburua Pasaiaiko birziklatze-tasa handitzea da, azken urteetan beheranzko joera ikusi baita. Horretarako Udalak dauzkan zerbitzuak aztertu egin beharko lirateke, adibidez: edukiontzien kokalekuak egokiak ote diren edo egokitu behar ote diren, gai bakoitzerako edukiontzien dotazioa egokia den, errefusarako edukiontzia ixteak izan ditzakeen onura eta kalteak aztertzea, organikoaren edukiontzia derrigorrezkoa izan dadin aztertzea, beste hondakin mota batzuen gaikako bilketa egitea aztertzea...</p> <p>OHARRA: Usurbil eta Hernanin pardelak birziklatzeko asmoa dago eta horrekin errefusa kopurua nabarmen jeitsiko lirateke. Hemen epe luzean egiteko zerbait litzateke (egitekotan) baina aztertzea ez legoke gaizki.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Zerbitzuak
Gaia	07. HONDAKINAK	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	

<b>4.3.4</b>	<b>Portuko eremuan Portuko Agintaritzarekin eta San Marko Mankomunitatearekin batera birziklagarriak diren hondakinen birziklatzea sustatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.3 Hondakinen sorrera murriztu, prebentzio, murrizketa, birziklapen eta berrerabileran oinarrituz		
<b>Deskribapena:</b>			
Pasaiako Portuak aurrerapausu batzuk eman ditu hondakinen arloan. Hala ere, udalak 1.2.3 ekintzaren bidez lortzen duen informazioa mahai gainean izanik, hau aztertu eginen du eta baita birziklagarriak diren hondakinak birziklatzea sustatu ere, Mankomunitate eta Portuko Agintaritzarekin elkarlanean. Beharrezkoa balitz, hondakinen bilketa sistema berrantolatzea ere aztertuko da.			
Epea	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Zerbitzuak
Gaia	07. HONDAKINAK	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	

<b>4.3.5</b>	<b>Hondakinei buruzko ordenantza eguneratu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.3 Hondakinen sorrera murriztu, prebentzio, murrizketa, birziklapen eta berrerabileran oinarrituz		
<b>Deskribapena:</b>			
Pasaiako Udalak egun duen hondakinei buruzko ordenantza 1996-koa da eta, hortaz, ez du jasotzen egungo hondakin-bilketa sistemaren ezaugarriak. Hortaz, beharrezkoa da hondakinei buruzko ordenantza eguneratzea eta prozesu horretan 4.3.1, 4.3.3 eta 4.3.6 ekintzen baitan hartutako erabakiei buruzko informazioa jasotzea, hala nola: organikoaren edukiontzia erabilpena derrigorrezkoa izango den ala ez, errefusaren edukiontzia itxia izango den ala ez, gaika jasoko diren frakzioak, auzo-konpostajea, hobariak, etab.			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Altua
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Zerbitzuak
Gaia	07. HONDAKINAK	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	

<b>4.3.6</b>	<b>Pasaian dauden hondakinak isurtzeko puntu ez-kontrolatuak identifikatu eta kontrolatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.3 Hondakinen sorrera murriztu, prebentzio, murrizketa, birziklapen eta berrerabileran oinarrituz		
Deskribapena:			
<p>Udalerrian zehar badaude hondakinak isurtzeko ohiko puntu ez-kontrolatuak. 2017An zehar, Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, Erroteta inguruan dagoen errekastoa garbitu du. Horrez gain, errepedeetako arduradunekin ere kontaktuan jarri zan hondakinak isurtzeko punturainoko sarbidea ixteko modu egokia definitzeko. Definitutakoan, hondakinak errekastotik atera eta sarbidea itxiko da. Ekintza honen helburua, Pasaian egon daitezkeen gainerako puntu ez-kontrolatuen inbentarioa egingo da eta bakoitzean egin beharreko ekintzak (hondakinak erretiratu eta modu egokian kudeatu, sarbideak itxi, seinalezatu, zaindu, etab.) definitu eta gauzatu.</p> <p>OHARRAK: Aurrekontu bat jarri zaio, kasu batzuetan gure baliabideekin egin ahal izango da baina beste kasu batzuetan lantalde bat kontratatu, materialak erosi, etab. egin beharko dira.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	15.000-35.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Zerbitzuak
Gaia	07. HONDAKINAK	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	

<b>4.3.7</b>	<b>Eraikuntza eta Eraispenerako Hondakinei buruzko kudeaketa egokia egiaztatzeko irizpideak ezarri eta hondakinen ordenantza berrian hondakinei buruzko betebeharrak kontuan hartu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.3 Hondakinen sorrera murriztu, prebentzio, murrizketa, birziklapen eta berrerabileran oinarrituz		
Deskribapena:			
<p>Egun Pasaiaiko Udalak baditu irizpide batzuk obretan sortutako EEH-en kontrolerako eta, horretarako, ematen dituen obra lizentzietan EEH-ei buruzko baldintzak ezartzen ditu. Haatik, Udalak berak egiten dituen obretan EEH-en sorrera eta kudeaketa kontrolatzeko irizpide finkorik ez du. Ekintza honen helburua, Pasaian sortzen diren EEH-ak bere osotasunean kontrolatzeko irizpideak ezartzea da eta, horiek, idatziko den hondakinen ordenantzan txertatu.</p> <p>OHARRA: Epe laburra jarri zaio orain zeozer egiten delako eta saiatzen delako. Baina ez daude idatzitako irizpiderik eta horiek ordenantza eguneratzeko garaian egingo direla uste da.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Zerbitzuak
Gaia	07. HONDAKINAK	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	

<b>4.3.8</b>	<b>Udalerrian sortutako hondakinen inguruko informazioa zabaldu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.3 Hondakinen sorrera murriztu, prebentzio, murrizketa, birziklapen eta berrerabileran oinarrituz		
<b>Deskribapena:</b>			
Udalak aldiro-aldiro udalerrian sortutako hondakinen sorrera eta kudeaketari buruzko datuak eguneratzen ditu, San Marko mankomunitateak emandako datuak eta Udalak berak jasotakoak baliatuz. Alabaina, datuok ez dira herritarrekin konpartitzen. Ekintza honen helburua, datuok herritarrekin konpartitzea da, web gunean dagokion atala sortu eta hilabetero datuak eguneratuz.			
<b>Epea</b>	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
<b>Kostua</b>	0.0 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Ingurumena	Beste arduradunak	Zerbitzuak
<b>Gaia</b>	07. HONDAKINAK	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	

<b>4.4.1</b>	<b>Produktu eta zerbitzu arduratsuan eta baliabideen kontsumoan eraginkorrak diren eskaintzak bultzatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.4 Pasaian pertsonak modu arduratsuan kontsumitu dezaten sustatu, ingurumenarekin eta gizartearekin harmonian		
<b>Deskribapena:</b>			
Ekintzaren helburua Pasaiakeo ekoizle eta saltoki desberdinek kontsumo arduratsua sustatzeko laguntza eskaintzea da. Horretarako ondorengo jarduerak burutu daitezkeelarik:			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herrian kontsumo arduratsuen alde eta bertako produktuen alde lan egiten duten eragile/ekoizle/saltoki/jarduera ekonomikoak identifikatzea eta beraien arteko koordinazio eta elkarlana sustatu</li> <li>- Ikusgaitasuna ematea produktu nahiz zerbitzu arduratsuk ematen dituzten establezimendu/jarduera ekonomikoak. Adibidez: <ul style="list-style-type: none"> <li>- web orriaren bidez adierazi zein saltokietan egin daitezkeen arropen, tresna elektrikoak eta bestelako produktuen konponketa lanak, zein saltoki/ekoizleek saltzen dituzten bertako produktuak...</li> <li>- Marka bat sortu eta establezimendu/jarduera ekonomikoek marka hori erabil dezaten sustatu (adibidez pegatina bat establezimenduan jartzeko)</li> </ul> </li> <li>- Arduratsuk eta baliabideen kontsumoan eraginkorrak diren produktuak nahiz zerbitzuak eskaintzen dituzten establezimendu/jarduera ekonomikoak zergetan hobariak txertatzea aztertu</li> <li>- Formakuntza eta informazioa eman saltoki/ostalaritza... establezimenduei irizpide arduratsuk eta ekoizpen eraginkorreko irizpideak txerta ditzaten euren eskaintzetan</li> </ul> <p>...</p>			
<b>Epea</b>	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Altua
<b>Kostua</b>	3.000-15.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Ingurumena	Beste arduradunak	Oarsoaldeako Garapen Agentziako Kontsumo Saila
<b>Gaia</b>	19. SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	

<b>4.4.2</b>	<b>Herritarrei Herrian kontsumitzeak dituen onurak ikusarazi</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.4 Pasaian pertsonak modu arduratsuan kontsumitu dezaten sustatu, ingurumenarekin eta gizartearekin harmonian		
<b>Deskribapena:</b>			
Ekintza honen helburua Pasaitarrei herrian bertan eta bertako merkataritza txikian kontsumitzeak dituen onurak ezagutaraztea eta kontsumo arduratsua bultzatzea dira. Horretarako, sentsibilizazio kanpainak bultzatu behar dira. (PERCO-an zehaztuko litzateke ekintza hau)			
Epea	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	15.000-35.000 €		
Arduradun nagusia	Oarsoaldeako Garapen Agentziako Merkataritza Bulego Teknikoa	Beste arduradunak	Oarsoaldeako Garapen Agentzia
Gaia	19. SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	

<b>4.4.3</b>	<b>Kontsumo arduratsua sustatu herritarren artean (bigarren eskuko azokak antolatu,...) eta Km 0 produktuen kontsumoa bultzatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.4 Pasaian pertsonak modu arduratsuan kontsumitu dezaten sustatu, ingurumenarekin eta gizartearekin harmonian		
<b>Deskribapena:</b>			
Ekintzaren helburua Pasaian kontsumitzen dutenek arduraz kontsumitu dezaten bultzatzea da. Horretarako ondorengo jarduerak burutu daitezkeelarik:			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertako produktuak saldu eta kontsumitu ahal izateko azokak edo espazioak atondu</li> <li>- Bigarren eskuko azokak antolatu</li> <li>- Tresnak eta ondasunak konpontzeko ikastaroak/lantegiak antolatu</li> <li>- Produktu birziklatuak edo berrerabiltzeko moduan daudenak eskuratzeko espazioak sustatu</li> <li>- Gutxitan erabiltzen diren objektuen mailegua edo trukea sustatzea "objektuen liburutegi" antzeko bat sortuz</li> <li>- Udalerriko eragileekin arlo hau landu</li> </ul>			
Epea	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Altua
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Oarsoaldeako Garapen Agentziako Kontsumo Saila
Gaia	19. SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	

4.4.4		Haur eta nerabeekin erosketa ohiturak landu	
<b>PROGRAMA</b>	4.4 Pasaian pertsonen modu arduratsuan kontsumitu dezaten sustatu, ingurumenarekin eta gizartearekin harmonian		
Deskribapena:			
<p>Hautzaroan ikasitako ohiturak dira barneratzen ditugunak eta helduaroan errepikatzen ditugun jokabideak. Hori horrela izanik ezinbestekoa da haur eta nerabeei herrian kontsumitzearen garrantzia azaltzea, gaztetatik jabetu daitezen eta ohiturak eraiki ditzaten. Horrela sentsibilizazio kanpainak egingo dira haur eta nerabeei zuzenduak, beraientzat zehazki, bai eskolen bitartez eta baita modu orokorrean ere; Pasaiaiko dendak ezagutaraziz, erosketa ohiturak landuz, erosten irakatsiz... (PERCO-an zehaztuko litzateke ekintza hau)</p>			
Epea	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Gazteria	Beste arduradunak	Oarsoaldeako Garapen Agentziako Kontsumo Saila
Gaia	19. SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK  10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	

4.4.5		Kontsumitzaile eta Pasaiaiko establezimenduen arteko harremana eta konfiantza sustatzeko kanpainak egin	
<b>PROGRAMA</b>	4.4 Pasaian pertsonen modu arduratsuan kontsumitu dezaten sustatu, ingurumenarekin eta gizartearekin harmonian		
Deskribapena:			
<p>Ekintza honen helburua Pasaiaiko bizilagunen eta bertako establezimenduen arteko loturak eta harremanak estutzea da. Konfiantza eta gertutasunezko tratua izan ohi dira, merkataritza txikiak edo gertutasunezko dendez gehien balioztatzen diren ezaugarriak, beraz hau lantzeko merkatarien laguntza beharko da, bezeroei konfiantza eta gertutasuna islatzeko. (PERCO-an zehaztuko litzateke ekintza hau)</p>			
Epea	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Altua
Kostua	15.000-35.000 €		
Arduradun nagusia	Oarsoaldeako Garapen Agentzia	Beste arduradunak	
Gaia	19. SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK  10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	

<b>4.5.1</b>	<b>Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea ezartzeko konpromiso politikoa lortu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.5 Udala erosketa eta kontratazio publiko arduratsua eta jasangarria duen eredu batera gerturatu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ekintza honen helburua Pasaiaiko udaletxean Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea ezartzen hastea da eta horretarako lehenik beharrezkoa da konpromiso irmo bat hartzea udalaren aldetik. Ekintza honen bidez, udal politikariei konpromisoa hartzeak zer suposatuko duen udalarentzako eta zein onura ekarriko dizkion azalduko zaizkio, konpromisoa politikoa izan dadin, horregatik beharrezkoa da Udalbatza osatzen duten pertsonen kolaborazioa. Ondorengoak izango direlarik hartzen diren konpromisoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- EKPB zuzentzen eta koordinatzen duen arduraduna izendatzea</li> <li>- Urteko lan plana zehaztea</li> <li>- Udal prozedimenduetan kontratazio publiko berdea barneratzeko azterketa egitea</li> <li>- Arlo honen arduradunak formatzea</li> <li>- Erosketa eta kontratazioetan pixkanaka ingurumen irizpideak barneratzea</li> <li>- Planaren jarraipena egitea eta bere eraginkortasuna ebaluatzea</li> </ul>			
<b>Epea</b>	<b>Ertaina (2021-2023)</b>	<b>Lehentasuna</b>	<b>Ertaina</b>
<b>Kostua</b>	3.000-15.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Kontratazioa	Beste arduradunak	
<b>Gaia</b>	18. UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN KUDEAKETA	Aalborg konpromisoa	2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL-KUDEAKETA 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	

<b>4.5.2</b>	<b>Erosketa eta kontratazioetan ardura duten Udal teknikariak Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeari buruzko prestakuntza jaso dezaten baliabideak jarri</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.5 Udala erosketa eta kontratazio publiko arduratsua eta jasangarria duen eredu batera gerturatu		
<b>Deskribapena:</b>			
Ekintzaren helburua erosketa eta kontratazioetan ardura duten udal teknikariak EKPBn formatzea da, aurrerantzean udalean egiten diren erosketetan eta kontratuetan irizpide berdeak modu egokian txertatzeko. Formakuntza hainbat arlotan jaso dezakete, hala nola, lege baldintzak, irizpide berdeak nola sartu, eskaintzak nola ebaluatu, eta abar.			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Pertsonala	Beste arduradunak	Kontratazioa
Gaia	18. UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN KUDEAKETA	Aalborg konpromisoa	2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL-KUDEAKETA 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	

<b>4.5.3</b>	<b>Erosketetan eta kontratazioetan irizpide berdeen barneratzea planifikatu eta aurrera eraman</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.5 Udala erosketa eta kontratazio publiko arduratsua eta jasangarria duen eredu batera gerturatu		
<b>Deskribapena:</b>			
Pasaiako udaletxean Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea ezartzen hasteko konpromiso politikoa lortu ondoren, konpromiso horretan aurrerapausuak ematea da ekintzaren helburua. Horretarako, beharrezkoa da udalean egiten diren erosketa eta kontratazioetan irizpide berdeak modu antolatua batean txertatzeko planifikazioa egitea, eta bertan barneratzea udalarentzako garrantzitsuak diren aspektuak, langileei zuzendutako trebakuntzen antolaketa eta zehaztutako irizpideen betetze-maila.			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Kontratazioa	Beste arduradunak	Ingurumena
Gaia	18. UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN KUDEAKETA	Aalborg konpromisoa	2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL-KUDEAKETA 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	

<b>4.5.4</b>	<b>Udalerriko eragile desberdinen artean Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen arloan hartutako konpromisoen eta planifikazioaren gaineko informazioa eman</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.5 Udala erosketa eta kontratazio publiko arduratsua eta jasangarria duen eredu batera gerturatu		
<b>Deskribapena:</b>			
Ekintza honekin udalerrriak Erosketa eta Kontratazio Publiko berdea garatzeko hartutako konpromisoen berri eman nahi da, baita hau gauzatzeko planifikazioaren gaineko informazioa eman ere. Bi eragile desberdinei zuzenduko zaio informazioa:			
- Udaleko langile guztiei EKPB-rekin Udalak duen konpromiso eta planifikazioaren berri emanen zaie.			
- Hornitzaileei Udalaren asmoen berri emateko sistemak ezarriko dira, eta hauen bidez informazioa emango zaie.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Kontratazioa	Beste arduradunak	Ingurumena
Gaia	18. UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN KUDEAKETA	Aalborg konpromisoa	2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL-KUDEAKETA 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	

<b>4.5.5</b>	<b>Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen ezarpenaren jarraipena egin</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.5 Udala erosketa eta kontratazio publiko arduratsua eta jasangarria duen eredu batera gerturatu		
<b>Deskribapena:</b>			
Ekintzaren helburua alde batetik Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdean aurreikusten diren ekintzak betetzen ari direla egiaztatzea da, adibidez, paperaren erosketarako prozesuan edo garbiketa zerbitzuetan ingurumenaren irizpidea txertatu direla egiaztatzea.			
Bestalde, beharrezkoa da baita ere erosketa eta kontratazioetan barneratzen diren irizpide berdeak betetzen direla baieztatzea. Horretarako, prozesu bakoitzaren jarraipena egin beharko da. Pleguan ingurumen irizpideak txertatzea baino haratago doa, eskatu diren irizpide berdeak betetzen diren edo ez ezagutzea da eta irizpide hauen bidez zein ingurumen hobekuntza lortu diren ezagutzea.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Kontratazioa	Beste arduradunak	Ingurumena
Gaia	18. UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN KUDEAKETA	Aalborg konpromisoa	2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL-KUDEAKETA 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	

<b>4.5.6</b>	<b>Udal establezimenduen edo jardueren ingurumen alderdiak ezagutu, kontsumoen gaineko azterketa egin eta neurriak jarri ingurumen inpaktuak murrizteko</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.5 Udala erosketa eta kontratazio publiko arduratsua eta jasangarria duen eredu batera gerturatu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ekintzaren helburua udalaren ingurumen alderdia hobetzea da. Horretarako lehenik, udal establezimendu eta jarduera bakoitzak zein ingurumen alderdi dituzten ezagutu behar da, hauen azterketa egin (ur kontsumoen, energia-kontsumoen, ibilgailuen, eta abarren gaineko azterketa) eta establezimendu eta jarduerak sortzen dituzten ingurumen inpaktuak murrizteko helburuak eta neurriak martxan jarri. Guzti hau, nahi bada arau bat jarraituz (Ekoscan, ISO 14001 edo EMAS) egin daiteke. Horrez gain, noizean behin, udal langileei alderdi hauen gaineko informazioa emanen zaie eta formazio saioak edota sentsibilizazioak eginen dira.</p>			
<b>Epea</b>	<b>Ertaina (2021-2023)</b>	<b>Lehentasuna</b>	<b>Baxua</b>
<b>Kostua</b>	0.0 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Ingurumena	Beste arduradunak	
<b>Gaia</b>	18. UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN KUDEAKETA	Aalborg konpromisoa	2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL-KUDEAKETA 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	

<b>4.5.7</b>	<b>Pasaian antolatzen diren ekitaldietan edo aktibitateetan ingurumen baldintzak ezarri</b>		
<b>PROGRAMA</b>	4.5 Udala erosketa eta kontratazio publiko arduratsua eta jasangarria duen eredu batera gerturatu		
Deskribapena:			
<p>Pasaian arlo desberdinetako (euskara, kultura, ingurumena, barrutietako festak...) hainbat ekitaldi eta jarduera antolatzen dira, batzuk udalak antolatuta, bestea ordea udalerriko edo eskualdeko eragile desberdinek. Ekintza honen bidez, ekitaldi hauek ingurumenarekin errespetagarri izan daitezzen lortu nahi da. Horretarako, ondorengo egin daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Udalak ematen dituen diru laguntzetan ingurumen baldintzak ezarri.</li> <li>- Horrelako ekitaldiak antolatzen dituzten eragileei ingurumen baldintzen gaineko informazioa eta aholkularitza eman</li> <li>- Udalak antolatzen dituen ekitaldietan ingurumen hobekuntzak txertatu pixkanaka eta hauek ezagutzera eman herritarren artean, udala eredugarri izanik.</li> </ul>			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Kontratazioa
Gaia	18. UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN KUDEAKETA	Aalborg konpromisoa	2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL-KUDEAKETA 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	



## **5. ILDO ESTRATEGIKOA:**

**ENERGIA ESKURAGARRIA, JASANGARRIA ETA MODERNOA  
DUEN UDALERRI EREDUA SUSTATU ETA KLIMA-ALDAKETAREN  
ETA HAREN ONDORIOEN AURKA EGITEKO NEURRIAK HARTU**



<b>5.1.1</b>	<b>Udal ekipamenduen eta argiteria publikoaren kudeaketa eta energia kontabilitate zorrotza egin kontsumoak kontrolpean izate aldera</b>		
<b>PROGRAMA</b>	5.1 Udal plangintzan eta politikan energiaren arloko neurriak barneratu eta hauek kudeaketa egokia egin		
<b>Deskribapena:</b>			
Ekintzaren helburua udal ekipamendu eta argiteria publikoaren kontsumoen kontrola eramatea da, hobekuntzak egin ahal izateko. Horretarako, udal eraikinen eta ekipamenduen kontsumoen kontrol zorrotza eramango da, urteko kontsumoak kalkulatu eta konparatu, bai totalak eta bai instalazio bakoitzarenak ere, horrela, hartzen diren neurriek dakarten ondorioak identifikatzeko. Udal kontsumoen egoera eta bilakaera aztertuko da.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Energia	Beste arduradunak	
Gaia	06. ENERGIA	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		7- ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA	

<b>5.1.2</b>	<b>Ekipamenduetan eta argiteria publikoan arreta jarriko duen Udal Energia Plan bat egin, aurrera eraman beharreko ekintzak definituz eta lehentasunak zehaztuz</b>		
<b>PROGRAMA</b>	5.1 Udal plangintzan eta politikan energiaren arloko neurriak barneratu eta hauek kudeaketa egokia egin		
<b>Deskribapena:</b>			
Ekintza honen bidez udal ekipamenduen eta argiteria publikoaren portaera eta kudeaketa energetikoa hobetze aldera aurrera eraman beharreko neurriak zehaztu, ondo planifikatu eta lehenetsi nahi dira. Planifikazioa egiteko, 5.1.1. ekintzaren bidez egindako kontabilitatea oinarri hartu daiteke.			
Gaiari aditua den kanpoko laguntza tekniko bat kontratatu beharko da lana antolatzeko eta egin beharreko azterketa teknikoak burutzeko. Dokumentu bat osatuko da zeinak energia arloko datozen urteetako bide-orri zehatza markatuko duen.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Energia	Beste arduradunak	
Gaia	06. ENERGIA	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		7- ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA	

<b>5.1.3</b>	<b>Udal ekipamendu publikoetan arrazoizko energia kontsumoa egitera bideraturiko ohitura eta jardunbide egokiak sustatu, bai udal langile bai erabiltzaileen artean</b>		
<b>PROGRAMA</b>	5.1 Udal plangintzan eta politikan energiaren arloko neurriak barneratu eta hauek kudeaketa egokia egin		
<b>Deskribapena:</b>			
Udal Energia Planetik abiatuta, langile kopuru nabarmena eta/edo herritarrak elkartzen dituzten eraikinak identifikatuko dira eta energia eskaria murrizteko hobetze-marjin handiagoa duten horietan ohitura aldaketak sustatuko dira.			
Eraikin batekin hasia proposatzen da, proiektu piloto moduan, metodologia zehatz bat aplikatuz (Euronet 50/50 izan daiteke) eta bere eraginkortasuna ebaluatu ondoren, gainontzeko eraikinetara zabaltzeko plan teamendu bat landuz.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Energia	Beste arduradunak	
Gaia	06. ENERGIA	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		7- ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA	

<b>5.1.4</b>	<b>Oarsoaldeako Energia Mahaian parte hartu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	5.1 Udal plangintzan eta politikan energiaren arloko neurriak barneratu eta hauek kudeaketa egokia egin		
<b>Deskribapena:</b>			
Ekintzaren helburua, energiarako udal teknikaria energia gaietan eta gainontzeko herrietan egiten diren ekimenetan formatzea da. Errenteria, Oiartzun eta Lezoko Udaletako teknikariek batera, Oarsoaldeako Energia Mahaian parte hartuko du Pasaiako Udalak. Udal Instalazioetarako teknikaria, beste udaletako teknikariek eta Oarsoaldea Garapen Agentziako adituekin elkartuko da, ezagutzak eta esperientziak partekatu eta beharrekoak ikusten diren gaietan formatzeko.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Energia	Beste arduradunak	
Gaia	06. ENERGIA	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		7- ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA	

<b>5.2.1</b>	<b>Udal ekipamenduetako eraginkortasun energetikoa hobetu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	5.2 Energia jasangarria eta modernoa sustatu udal eraikin eta argiteria publikoan, energia eraginkortasuna hobetuz		
<b>Deskribapena:</b>			
Udal ekipamenduetan, bai udal eraikinen, argiteria publikoan edo beste instalazio teknikoen eraginkortasuna hobetu. Horretarako, ekipamendu eraginkorragoak erosi, oraingoak hobetu edo beharrezkoak ez direnak kendu egingen dira.			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua	15.000-35.000 €		
Arduradun nagusia	Energia	Beste arduradunak	
Gaia	06. ENERGIA	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		7- ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA	

<b>5.2.2</b>	<b>Argiteria publikoan teknologia eta kudeaketa-sistema berriak txertatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	5.2 Energia jasangarria eta modernoa sustatu udal eraikin eta argiteria publikoan, energia eraginkortasuna hobetuz		
<b>Deskribapena:</b>			
Argiteria publiko eraginkorragoa lortzeko, kontsumo txikiagoko luminariengatik aldatuko dira gaur egunekoak pixkanaka. Gainera, bere erregulazio sistema ere kontuan hartuko da, pizte eta itzaltze ordu egokienak hautatzeko.			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	15.000-35.000 €		
Arduradun nagusia	Energia	Beste arduradunak	
Gaia	06. ENERGIA	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		7- ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA	

<b>5.2.3</b>	<b>Udal flotan ibilgailu elektrikoak progresiboki txertatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	5.2 Energia jasangarria eta modernoa sustatu udal eraikin eta argiteria publikoan, energia eraginkortasuna hobetuz		
<b>Deskribapena:</b>			
Ibilgailu bat aldatzen denean, berria elektrikoa izatea ahalbidetuko da. Aldaketa hau, pixkanaka egingo da, oraingo ibilgailuen berezko bizi iraupena errespetatuz. Aldaketa egiterakoan merkatuan dauden aukerak aztertuko dira, eta horren arabera erabakiko da zein ibilgailu erosi. Ibilgailu elektrikoak udalean sartzen doazen heinean karga puntuak instalatu beharko dira.			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua	>80.000 €		
Arduradun nagusia	Energia	Beste arduradunak	
Gaia	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		11- HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	

<b>5.2.4</b>	<b>Udal eraikinetan berrikuntzak egiterakoan energia berriztagarriak progresiboki txertatu kasuan kasu teknologia egokiena aukeratuz</b>		
<b>PROGRAMA</b>	5.2 Energia jasangarria eta modernoa sustatu udal eraikin eta argiteria publikoan, energia eraginkortasuna hobetuz		
<b>Deskribapena:</b>			
Eraikin bateko energia eskaria guztiz definituta dagoenean, eraginkortasun energetikoko neurriak aplikatuta, energia berriztagarriak txertatzea aztertuko da, eraikin bakoitzaren beharrak eta aukerak aztertuz.			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	50.000-80.000 €		
Arduradun nagusia	Energia	Beste arduradunak	
Gaia	06. ENERGIA	Aalborg konpromisoa	3. NATUR ONDASUN KOMUNAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		7- ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA	

<b>5.3.1</b>	<b>Zaurgarritasun energetikoa pairatu dezaketen etxebizitzak identifikatu eta gaia beraiekin landu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	5.3 Energia eskuragarria, jasagarria eta modernoa sustatu pertsona guztiontzat, energia eraginkortasuna hobetuz		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ekintzaren helburua zaurgarritasun energetikoaren arazoari hasierako hurbilketa bat egitea da, ondoren, egoerari aurre egiteko dagozkion neurriak hobeto planifikatu eta aurrera eraman ahal izateko. Horretarako, lehenik eta behin, zaurgarritasun energetikoan dauden pertsonak identifikatzeko irizpideak finkatuta daudenean, Gizarte Zerbitzuetatik egoera larrian dauden familiak identifikatuko dira eta haiekin batera euren gastu energetikoa murrizteko eta etxean konfort termiko aukerak aztertuko dira. Horretarako hiru ardatz lantzea proposatzen da: kontsumo ohiturak hobetzeko jardunbide onak, etxebizitzaren egoeraren azterketa eta faktura egokitzeko aukeren analisia. Lanketa hau aurrera eramateko, familiengana hurbilduko da eta haiekin batera gaia landuko lukeen laguntza tekniko bat kontratatzea egokitzat jotzen da, Gizarte Zerbitzuekin elkarlan estuan.</p>			
Epea	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Gizarte Zerbitzuak	Beste arduradunak	Energia
Gaia	06. ENERGIA	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasagarriaren Helburuak (GJH)		7- ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA	

<b>5.3.2</b>	<b>Energiaren arazoizko erabilera sustatu sentsibilizazioaren bidez eta sektore ezberdinekin (merkataritza eta ostalaritza, adibidez) zehazki lan eginez</b>		
<b>PROGRAMA</b>	5.3 Energia eskuragarria, jasagarria eta modernoa sustatu pertsona guztiontzat, energia eraginkortasuna hobetuz		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Udal ekipamenduetan egindako eraginkortasun neurriak, sektore desberdinetara zabaldu, ezagutzak partekatu eta udalean hartutako neurriak ezagutzera eman. Udal eragileekin lan egitea ere baloratu daiteke, beraiekin batera eginez sentsibilizazioa</p>			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Energia	Beste arduradunak	
Gaia	06. ENERGIA	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasagarriaren Helburuak (GJH)		7- ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA	

<b>5.3.3</b>	<b>Euronet 50/50, Ikastetxeekin eskoletan energia aurreztea helburu duen ekimenena, zabaldu, kontsolidatu eta ezagutzera eman</b>		
<b>PROGRAMA</b>	5.3 Energia eskuragarria, jasagarria eta modernoa sustatu pertsona guztiontzat, energia eraginkortasuna hobetuz		
<b>Deskribapena:</b>			
Eraikin publikoen erabiltzaileen portaera aldatzen laguntzen duen eta energia-fakturetan lortutako aurrezkiak partekatzea ahalbideratzen duen kontzeptu bat da 50/50 proiektua. 2018-2019 kurtsoan hasiko da proiektua Karmengo Ama Herri eskolan.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Energia	Beste arduradunak	
Gaia	06. ENERGIA	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasagarriaren Helburuak (GJH)		7- ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA	

<b>5.4.1</b>	<b>Klima aldaketaren aurkako Plana idatzi</b>		
<b>PROGRAMA</b>	5.4 Klima aldaketaren eta bere ondorioen aurka egiteko Berotegi Eftukoko Gasen isuriak murriztu eta haren aurrean erresilientzia izateko eta berari egokitzeko ahalmena izateko neurriak abian jarri		
<b>Deskribapena:</b>			
Ekintza honen helburua Klima Aldaketari aurre egiteko Plan zehatz bat lantzea da zeinak berotegi eftukoko gasen mitigazioa eta aurreikusitako inpaktuei aurre egiteko egokitzapenerako neurriak barne hartuko dituen.			
Pasaiak dagoeneko 2014 eta 2015 urteetako berotegi eftukoko gasen inbentarioak kalkulatu ditu eta Udalak lan honi jarraipena emateko asmoa dauka, ondorioak ateratzen lagungarria den serie luze bat osatzen joateko.			
Gaiari aditua den kanpoko laguntza tekniko bat kontratatu beharko da lana antolatzeko eta egin beharreko azterketa teknikoak burutzeko, hau epe ertainera egitea aurreikusitua da.			
Honetaz gain eta klima aldaketa zeharkako gai bat dela kontutan izanda, Plana Tokiko Agenda 21erako sortutako Mahai Teknikoan lantzea proposatzen da, Hirigintza Sailaren koordinaziopean.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua	15.000-35.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	
Gaia	08. KLIMA ALDAKETA ETA INPAKTU OROKORRA	Aalborg konpromisoa	10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasagarriaren Helburuak (GJH)		13- KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	

<b>5.4.2</b>	<b>Pasaiaiko egoitzatik klima aldaketaren eraginari buruzko azterketa-lan garrantzitsua egiten duen Azti bezalako erakundeekin harremanak estutu eta herritarrei egiten ari den lanaren berri eman</b>		
<b>PROGRAMA</b>	5.4 Klima aldaketaren eta bere ondorioen aurka egiteko Berotegi Efektuko Gasen isuriak murriztu eta haren aurrean erresilientzia izateko eta berari egokitzeko ahalmena izateko neurriak abian jarri		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaian, zehazki, Portuko eremuan, Azti kokatuta dago, klima aldaketari buruzko azterketa-lan ugari eta garrantzitsuak egiten dituen. Ekintza honen helburua Aztiarekin harremanetan jarri eta sortutako harremana mantentzea da, herritarrei egiten ari den lanaren berri emateaz gain. Horretarako, Azti teknikariekin gutxienez urtean bi aldiz bilerak egingo dira, egiten ari den eta datozen 6 hilabeteetan egitea aurreikusten duen lanei buruzko informazioa jasotzeko. Udalak, bere baliabideen arabera, Azti gauzatuko dituen ekintzetan parte-hartzea aztertuko du. Edozein kasutan, Pasaiaiko herritarrei ekintzon berri emango dio web guneko informazioa aldiro eguneratuz.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	
Gaia	08. KLIMA ALDAKETA ETA INPAKTU OROKORRA	Aalborg konpromisoa	10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		13- KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	

<b>5.4.3</b>	<b>Klima aldaketaren aurrean udalak duen kalteberatasuna eta arriskua ezagutu/aztertu eta gai honetan sakontzen hasi</b>		
<b>PROGRAMA</b>	5.4 Klima aldaketaren eta bere ondorioen aurka egiteko Berotegi Efektuko Gasen isuriak murriztu eta haren aurrean erresilientzia izateko eta berari egokitzeko ahalmena izateko neurriak abian jarri		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaia kostaldean kokatzen denez, klima aldaketak zuzenean eragin dakiok. Ekintza honen helburua udalerririk duen kalteberatasuna eta arriskua ezagutzeko datza. Horretarako aditua den lantaldea kontratatuko da.</p>			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	
Gaia	08. KLIMA ALDAKETA ETA INPAKTU OROKORRA	Aalborg konpromisoa	10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		13- KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	

<b>5.4.4</b>	<b>Klima aldaketarekiko egokitzapena udal politiketan txertatzen hasi, batez ere eguneratzean dagoen HAPOan</b>		
<b>PROGRAMA</b>	5.4 Klima aldaketaren eta bere ondorioen aurka egiteko Berotegi Eftukiko Gasen isuriak murriztu eta haren aurrean erresilientzia izateko eta berari egokitzeko ahalmena izateko neurriak abian jarri		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaiako Udalak HAPOa berrikusteko asmoa du datozen urteetan. Kontuan izanik udalerraren kokapena, ezinbestekotzat jotzen du Udalak klima aldaketarekiko egokitzapena HAPOan txertatzea. Horretarako, lantalde aditua kontratatuko du Udalak.</p> <p>OHARRA: epe laburra jarri zaio, berez laster hasi beharko litzatekeelako HAPOa berrikusteko prozesua. Aurrekontua gutxi gora beherakoa da. Baldintza orrietan zehaztu zen klima aldaketa txertatu behar zela eta lantaldearen baitan ingurumenean aditua den enpresa edo teknikaria eskatu zen. Aurrekontuaren arabera, klima aldaketari dagokiona tarte horretan egon beharko litzateke.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradunak	Hirigintza
Gaia	08. KLIMA ALDAKETA ETA INPAKTU OROKORRA	Aalborg konpromisoa	10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		13- KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	

## **6. ILDO ESTRATEGIKOA:**

**TOKIKO EKONOMIAREN HAZKUNDEAREN ETA LAN DUINAREN  
SUSTAPENERAKO POLITIKAK BULTZATU**



<b>6.1.1</b>	<b>Pasaiako merkataritza eta ostalaritza egoeraren analisia eta diagnostiko bat egin; bertatik abiatuz sektore honi zuzenduriko Ekintza Plan zehatz bat garatzeko (PERCO)</b>		
<b>PROGRAMA</b>	6.1 Turismo jasangarria indartu, bertako kultura, produktuak eta komertzio txikiak sustatuz		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ekintzaren helburua tokiko merkataritza eta ostalaritza sustatzea eta merkataritza espezializatuarekin, sormenarekin eta merkataritza digitalarekin lotutako ekintzailletza bultzatzea. Horretarako lehendik Pasaiako merkataritza eta ostalaritzari buruzko egungo azterketa egin behar da, merkataritza eta ostalarien parte-hartzearekin batera eta ondoren sektoreari zuzendutako Ekintza Plana garatuko da, non ondorengo landuko den beste hainbat gaiez gain:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erosketa eta aisialdirako esperientziak sortu</li> <li>- Bertako bezeroen fidelizazio kanpainak egin</li> <li>- Sektorea eta Udalaren arteko elkarlana bideratzeko lan taldea sortu</li> <li>- Pasaiako merkataritza establezimenduen itxiera gelditu edo leunduko duen neurriak hartu (ixtear edo jubilazio adinean daudenen jarripena eta programetara bideratzea, zein laguntza zehatzak eskaintzea)</li> </ul> <p>Oarsoaldeako 2025 Plan Estrategikoaren baitan biltzen da ekintza hau: L.5.6</p>			
<b>Epea</b>	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Baxua
<b>Kostua</b>	50.000-80.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Oarsoaldeako Garapen Agentzia	Beste arduradunak	
<b>Gaia</b>	17. GARAPEN EKONOMIKOA	Aalborg konpromisoa	8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		8- LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	

<b>6.1.2</b>	<b>Itsasoarekin batez ere, eta baita naturarekin, gastronomiarekin, euskararekin eta ekitaldi-antolketarekin lotutako baliabideak sustatu Pasaian</b>		
<b>PROGRAMA</b>	6.1 Turismo jasagarria indartu, bertako kultura, produktuak eta komertzio txikiak sustatuz		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaian itsasoarekin lotutako baliabideak sustatzea da helburua, Pasaiaren elementu turistiko nagusiak diren heinean. Horretarako Oarsoaldeatik lantzen ari diren itsasoarekin lotutako proiektuak sustatu eta itsas ondarearekin zein naturarekin lotura dutenak garatu behar dira; baita itsas zerbitzu turistikoak ere, esaterako itsas bidaietarako portuak, amarradurak, nabigazioa, arrauna, piraguismoa eta beste hainbat.</p> <p>Oarsoaldeako 2025 Plan Estrategikoaren baitan biltzen da ekintza hau: L.5.2</p>			
<b>Epea</b>	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Altua
<b>Kostua</b>	0.0 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Oarsoaldeako Garapen Agentzia	Beste arduradunak	
<b>Gaia</b>	17. GARAPEN EKONOMIKOA	Aalborg konpromisoa	8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
<b>Garapen Jasagarriaren Helburuak (GJH)</b>		8- LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	

<b>6.1.3</b>	<b>Pasaiaiko Itsas Festibalean ingurumen irizpideak barneratuz joan</b>		
<b>PROGRAMA</b>	6.1 Turismo jasagarria indartu, bertako kultura, produktuak eta komertzio txikiak sustatuz		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>2018an lehen aldiz ospatu da Pasaiaiko Itsas Festibala, Nazioarteko itsas topaketa. Bertan kontinente desberdinetako ontzi tradizionalak elkartzen dira urgunea izanik agertoki, lehorreko guneak (Pasaia osatzen duten lau barrutiak) aldiz, gastronomia, kultura, artisautza eta musikaren agertoki izaten dira. Festibalak, herriaren dinamizazio kultural eta turistikoa izateaz gain, paper garrantzitsua dauka herritarren nortasun eta identitatean, herritarrak bertako izatearen harrotasuna sendotu baitezake. Ekintza honen bidez, azken helburu hori lortu nahi da, horrela udalak urtero Itsas Festibala egiteko laguntza, elkarlana eta baliabideak eskainiko dituelarik.</p> <p>Horrez gain, datozen edizioetan, horrelako ekitaldi batek ingurumenean izan dezakeen inpaktua kontuan hartuko da, horretarako ekitaldian ingurumen irizpideak barneratuko dira (hondakinak, energia, biodibertsitatea...) adibidez Eusko Jaurlaritzaren Erronka Garbia programaren bidez eta komunikazio kanpainak eginen dira bertaratutakoek ingurumena kontuan izan dezaten eta bertan parte hartzen duten kultur eragile, ostalaritza, merkataritza, gastronomia eragileei ingurumen irizpideen gaineko hitzaldiak emanen zaizkie ekitaldia ospatzen den egunetan kontutan har ditzaten.</p>			
<b>Epea</b>	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
<b>Kostua</b>	3.000-15.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Ingurumena	Beste arduradunak	
<b>Gaia</b>	18. UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN KUDEAKETA	Aalborg konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA
<b>Garapen Jasagarriaren Helburuak (GJH)</b>		12- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	

<b>6.1.4</b>	<b>Turismo sektoreko ekimen pribatuen sorrera bultzatu, baliabide turistikoaren balioari eta aberastasuna eta enplegua sorrarazteko duten ahalmenari buruzko sentsibilizazio-ekintzak gauzatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	6.1 Turismo jasagarria indartu, bertako kultura, produktuak eta komertzio txikiak sustatu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Turismoak eragin ditzakeen ekarpen ekonomikoak ohartarazteko herritarrei honen onurak ezagutarazi behar zaizkie. Turismo aberastasuna eta enplegua sortzeko bide ematen duen jardura dela aitortzea eta hori balioa emate aldera Oarsoaldeko Turismo Planaren Birzehaztapenean jasotzen zen modura. Horrela jardura ezberdinen artean, turismoak izan zitezkeen eraginei buruzko azterlan bat egiteko aukera teknikoak eta ekonomikoak aztertzeke asmoa jasotzen da, eragile publikoen artean eskualdearen, eta Pasaiaren, ikuspegi kontzientzia turistiko bat sustatzeko xedez.</p> <p>Oarsoaldeko 2025 Plan Estrategikoaren baitan biltzen da ekintza hau: L.5.3</p>			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Oarsoaldeko Garapen Agentzia	Beste arduradunak	
Gaia	17. GARAPEN EKONOMIKOA	Aalborg konpromisoa	8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
Garapen Jasagarriaren Helburuak (GJH)		8- LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	

<b>6.1.5</b>	<b>Kalitatezko eta nortasun propiodun turismo bat eskaini</b>		
<b>PROGRAMA</b>	6.1 Turismo jasagarria indartu, bertako kultura, produktuak eta komertzio txikiak sustatu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaiari bere herri nortasuna berrestea eta aldi berean, nortasun turistiko propioa sustatzea da helburua. Nortasun hau Pasaiaren izaerarekin bat datorren eta itsasoko sena isladatzen duen izaera izango da. Horrela, Pasaia Badia, Portua eta Itsasoa bat egiten dituen elementu edo destino turistiko izango delarik. Horretarako ezinbestekoa da komunikazio estrategia egoki bat egitea eta Pasaia izaera honekin lotzea.</p> <p>Oarsoaldeko 2025 Plan Estrategikoaren baitan biltzen da ekintza hau: L.5.2</p>			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Altua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Oarsoaldeko Garapen Agentzia	Beste arduradunak	
Gaia	17. GARAPEN EKONOMIKOA	Aalborg konpromisoa	8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
Garapen Jasagarriaren Helburuak (GJH)		8- LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	

<b>6.1.6</b>	<b>Ostalaritza-sektorea egituratzea eta profesionalizatzea sustatu eta Pasaian ostatu hartzeko aukeren dibertsifikazioa landu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	6.1 Turismo jasagarria indartu, bertako kultura, produktuak eta komertzio txikiak sustatuz		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ostalaritza sektorean ikusi izan diren hutsuneak betetzea da xedea. Lehiatzeko zailtasunak, turismora bideratutako enpresen neurri txikiaren eta langileen prestakuntza eta garapen maila lantzea. Sektoreko langileen prestakuntza maila hobetzea, batez ere marketinaren eta IKTen erabileraren arloetan. Aldi berean, Pasaian ostatu emateko eskaintza urritasuna gainditzeko lan egitea, ostatuak zabaltzea bultzatuz.</p> <p>Oarsoaldeako 2025 Plan Estrategikoaren baitan biltzen da ekintza hau: L.5.4</p>			
Epea	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0.0 €		
Arduradun nagusia	Oarsoaldeako Garapen Agentzia	Beste arduradunak	
Gaia	17. GARAPEN EKONOMIKOA	Aalborg konpromisoa	8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
Garapen Jasagarriaren Helburuak (GJH)		8- LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	

<b>6.2.1</b>	<b>Pasaian Eremuak/Industrialdeak osoki birsortzeko ahalegina egin, jarduera urbanistikoak, hondakinak, energia, mugikortasuna partekatutako ekipamenduak txertatuz</b>		
<b>PROGRAMA</b>	6.2 Pasaian industria inklusibo eta jasagarria bultzatu eta ekintzailtza eta berrikuntza barnerratu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaian lehenik dauden industrialdeetatik abiatuta, kalitatezko industrialdeak lortu nahi dira. Oinarrizko jarduerak landu behar dira, arlo urbanistikoa edo paisaia arlokoak, horrela irismen handiagoko eremuak bilakaturik. Honekin, instalatuta dauden enpresei mesede egiteaz gain, kalitatezko segmentuetan jarduera industrialerako eremu berriak ere sortzen dira. Zehazki, Oarsoaldeako Plan Estrategikoan jasotzen den moduan, XX.mendeko garapen industrialaren Pasaia Ekintza Planak egitea eta aplikatzea da jarduera nagusia. Horretarako planteatzen diren ekintzak, Pasaia-irudirako neurriak zehaztea eta aplikatzea, fatxadak hobetzeko araudiak, urbanizazio-baldintzak, beste garapen batzuekiko harremana, moteltze-eremuak eta abar.</p> <p>Oarsoaldeako 2025 Plan Estrategikoaren baitan biltzen da ekintza hau: L.2.2</p>			
Epea	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Altua
Kostua	>80.000 €		
Arduradun nagusia	Oarsoaldeako Garapen Agentzia	Beste arduradunak	
Gaia	09. UDALARENK EZ DIREN ERAKUNDEEN INGURUMEN KUDEAKETA	Aalborg konpromisoa	8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
Garapen Jasagarriaren Helburuak (GJH)		9- INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA	

<b>6.2.2</b>	<b>Maila guztietan enpresen arteko lankidetzeta eta enpresa-jardueraren jarraipena bultzatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	6.2 Pasaian industria inklusibo eta jasangarria bultzatu eta ekintzailtza eta berrikuntza barneratu		
<b>Deskribapena:</b>			
Enpresa txikien ahuleziak gainditzeko asmoz, lehiakortasunerantz zuzenduriko enpresen arteko lankidetzak erraztu eta sustatu nahi dira. Horretarako herri mailan zein eskualde mailan balio-kateak berriro posizionatzea bultzatu nahi da.			
Bestalde, enpresen jarraipena bermatzeko helburuarekin, erretiro garaia iristean transmisiorik ez duten enpresen kasuak murriztu eta desagertu nahi dira. Horretarako, transmisioak inplika ditzakeen arazo juridikoei, antolaketa arlokoiei eta finantza arlokoiei aurre egitea da helburua; alternatibak eskainiz, esaterako langileei transmisio egitea eta kooperatibak sortzea, eragile berriak sartzeta... laguntza proiektuak martxan jarritz.			
Oarsoaldeako 2025 Plan Estrategikoaren baitan biltzen da ekintza hau: L.2.4			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	35.000-50.000 €		
Arduradun nagusia	Oarsoaldeako Garapen Agentzia	Beste arduradunak	
Gaia	17. GARAPEN EKONOMIKOA	Aalborg konpromisoa	8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		8- LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	

<b>6.2.3</b>	<b>Pasaian Berrikuntza industrialerako eta ekintzailtza industrialerako tresnak eta eremuak sortu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	6.2 Pasaian industria inklusibo eta jasangarria bultzatu eta ekintzailtza eta berrikuntza barneratu		
<b>Deskribapena:</b>			
Eskualdeko zein Pasaia enpresen ezaugarrietako bat berrikuntzarekin lotutako ahulezia da, beraz berrikuntza eta ekintzailtza sustatzeko tresnak enpresen eskura jartzea da ekintza honen helburua. Horretarako honako ekintzak aurreikusten dira, zeintzuk eskualde mailan landuko direnak Oarsoaldeako Garapen Agentziatik, eragile teknologikoen eta prestakuntza arlokoen, erakundeen eta enpresen arteko harreman-eremuak konfiguratzeko; elkarlan teknologikoko			
Oarsoaldeako 2025 Plan Estrategikoaren baitan biltzen da ekintza hau: L.2.6.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
Kostua	>80.000 €		
Arduradun nagusia	Oarsoaldeako Garapen Agentzia	Beste arduradunak	
Gaia	17. GARAPEN EKONOMIKOA	Aalborg konpromisoa	8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		8- LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	

<b>6.2.4</b>	<b>Pasaian industria kreatiboetako eta kultureko mesede egiteko eremu sare bat gauzatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	6.2 Pasaian industria inklusibo eta jasangarria bultzatu eta ekintzaitza eta berrikuntza barneratu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaian, eskualde ikuspegitik bultzatuta, industria kreatibo eta kultureko indarra eta aitorpena emango dien estrategiak garatzea da helburua. Horretarako, Garapen Agentziatik eskualde mailan landuko diren hainbat ekintza daude eta hauek Pasaian ere tokia eta presentzia izan dezaten bermatu behar da. Ekintzak honakoak izan daitezke, ikus-entzunezko sektorea garatzeko (euskal zinema, animazioa, jokoak...) eskualdeak eskaintzen dituen aukerak arakatzea; lehendik dauden baliabideak sustatu eta hedatzea (esaterako Ziriza Etxea eraikina); unibertsitateko prestakuntza lanbide kreatiboekin, berrikuntzarekin eta diziplinekin lotutako espezialitateetan bultzatzea, kreatibitatea ekoizpen-jarduerarekin lotzen dutenak; teknologiaren inguruko topaguneak sustatzea herritarrei zabalik egongo direlarik...</p> <p>Oarsoaldeko 2025 Plan Estrategikoaren baitan biltzen da ekintza hau: L.2.7.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua	50.000-80.000 €		
Arduradun nagusia	Oarsoaldeko Garapen Agentzia	Beste arduradunak	
Gaia	17. GARAPEN EKONOMIKOA	Aalborg konpromisoa	8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		8- LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	

<b>6.2.5</b>	<b>Pertsonen parte-hartzean, ardura sozialean eta jasangarritasunean oinarritutako enpresa eredu berrien ezartzea sustatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	6.2 Pasaian industria inklusibo eta jasangarria bultzatu eta ekintzaitza eta berrikuntza barneratu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Jarduera ekonomikoak pertsonen zerbitzura egon daitezela sustatzea da helburua. Horretarako, Garapen Agentziak eskualde mailan ekosistema bat landuko du eta hau Pasaian presente egotea beharrezkoa da. Ekosistema bat non paradigma berri honen elementuak agerian egongo diren, esaterako balio erantsi soziala sortzea eta hau erakutsiko duten sistemak, balio etiko eta sozialak eskatuko zaizkien enpresei, genero-ikuspegia txertatuko den, ekonomia erreala babestuko den (ez espekulazioa- edo finantza-ekonomia), lurraldearen baliabide endogenoen erabilera sustatuko den, proiektuen finantzaketa-bide berriak bultzatuko diren (banku-etikoa, mikrokredituak...)...</p> <p>Oarsoaldeko 2025 Plan Estrategikoaren baitan biltzen da ekintza hau: L.2.9.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Oarsoaldeko Garapen Agentzia	Beste arduradunak	
Gaia	09. UDALARENK EZ DIREN ERAKUNDEEN INGURUMEN KUDEAKETA	Aalborg konpromisoa	8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		9- INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA	

<b>6.3.1</b>	<b>Sektorearen egituraketa landu, itsasoarekin eta itsasertzarekin lotutako sektore guztietako erabilerak eta profesionalak bilduz</b>		
<b>PROGRAMA</b>	6.3 Pasaia itsasoarekin lotutako ekonomiaren dibertsifikazioa, modernizazio teknologikoa eta berrikuntza sustatu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaian, zein eskualdean, itsasoarekin zerikusia duten sektoreen aukera zabala denez, manipulaziora zuzenduta daudenak, salgaien garraio eta logistikara, portuetako zerbitzuak, handikariak eta arraina eraldatzen dutenak, ontziolak, ontzigitzako industria laguntzailea, ingeniariak, prestakuntza, ikerketa zentroak, ondarea, turismoa, urpekariak...; eskualde mailan Garapen Agentziak, Oarsoaldean itsasoarekin lotutako eragile publiko eta pribatuen elkartearen Kluster-ean bildu nahi ditu. Prozesu honetan, Pasaia erdigunea edo eragile nagusia izan behar du, klusterrean presentzia zentrala izanez.</p> <p>Oarsoaldeko 2025 Plan Estrategikoaren baitan biltzen da ekintza hau: L.1.1.</p>			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Baxua
Kostua			
Arduradun nagusia	Oarsoaldeko Garapen Agentzia	Beste arduradunak	
Gaia	17. GARAPEN EKONOMIKOA	Aalborg konpromisoa	8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		14- ITSASPEKO BIZITZA	

<b>6.3.2</b>	<b>Teknologia/Berrikuntza/sustapen eta jardueren sorkuntzarako eremuak garatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	6.3 Pasaia itsasoarekin lotutako ekonomiaren dibertsifikazioa, modernizazio teknologikoa eta berrikuntza sustatu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaian itsasoaren eta portuaren inguruko ikerketarako eta prestakuntzako erakundeen arteko potentzialtasunak elkarlanean garatzea da helburua, Pasaia Portuko Plan bereziaren barnean portuan polo edo hub bat txertatuz. Horretarako Itsasoko polo teknologikoa osatzea aurreikusten da, baita ezagutzaren eragileen artean (Don Bosco, AZTI, Blas Lezo, TKNIKA...) sinergien sorrera bultzatzea, eta itsasoko ikerketa zientifikoaren hedapen-eremua ezagutarazi eta duen garrantzia komunikatu.</p> <p>Oarsoaldeko 2025 Plan Estrategikoaren baitan biltzen da ekintza hau: L.1.2.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Oarsoaldeko Garapen Agentzia	Beste arduradunak	
Gaia	17. GARAPEN EKONOMIKOA	Aalborg konpromisoa	8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		14- ITSASPEKO BIZITZA	

<b>6.3.3</b>	<b>Itsasoarekin lotutako produktuen/zerbitzuen balio erantsia handitu eta ezagutzera eman</b>		
<b>PROGRAMA</b>	6.3 Pasaia itsasoarekin lotutako ekonomiaren dibertsifikazioa, modernizazio teknologikoa eta berrikuntza sustatu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaian arraina deskargatzeko (itsasotik edo errepidetik) eta merkaturatzeko puntu garrantzitsua delarik, produktu hau prestatu edo eraldatzeko ahalmena ahula denez hau sustatzea izango litzateke helburua. Horretarako, arraina prestatzeko eta eraldatzeko lantegi edo enpresen babestea ziurtatu behar da. Era berean, ontzi-industriaren kasuan ontzitegiak eta huen eremuak egotea bermatu eta sustatu behar dira.</p> <p>Oarsoaldeako 2025 Plan Estrategikoaren baitan biltzen da ekintza hau: L.1.3.</p>			
Epea	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Baxua
Kostua			
Arduradun nagusia	Oarsoaldeako Garapen Agentzia	Beste arduradunak	
Gaia	17. GARAPEN EKONOMIKOA	Aalborg konpromisoa	8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		14- ITSASPEKO BIZITZA	

<b>6.3.4</b>	<b>Itsasoko jardurekin zerikusia duen prestakuntza sustatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	6.3 Pasaia itsasoarekin lotutako ekonomiaren dibertsifikazioa, modernizazio teknologikoa eta berrikuntza sustatu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaia itsasoarekin zerikusia duten lanbide-prestakuntzako espezialitateen protagonista izatea da helburua. Horretarako, Garapen Agentziatik, Blas de Lezo Pasaia Itsas Arrantza BHLren prestakuntza-eskaintza zabaltzeko eta sustatzeko aukerak aztertzea bultzatuko da; aldi berean, Don Boscok itsasoaren arloan duen potentziala garatzea bultzatuko da; eta nabigazio tradizionalako eskola abian jartzea, Pasai Donibanen (Santiago Plazan) kokatuko dena arraun- eta bela-ontzi tradizionalak erabiliko dituen.</p> <p>Oarsoaldeako 2025 Plan Estrategikoaren baitan biltzen da ekintza hau: L.1.4.</p>			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua	>80.000 €		
Arduradun nagusia	Oarsoaldeako Garapen Agentzia	Beste arduradunak	
Gaia	17. GARAPEN EKONOMIKOA	Aalborg konpromisoa	8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		14- ITSASPEKO BIZITZA	

<b>6.3.5</b>	<b>Lehendik dagoen itsas ondarearen bultzada eta baliabide berriak sustatu eta Itsasoko baliabideen babes eta aprobetxamendu iraunkorra bermatu Pasaian</b>		
<b>PROGRAMA</b>	6.3 Pasaia itsasoarekin lotutako ekonomiaren dibertsifikazioa, modernizazio teknologikoa eta berrikuntza sustatu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Lehendik dauden ekipamenduak sustatzea, zabaltzea, baliabideak dibertsifikatzea eta baliabide berriak balioestea, da xedea. Honako itsas ondareen erakusleihu direnak landu behar dira, alde batetik Albaola Itsas Kultur Faktoria, bestetik Mater Museoa, bere ItsasGela eta ItsasGune-Pasaiako Badiako Itsas Baliabideen Zentroa -Mater Museoaren ekimena, museo komunitarioaren sorrera proposatzen duena, itsas baliabide materialak (objektuak, argazkiak...) eta ez materialak (testigantzak, abestiak...) bildu, mantendu eta hedatuko dituenak, eta Jaizkibel draga.</p> <p>Oarsoaldeako 2025 Plan Estrategikoaren baitan biltzen da ekintza hau: L.1.5. eta L.1.6.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua	>80.000 €		
Arduradun nagusia	Oarsoaldeako Garapen Agentzia	Beste arduradunak	
Gaia	17. GARAPEN EKONOMIKOA	Aalborg konpromisoa	8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		14- ITSASPEKO BIZITZA	

## **7. ILDO ESTRATEGIKOA:**

**EUSKARA ETA KIROL MAILAN UDALERRI AKTIBO ETA  
DINAMIKOA IZATEKO TRESNAK ESKAINI**



<b>7.1.1</b>	<b>Pasaiaiko aisialdia, eskola orduz kanpoko jarduerak euskaraz eskain daitezten baliabideak jarri eta hauek aurrera eraman</b>		
<b>PROGRAMA</b>	7.1 Pasaian euskararen ezagutza eta erabilera handitzeko lanean jarraitu sektore eta pertsona guztiei euskaraz aritzeko aukera emanez		
<b>Deskribapena:</b>			
Pasaiaiko Euskara Plan Estrategikoaren baitan jasotako ildoetako bat da. Ekintza honen helburua, Pasaian eskaintzen den aisialdia euskaraz egitea da, horretarako udalak beharrezko baliabideak jarriko dituelarik. Ekintza honen baitan ondorengo jarduerak eramango dira aurrera: hezitzaileentzako hizkuntza estrategien prestakuntza, elkarten konpromisoen jarraipena, erreferenteen bisitak, gurasoen eskaera lantzeko ekimenak,...			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
Kostua	35.000-50.000 €		
Arduradun nagusia	Euskara	Beste arduradunak	
Gaia	13. EUSKARA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		4- KALITATEZKO HEZKUNTZA	

<b>7.1.2</b>	<b>Merkataritza eta ostalaritzan euskararen presentzia gehitzeko ekimenak martxan jarri</b>		
<b>PROGRAMA</b>	7.1 Pasaian euskararen ezagutza eta erabilera handitzeko lanean jarraitu sektore eta pertsona guztiei euskaraz aritzeko aukera emanez		
<b>Deskribapena:</b>			
Pasaiaiko Euskara Plan Estrategikoaren baitan jasotako ildoetako bat da. Ekintza honen helburua, Pasaian dauden merkataritza eta ostalaritza establezimenduetan euskararen erabilera handitzea da, horrela herritarrengan ere eragina izango duelarik.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	15.000-35.000 €		
Arduradun nagusia	Euskara	Beste arduradunak	
Gaia	13. EUSKARA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		4- KALITATEZKO HEZKUNTZA	

7.1.3		Lan mundua euskalduntzeko bideak eta estrategiak probatu	
PROGRAMA	7.1 Pasaian euskararen ezagutza eta erabilera handitzeko lanean jarraitu sektore eta pertsona guztiei euskaraz aritzeko aukera emanez		
Deskribapena:			
Pasaiaiko Euskara Plan Estrategikoaren baitan jasotako ildoetako bat da. Ekintza honen helburua, Pasaiaiko lan mundua euskalduntzea da, horretarako estrategia desberdinak jarriko direlarik martxan.			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	35.000-50.000 €		
Arduradun nagusia	Euskara	Beste arduradunak	
Gaia	13. EUSKARA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		4- KALITATEZKO HEZKUNTZA	

7.1.4		Euskara ikasteko eskaintza osatu eta jendea animatu	
PROGRAMA	7.1 Pasaian euskararen ezagutza eta erabilera handitzeko lanean jarraitu sektore eta pertsona guztiei euskaraz aritzeko aukera emanez		
Deskribapena:			
Pasaiaiko Euskara Plan Estrategikoaren baitan jasotako ildoetako bat da. Ekintza honen bidez, Pasaina bizi den herritar orok euskaraz irakurri eta idazten ikasteko aukera eskaintzea da, hau da, udalak euskara ikasteko erraztasunak eman behar ditu egokiak diren baliabideak aurreikusiz. Horretarako, Pasaiaiko Euskara Plan Estrategikoan jasotako jarduerak eramango dira aurrera: matrikulazio kanpaina, diru-laguntzak banatu, mintzalaguna.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	50.000-80.000 €		
Arduradun nagusia	Euskara	Beste arduradunak	
Gaia	13. EUSKARA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		4- KALITATEZKO HEZKUNTZA	

<b>7.1.5</b>	<b>Euskararen lan markoa garatzen jarraitu: Euskararen Plan Estrategikoa</b>		
<b>PROGRAMA</b>	7.1 Pasaian euskararen ezagutza eta erabilera handitzeko lanean jarraitu sektore eta pertsona guztiei euskaraz aritzeko aukera emanez		
Deskribapena:			
Ekintzaren helburua 2010-2020ra arteko Pasaiaiko Euskararen Plan Estrategikoa garatzen jarraitzea da, aurretik aipatutako lan ildoaz gain, Planak jasotzen dituen beste lan ildoak ere garatuz.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	>80.000 €		
Arduradun nagusia	Euskara	Beste arduradunak	
Gaia	13. EUSKARA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		4- KALITATEZKO HEZKUNTZA	

<b>7.1.6</b>	<b>Udaleko V. Euskara Erabilera Plana (2018-2022) gauzatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	7.1 Pasaian euskararen ezagutza eta erabilera handitzeko lanean jarraitu sektore eta pertsona guztiei euskaraz aritzeko aukera emanez		
Deskribapena:			
Ekintzaren helburua euskara udalaren lan-hizkuntza izan dadin lortzea da. Horretarako Udalak daukan V. Euskara Erabilera Plana garatuko da 2018 eta 2022 urteen artean, bertako ekintzak aurrera eramanez, urtero urteko plangintza osatuz.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Euskara	Beste arduradunak	
Gaia	13. EUSKARA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		4- KALITATEZKO HEZKUNTZA	

<b>7.1.7</b>	<b>Herritarren aktibazioa eta erakundeen konpromisoak sustatu EUSKARALDIA bezalako ekimenen bitartez</b>		
<b>PROGRAMA</b>	7.1 Pasaian euskararen ezagutza eta erabilera handitzeko lanean jarraitu sektore eta pertsona guztiei euskaraz aritzeko aukera emanez		
<b>Deskribapena:</b>			
Ekintzaren helburua herritarrek euskara erabiltzea eta erakundeek erabiltzeaz gain erabileraren gaineko konpromisoa hartzea da. Horretarako ezinbestekoa da berauek aktibatzea, eta Euskaraldian parte hartzea izan daiteke aktibatze modu bat. Pasaia udalak Euskaraldia ekimenaren zabalkundea egiten du, bai udal barnean baita herritarren artean ere.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
Kostua	15.000-35.000 €		
Arduradun nagusia	Euskara	Beste arduradunak	
Gaia	13. EUSKARA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		4- KALITATEZKO HEZKUNTZA	

<b>7.2.1</b>	<b>Herri aktiboagoa eta osasuntsuagoa sustatu: Herritarren artean kirola eta jarduera fisikoa praktikatzea sustatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	7.2 Pasaia Badia Aktiboa landu, guztiontzat eta adin guztietarako bizimodu osasungarria bermatuz		
<b>Deskribapena:</b>			
Ekintza honen bidez Pasaitar guztiek bizimodu aktiboagoa eta osasuntsuagoa izatea lortu nahi da, horretarako, Udalak Pasaia Badia Aktiboa programaren atal gisa jarduera fisikorako eta kirolerako martxan jarri duen orientazio zerbitzua eramango du aurrera eta beharrezko baliabide tekniko, pertsonak eta ekonomikoak eskura jarriko ditu. Orientaziorako zerbitzu honek ondorengo betebeharrak izango ditu:			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gaian aditua den orientatzailea egonen da argibideak emateko</li> <li>- Iristen diren zuzeneko kontsultei nahiz ikastetxe, anbulatorio, kiroldegi eta gizarte zerbitzuetatik iristen diren kontsultei erantzua</li> <li>- Eskatzailearen ezaugarrien araberrako gomendioak egitea eta eskualdean diren baliabide eta zerbitzuak kontuan izaniko aukerak eskaintzea</li> </ul>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
Kostua	15.000-35.000 €		
Arduradun nagusia	Jarduera Fisikoa eta Kirola	Beste arduradunak	
Gaia	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		3- OSASUNA ETA ONGIZATEA	

<b>7.2.2</b>	<b>Kirol ekipamenduen diagnosi bat egin, hauen egoera, gabeziak... detektatu eta konpontzeko</b>		
<b>PROGRAMA</b>	7.2 Pasaia Badia Aktiboa landu, guztiontzat eta adin guztietarako bizimodu osasungarria bermatuz		
<b>Deskribapena:</b>			
Ekintzaren helburua Pasaia kirol ekipamenduen egungo egoera hobetzea eta dauden gabeziei erantzun ematea da. Horretarako beharrezkoa da dauden kirol ekipamenduen diagnosi bat egitea, bakoitzaren egoera eta beharrak identifikatuz eta ekipamenduen gabeziak detektatuz. Ondoren lehentasunen arabera konponketa edo hobekuntza jarduerak eginen dira.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Jarduera Fisikoa eta Kirola	Beste arduradunak	Hirigintza
Gaia	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		3- OSASUNA ETA ONGIZATEA	

<b>7.2.3</b>	<b>Eskualdeko Kirol Txartel bateratua (Bazkide Txartela) sortu eta zabaldu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	7.2 Pasaia Badia Aktiboa landu, guztiontzat eta adin guztietarako bizimodu osasungarria bermatuz		
<b>Deskribapena:</b>			
Pasaia dituen muga orografikoak eta kirol ekipamenduen gabeziak direla eta, bertako bizilagunak inguruko herrietako ekipamenduak erabili ohi ditu. Errealitate honen aurrean, eta bizilagunen jarduera fisiko eta kirol esperientziak hobetzeko helburuarekin, bazkide txartel unifikatu bat bultzatu nahi da. Bai eskualdeko eta baita Donostiako auzoetako (batik bat Altza) kirol ekipamendu eta instalazioen (kiroldegia, futbol zelaiak, jarduera fisikoko ikastaroak, igerilekuak...) erabilera egiteko Pasaia herritarrei erraztasunak eskainiz.			
Ekintza aurrera Oarsoaldeko eta Donostialdeko Udal Kirol arduradunekin elkarlanean eramanen da.			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Altua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Jarduera Fisikoa eta Kirola	Beste arduradunak	
Gaia	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		3- OSASUNA ETA ONGIZATEA	

<b>7.3.1</b>	<b>Baloretan oinarririko kirol eredu bat sustatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	7.3 Pasaian baloretan oinarritutako Jarduera Fisikoa eta Kirola sustatu		
Deskribapena:			
Pasaian egiten den kirola jarduera fisikoa udalaren baloretara egokitzea da ekintzaren helburua. Horretarako Pasaiaiko Udalak gain hartzen dituen baloreak identifikatu, idatziz jaso eta komunikatu egin beharko dira, eta kirol jarduera desberdinetan balore hauen ezagutza zabaldu, bai entrenatzaile, kirolari baita ikusleei ere.			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua			
Arduradun nagusia	Jarduera Fisikoa eta Kirola	Beste arduradunak	
Gaia	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		3- OSASUNA ETA ONGIZATEA	

<b>7.3.2</b>	<b>Eskola kirola modu bateratuan lantzen jarraitu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	7.3 Pasaian baloretan oinarritutako Jarduera Fisikoa eta Kirola sustatu		
Deskribapena:			
Iraunkorturik dagoen ekintza bat izan arren, hau da, Udaletik modu sistematikoan eskola kirola Hezkuntza eta beste hainbat sailen artean modu partekatuan lantzen den arren; ekintza honen gakoa horrela izaten jarraitzeaz gain, dagokion kasuetan beharrezko diren sail edo arlo desberdinetako arduradunen kolaborazioa bermatzea da. Esaterako, eskola kirolaren ekintza berezietan, espazio publikoaren erabilera dela eta, udaltzaingoa edo zerbitzu buruaren lankidetzeta eta parte hartzea sustatuko dira hauen antolakuntzan.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	35.000-50.000 €		
Arduradun nagusia	Jarduera Fisikoa eta Kirola	Beste arduradunak	
Gaia	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		3- OSASUNA ETA ONGIZATEA	

<b>7.3.3</b>	<b>Kirolean euskaraz aritzeko baliabideak jarri</b>		
<b>PROGRAMA</b>	7.3 Pasaian baloreetan oinarritutako Jarduera Fisikoa eta Kirola sustatu		
<b>Deskribapena:</b>			
Pasaiaiko Udalarentzat, jarduera fisikoa eta kirola praktikatzeko garaian ere euskararen presentzia eta erabilera indartzea dira helburu. Horretarako sentsibilizazio kanpainak, kirolean euskaraz jardunaldiak eta beste hainbat ekintza garatzea aurreikusten da.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Jarduera Fisikoa eta Kirola	Beste arduradunak	Euskara
Gaia	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		3- OSASUNA ETA ONGIZATEA	

<b>7.3.4</b>	<b>Kirol eskaintza dibertsifikatu bat ziurtatu eta kirol minorizatuak ezagutzera eman</b>		
<b>PROGRAMA</b>	7.3 Pasaian baloreetan oinarritutako Jarduera Fisikoa eta Kirola sustatu		
<b>Deskribapena:</b>			
Pasaiaik Kirol eta jarduera fisikorako eskaintza aniztasuna dagoela ezagutzera eman nahi da, hauek praktikatzeko, edo gutxienez ezagutzeko aukera edukitzeko helburuarekin.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Jarduera Fisikoa eta Kirola	Beste arduradunak	
Gaia	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		3- OSASUNA ETA ONGIZATEA	

<b>7.3.5</b>	<b>Begirale, entrenatzaile, etab.-en formakuntza tekniko egin, baina batez ere baloreetan oinarrituriko formakuntza sustatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	7.3 Pasaian baloreetan oinarritutako Jarduera Fisikoa eta Kirola sustatu		
<b>Deskribapena:</b>			
7.3.1. ekintzarekin paraleloan, eta baloreetan oinarrituriko kirol eredu bat sustatzeko helburuarekin, beharrezkoa da kirol eremuan eredu diren begirale, entrenatzaile, maisu.. Formakuntza tekniko zein baloreetan oinarrituriko formakuntza etengabea gauzatzea, beraiek gero kirola praktikatzeko dutenei islatuko diotenez gero.			
<b>Epea</b>	Laburra (2019-2020)	<b>Lehentasuna</b>	Baxua
<b>Kostua</b>	0-3.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Jarduera Fisikoa eta Kirola	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Gaia</b>	10. OSASUNA	Aalborg konpromisoa	7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		3- OSASUNA ETA ONGIZATEA	

## **8. ILDO ESTRATEGIKOA:**

**PERTSONAK ARDATZ IZANIK, ONGIZATEA, BERDINTASUNA ETA  
OINARRIZKO ZERBITZUETARA SARBIDEA BERMATU**



<b>8.1.1</b>	<b>Gizarte zerbitzuetan Udalak egiten duen lana komunikatu eta ezagutzera eman</b>		
<b>PROGRAMA</b>	8.1 Pertsona guztiak gizarte zerbitzuetarako sarbidea izan dezaten bermatu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ekintzaren helburua Pasaiaiko gizarte zerbitzuen aukerak egoki komunikatzea da, zerbitzuen eskuragarritasuna hobetuz. Horretarako ondorengoak egiten da, besteak beste:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zerbitzuaren behar gehien duten auzo eta guneak identifikatu</li> <li>- Gerturatzeko modu egokienak aztertu, esaterako zerbitzu hauen bulego edo herritarrekiko harreman puntuek barruti bakoitzean presentzia izatea (astean behin, gutxienez).</li> </ul> <p>OHARRA: Gastua komunikazio hedabideetako materialari dagokio</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Gizarte zerbitzuak	Beste arduradunak	
Gaia	11. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		1- POBREZIA DESAGERRARAZTEA	

<b>8.1.2</b>	<b>Hirugarren adineko pertsonen zuzenduriko gizarte zerbitzuen eta bereziki Eguneko Arretarako Zentron deszentralizazioa burutu (barrutietan presentzia izatea)</b>		
<b>PROGRAMA</b>	8.1 Pertsona guztiak gizarte zerbitzuetarako sarbidea izan dezaten bermatu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Hirugarren adineko pertsonen zuzenduriko Gizarte zerbitzuen eskuragarritasuna zein irisgarritasuna lantzea du ekintzak helburu. Gaur egun zein datozen urteotan, hirugarren adineko pertsonen zuzenduriko zerbitzuen sarbidea, eskuragarritasuna eta irisgarritasuna lantzea. Horretarako, Eguneko Arretarako Zentron deszentralizazioa proposatzen da, hau da, distritu bakoitzean honelako zentro bat izatea bilatu nahi da; edo gutxienez Eguneko Arretarako bi zentro berri irekitzea, bertan hirugarren adineko pertsonen autonomia eta ongizatea lantzen jarraitzeko.</p> <p>OHARRA: Antxokoarekin aurten hasiko gara, diseinua eta lokala aukeratzeko. Trintxerpekoa epe luzerako da (Adin Berri proiektuarekin lotuta dagoelako). Gastua lokalak erosi eta atontzeari dagokio.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	>80.000 €		
Arduradun nagusia	Gizarte zerbitzuak	Beste arduradunak	
Gaia	11. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		1- POBREZIA DESAGERRARAZTEA	

<b>8.1.3</b>	<b>Udalak inklusioaren arloan estali ezin dituen gizarte zerbitzuen beharrak eskualde edo inguruko herrien bitartez bideratu (lankidetz)</b>		
<b>PROGRAMA</b>	8.1 Pertsona guztiek gizarte zerbitzuetarako sarbidea izan dezaten bermatu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Udalaren tamaina eta egiturak direla eta, badira, batik bat, inklusioaren arloan estali gabe geratzen diren beharrak. Hori honela izanik, ekintza honen helburua da eskualde mailan lan egiten jarraitzea, modu kolektiboan behar hauei erantzuna emateko. Dagoeneko badute batzorde bat, Gizarte Zerbitzuen jarraipena egiteko eskualde mailako lan taldea, inklusioaren inguruko gaiak eskualde mailan landu eta hauei erantzuna emateko erreminta edo konponbideak modu bateratuan garatzeko. Adibidez, etxebizitza eskusioan dauden pertsonen lotarako aterpe edo ostatu bat eskaini ahal izateko, Pasaian dauden baliabideak ez dira nahikoak bertatik pasatzen diren pertsona kopuruarekin alderatuz, beraz, eskualde mailan honi lagunduko dion irtenbide edo aukerak planteatzea eta aurrera eramatea izango litzateke, esterako, partekatutako aterpe bat irekitzea.</p> <p>OHARRA: dagoeneko lanean gaude, eta gastu bat izango du etorkizunean. Jarritakoa aurreikuspen bat baino ez da, momentuz ez dakigu zein izango den.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	50.000-80.000 €		
Arduradun nagusia	Gizarte zerbitzuak	Beste arduradunak	Gizarte Zerbitzuen Jarraipen Batzordea
Gaia	11. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		1- POBREZIA DESAGERRARAZTEA	

<b>8.1.4</b>	<b>Adin txikiko pertsonen babesa bermatzeko lan egiten jarraitu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	8.1 Pertsona guztiek gizarte zerbitzuetarako sarbidea izan dezaten bermatu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Gizarte zerbitzuetatik lantzen den pertsona taldeetako bat izanik - hirugarren adineko pertsonekin eta eskusioan dauden pertsonekin batera-, ekintza honen helburua Pasaian pertsona multzo honen babesa lantzea da.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
Kostua	>80.000 €		
Arduradun nagusia	Gizarte zerbitzuak	Beste arduradunak	Sailen arteko lan taldea
Gaia	11. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		10- DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	

<b>8.2.1</b>	<b>Harrera protokoloa hedatu eta komunikatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	8.2 Pasaia harrera herria izan dadin migrazioa erraztu		
Deskribapena:			
<p>Pasaia udalean aurrez aurreko, internet bidezko zein telefono bidezko arreta zerbitzu bat gauzatu da. Ekintzaren helburua Pasaia datorren orori arreta egokia bermatzea da. Horretarako ezarri den zerbitzua protokolizatu egingen da eta berau modu egokian gauzatzen dela ziurtatu.</p> <p>OHARRA: dagoeneko hasi gara. Gastua, urteroko gutxi gora-beherako gastua.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Migrazioa	Beste arduradunak	Gizarte Zerbitzuak
Gaia	11. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		10- DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	

<b>8.2.2</b>	<b>Kanpotik etorritako pertsonen gizarteratzeari arreta berezia eman eta hauek herrian integratzea bultzatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	8.2 Pasaia harrera herria izan dadin migrazioa erraztu		
Deskribapena:			
<p>Migranteak Pasaia datozen pertsonen multzo handi bat direla kontuan izanik, hauei arreta berezia eskaintzea garrantzitsua da beraien gizarteratze prozesuan. Esaterako, Udalak bultzatzen duen harrera zerbitzuaren arrakasta dela eta, mota honetako programak etorkin guztiei ezagutzera emango zaie eta hauek bertan parte hartzea sustatu; harreman pertsonalizatu bat eskaini; herriak-udalak eskaintzen dituen baliabide eta aukerak azaldu eta hauetarako sarbidean lagundu-aholkatu....</p> <p>OHARRA: dagoeneko hasi gara. Gastua, urteroko gutxi gora-beherako gastua.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Migrazioa	Beste arduradunak	Gizarte Zerbitzuak
Gaia	11. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		10- DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	

<b>8.2.3</b>	<b>Bertako biztanleekin sentsibilizazioa egin, kanpotarren integrazioa "arazo" bezala hautematea ekiditeko</b>		
<b>PROGRAMA</b>	8.2 Pasaia harrera herria izan dadin migrazioa erraztu		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaian kanpotarren presentziak kutsu negatiborik izan ez dezan bultzatu nahi da. Horretarako, aurreiritziak ezabatzeko sentsibilizazio eta komunikazio kanpainak garatu behar dira, baita ekintza zehatzak ere. Esaterako, herriko komunikazio kanaletan Pasaia erorri diren kanpotarren bizipenak, zergatiak, Pasaia aukeratzeko arrazoiak... azaldu eta ezagutzera eman irratian, sare-sozialetan...; ekitaldiak egin bertako eta kanpotarren ohiturak ezagutzera eman eta partekatzeko, Pasaia bizilagunak (lagun taldeak) etorkinei harrera errazteko integrazioa bultzatzeko ekimenak: "lagun etorkinekin" elkarte gastronomikoetan afariak bultzatu....</p> <p>OHARRA: dagoeneko kanpaina diseinatu dugu eta hasita gaude, baina garatu gabe.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	0-3.000 €		
Arduradun nagusia	Migrazioa	Beste arduradunak	Gizarte Zerbitzuak
Gaia	11. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		10- DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	

<b>8.3.1</b>	<b>Berdintasuna Udaletxetik modu transbertsanean lantzen jarraitu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	8.3 Berdintasun egoerara heltzeko bitartekoak jarri		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaia Udalean Berdintasun saila egon badago ere, ezinbestekoa da berdintasuna modu transbertsanean sail guztiekin eta guztietatik lantzea. Ondoren aurkezten den ekintzarekin batera, Udalak bere osotasunean berdintasunean aritzeko helburuarekin. Esaterako, zeharkakotasuna lantzeko talde baten bitartez, udal teknikariak zein politikoak formatzen eta informatzen berdintasunaren arloan, horrela jasotako formazio horrekin gero ikuspegi hau helarazi dezaten. Bestalde, Udalaren Plan ezberdinetan berdintasunaren ikuspegia txertatu behar da; hizkuntza ez sexista erabiliko da Udalaren komunikazio guztietan (gutunak, planak, sare-sozialak...)...</p> <p>Ekintza aurrera eramateko ezinbestekoa da udal osoaren inplikazioa.</p>			
Epea	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua	>80.000 €		
Arduradun nagusia	Berdintasuna	Beste arduradunak	
Gaia	24. BERDINTASUNA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		5- GENERO BERDINTASUNA	

<b>8.3.2</b>	<b>Udal ekimenetan berdintasuna landu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	8.3 Berdintasun egoerara heltzeko bitartekoak jarri		
Deskribapena:			
Pasaiako Udalaren helburuetako bat da, udaleko egunerokotasunean berdintasunez aritzea, eta honekin batera, berdintasunaren aurkako ekintzak ezabatzea. Esaterako, berdintasun protokolo bat eratzea eta udalean txertatzea, kriterio bateratu batzuen bitartez, udaleko sistema bera aldatu ahal izateko.			
Epea	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua	>80.000 €		
Arduradun nagusia	Berdintasuna	Beste arduradunak	
Gaia	24. BERDINTASUNA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		5- GENERO BERDINTASUNA	

<b>8.3.3</b>	<b>Berdintasun Plana egonkortu eta dagokionean berrikusi</b>		
<b>PROGRAMA</b>	8.3 Berdintasun egoerara heltzeko bitartekoak jarri		
Deskribapena:			
Pasaiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I.Plana 2016-2020, egonkortzea eta berrikustea, honen jarraipena zein funtzionamendu egokia bermatuz, dira helburua. Plana Udalaren ezinbesteko tresna izateko sortu da, generoaren ikuspuntutik eta ikuspuntu feministatik garatua, eta Pasaiako Udalaren berdintasun politikak sistematizatu eta koordinatzea eta emakumeen eta gizonen berdintasunerantz egitea ditu helburu; egun dauden generoen arteko alaketak murriztuz eta desagerraraziz.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Ertaina
Kostua	50.000-80.000 €		
Arduradun nagusia	Berdintasuna	Beste arduradunak	
Gaia	24. BERDINTASUNA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		5- GENERO BERDINTASUNA	

<b>8.4.1</b>	<b>Haur eta nerabeekin sortutako ekintza planaren jarraipena egin</b>		
<b>PROGRAMA</b>	8.4 Haur, nerabe eta gazteen eskubideak bermatu eta beharrak ase		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaiako herriak haurren eta nerabeen aldeko konpromiso irmoa dauka; adingabekoen eskubideen defentsan. Ekintzaren helburua herriko adin txikikoak udalarentzat lehentasunezko populazio multzo izatea bermatuko duen plangintza aurrera eramatea da, hainbat sailetatik elkarlanean haur eta nerabeei zuzentzen diren egitasmo eta ekintzak gauzatzea eta Plan honen jarraipena egitea. Jarraipen honek ahalbidetuko du Plana betetzen ari dela baieztatzea, baita Planaren garapenena sortu diren oztupoak zein diren identifikatzea, eta hauetatik abiatuta zein ekintza errepikatu, birmoldatu edo eta ezabatu behar diren ondorioztatuko da. Horretarako daukaten plangintza aurrera eramango dute, hainbat sailetatik elkarlanean haur eta nerabeei zuzentzen diren egitasmo eta ekintzak gauzatuz, lehentasunen arabera.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
Kostua	35.000-50.000 €		
Arduradun nagusia	Haur eta Nerabeen Planaren Koordinatzailea	Beste arduradunak	Sailarteko lan taldea
Gaia	11. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		10- DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	

<b>8.4.2</b>	<b>Haur eta nerabeen parte hartze foroen sustapena eta jarraipena egin</b>		
<b>PROGRAMA</b>	8.4 Haur, nerabe eta gazteen eskubideak bermatu eta beharrak ase		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Haur eta nerabeen parte hartze planarekin batera, hauek aurrera eramateko foroak bultzatzea eta hauen jarraipena egitea dira helburua. Horretarako, foroak aurrera eramanez direla bermatzeaz gain, hauen funtzionamendua egokia izan den edo ez ere aztertuko da, hauen jarraipena eginez, eta foro hauen garapen egokirako beharrezko neurriak hartuko dira.</p> <p>Foro hauetan udaleko gai desberdinak landuko dira; ingurumena, hirigintza, euskara, gizartea, kirola, zerbitzuak... Horrez gain, Tokiko Agenda 21aren jarraipenean ere parte hartu dezakete foro hau osatzen duten kideek. Horrela urteko TA21aren ebaluazio emaitzak azaldu ahal zaizkie eta beraiekin landu zein ekintza jarri daitezkeen martxan eta zein modutan.</p>			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
Kostua	50.000-80.000 €		
Arduradun nagusia	Haur eta Nerabeen Planaren Koordinatzailea	Beste arduradunak	Sailarteko lan taldea Ingurumena
Gaia	11. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		10- DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	

<b>8.4.3</b>	<b>Haur eta nerabeen parte hartzea bermatzeko sistemaren antolaketa udal barnean garatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	8.4 Haur, nerabe eta gazteen eskubideak bermatu eta beharrak ase		
<b>Deskribapena:</b>			
Haur eta nerabeen parte hartzea bultzatzeko, foroak sortu eta hauen asistentzia eta garapen egokiaz gain, haur eta nerabeen ikuspegia, ideia eta ekarpenak, udalean barneratzeko eta kontuan izateko sistema bat sortu behar da. Horretarako, udaleko barne funtzionamenduan non eta nola txertatu aztertuko da, eta haur eta nerabeen ikuspegia barneratzeko protokolo edo antzeko erreminta bat garatuko da.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
Kostua	15.000-35.000 €		
Arduradun nagusia	Haur eta Nerabeen Planaren Koordinatzailea	Beste arduradunak	Sailarteko lan taldea
Gaia	11. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		10- DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	

<b>8.4.4</b>	<b>Haurrek egindako lehentasunezko proposamenak adosteko eta eztabaidatzeko konpromiso politikoa bermatu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	8.4 Haur, nerabe eta gazteen eskubideak bermatu eta beharrak ase		
<b>Deskribapena:</b>			
Haurrekin egindako lanketa ezerezean geratu ez dadin, ezinbestekoa da Udaletik foro honi dagokion estatusa ematea. Horrela, Haurren lehentasunak politikoki aztertu eta tratu lagungarri bat ematea bultzatuko da.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Altua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Haur eta Nerabeen Planaren Koordinatzailea	Beste arduradunak	Sailarteko lan taldea
Gaia	11. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		10- DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	

<b>8.4.5</b>	<b>Haur, Nerabe eta Gazteen ekipamenduak hobetu; baita bertako zerbitzu zein programak ere</b>		
<b>PROGRAMA</b>	8.4 Haur, nerabe eta gazteen eskubideak bermatu eta beharrak ase		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Pasaiako haur, nerabe eta gazteen zerbitzura dauden eraikinak zein programak etengabe hobetzen eta beraien beharretara egokitzen joatea eta beharrezko beste programa edo eraikinak sortzea da ekintzaren helburua. Horretarako, lehenik kolektibo honi zuzenduriko eraikinen diagnostiko bat egitea beharrezkoa da, ekipamenduen eta bertako programen egora eta gabeziak identifikatu eta lan egiteko lehentasunak definitzeko asmoz. Ondoren, lehentasunen arabera neurriak edo ekintzak jarriko dira martxan. Ez da soilik ekipamendu hauek eraberritzea eta egokitzea, baizik eta espazio itxi hauen eskura egongo diren eremu irekiak berreskuratzea edo egokitzea, hau da haur, nerabe eta gazteen ekipamenduetan kanpoaldean eremu irekiak izan ditzaten (patio edo jolastokiak). Aldi berean, oso garrantzitsua da ekipamenduak ongi dimentsionatzea, txikiak geratu ez daitezela. Esaterako, egungo Ludotekaren egoera larria delarik -batez ere Donibane eta Trintxerpe-San Pedrokoen kasuetan, barrera arkitektoak gainditu beharko dira (irisgarritasun planarekin batera) eta ahal den neurrian ere, ekipamendu hauei behar duten zentralitatea edo irisgarritasuna eman behar zaie, leku zentrikoetan kokatuz edo hauetarako sarbideak egokituz.</p> <p>Horrez gain, gazteen arteko ekintzaitza eta sormena garatzea sustatzeko gune bat sortzea ere baloratuko da.</p>			
<b>Epea</b>	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Ertaina
<b>Kostua</b>	>80.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Gazteria	Beste arduradunak	Haur eta Nerabeen Planaren Koordinatzailea Hirigintza Udaltzaingoa
<b>Gaia</b>	11. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>		10- DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	


<b>8.4.6</b>	<b>Belaunaldien arteko erlazioak sortzeko guneak bultzatu (gune fisikoak)</b>		
<b>PROGRAMA</b>	8.4 Haur, nerabe eta gazteen eskubideak bermatu eta beharrak ase		
<b>Deskribapena:</b>			
Adingabeko eta adin zaharreko pertsonen arteko harremanak bultzatzeko helburuarekin, espazio bat sortzea proposatzen da. Espazioa fisikoa sortu edo egokituko da, eta behin hau sortutakoan honen erabilera ezagutzera emateko eta bultzatzeko ekintzak eta egitasmoak aurrera eramango dira.			
Epea	Ertaina (2021-2023)	Lehentasuna	Altua
Kostua	>80.000 €		
Arduradun nagusia	Gazteria	Beste arduradunak	Gizarte zerbitzuak Haur eta Nerabeen Planaren Koordinatzailea
Gaia	11. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		10- DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	

<b>8.4.7</b>	<b>Gazteen Lokalen erregulazioa egin</b>		
<b>PROGRAMA</b>	8.4 Haur, nerabe eta gazteen eskubideak bermatu eta beharrak ase		
<b>Deskribapena:</b>			
Gaur egun gazte lokalek sortzen dituzten gatazkak gainditzeko helburuarekin, gazteekin beraiekin adostutako printzipio edo kriterio batzuk lantzea eta hauek jasotzea du helburu. Gai hau lantzeko udalak lanketa bat egin zuen -lokalekin harremanetan jarri, mahai bat sortu eta printzipioak eztabaidatu zein adostu ziren-. Lan hori berreskuratuko da eta honetatik abiatuz, lehendik zegoen ordenantza berrikusiko da eta gazteak, bizilagunak, etab. biltzen zituen mahaira berriro eramatea zein ordenantza onartu eta martxan jartzea proposatzen da.			
Epea	Laburra (2019-2020)	Lehentasuna	Baxua
Kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Gazteria	Beste arduradunak	Ingurumena
Gaia	11. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)		10- DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	

<b>8.4.8</b>	<b>Gazteen Etxebizitza beharren auzia aztertu eta konponmideak landu</b>		
<b>PROGRAMA</b>	8.4 Haur, nerabe eta gazteen eskubideak bermatu eta beharrak ase		
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Gazte segmentuaren behar nagusiak lana eta etxebizitza direnez, eta lana arlo honetatik kanpo geratzen denez, gazteen emantzipatzeko dituzten beharrak eta arazoak aztertzea eta hauen aurrean konponbideak edo alternatibak proposatzea da ekintzaren helburua. Honela, azterketa batetik abiatzea proposatzen da, Pasaian errealitate orokor honen egoera zehatzaren nondik norakoak definitzeko; behin errealitatea ezagututa, eta gazteekin batera, ekintza edo proposamen desberdinak planteatuko dira, arazo hau gainditzeko bide izango direnak. Etxebizitza politikak udalaz haratago daudenez, Diputazioa zein Etxebiderekin landu beharko den ekintza bat da.</p>			
<b>Epea</b>	Luzea (>2024)	Lehentasuna	Ertaina
<b>Kostua</b>	3.000-15.000 €		
<b>Arduradun nagusia</b>	Gazteria	Beste arduradunak	Hirigintza
<b>Gaia</b>	12. ETXEBIZITZA	Aalborg konpromisoa	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
<b>Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)</b>	10- DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA		

### 3.PASAIKO TOKIKO AGENDA 21aren JARRAIPIEN PROPOSAMENA

Proposatzen den planteamendu honek kontuan hartzen du Planaren **urteko kudeaketa-zikloa eta Udalsarea 21aren** eremuan (Euskadiko Iraunkortasunerako udalerrien Sarea) Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planen segimendurako adostutako metodologia. Pasaiak, TA21aren jarraipena eredu hau jarraituz burutu dezake, Erkidegoko herri guztientzako baliabideak eta metodologia komunak aprobetxatuz, eta datuak konparagarri eginez.




*Irudia:* Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planaren kudeaketa eredu (EAEko Tokiko Iraunkortasun Txostena, 2010/2011. Ihobe) oinarri hartua eta egokitua.

- Urtearen lehenengo hiruhilekoan Planaren **EBALUAZIOA** egingo da, bere ezarpen-maila neurtzeko eta, beharrezkotzat jotzen bada, Planaren eguneraketa egiteko (ekintzak birformulatu edo ekintza berriak sartu).
- Aldi berean, **IRAUNKORTASUN ADIERAZLEEN KALKULUA** egingo da, aurrera eramaten ari diren jarduerekin lortzen ari diren emaitzak neurtzeko.
- Urtearen azken hiruhilekoan, hurrengo urtean martxan jar daitezkeen jarduerak **PROGRAMATU**ko dira, lan hau **udal aurrekontuen lanketarekin** lotuta egongo delarik.

Jarraipenerako planteamendu honek Tokiko Agenda 21aren kudeaketa aktiboa sustatzen du eta gobernantza eredu berri bat eraikitzea ahalbidetzen du, Udala eta herritarren arteko zubiak eraikitzen lagunduz eta udal politiken kudeaketa parte hartzaileetarako bidea erraztuz. Honek, plan eta politika publikoen **kudeaketa eraginkorrean** jartzen du indarra eta administrazioaren **kontu ematera eta gardentasunera** bideratuta dago, Pasaiaiko Ekintza Planaren lehen lerro estrategikoarekin bat datorrena.


Barne zein herritarren parte-hartze mekanismoak kudeaketa eredu honetan txertatzen dira, planaren kudeaketa aktibo, integral eta parte hartzailea bermatuz. **Horretarako mahai egonkor desberdinak** osatuko dira, Ekintza Planean ere jasota daudenak, eta Iraunkortasun eta TA21eko arloaz arduratzen den teknikariak zubilanak eginen ditu hiru mekanismo hauen artean:



*Irudia:* Pasaiaiko parte hartze mekanismoak

Mahai hauez gain, sektore desberdinetako mahaiak ere sor daitezke udalean eta beraiek ere urteroko kudeaketa ereduan txertatu daitezke. Adibidez, **haur eta nerabeen Foroa**. Foro honekin ere herritarren foroarekin egiten den lanketa berdina egin daiteke.

Egitura hau sendotzeko asmoarekin, Planaren ezarpenean eta urteko jarraipenean euren parte-hartzerako planteamendu orokorra landu da, talde bakoitzak noiz parte-hartuko duen eta zein zeregin beteko dituen azalduz.



\* Foro eta talde hauen gain, bestelako sektorekako foroak era barneratu daitezke kudeaketa ereduari, adibidez haur eta nerabeen Foroa

## PARTE-HARTZE MEKANISMO BAKOITZAREN ZEREGINAK

	Herritarren Parte Hartze FOROA (edo sektorekako bestelako foroak)	Teknikarien Mahaia	Zuzendaritza taldea	Hirigintza Batzordea
1go hiru hilekoan egiteko zereginak		<ul style="list-style-type: none"> <li>Planaren urteko ebaluazioa egiteko sail bakoitzeko informazioa eman (zer egin da, zer ez da egin, ze zailtasun izan dira...etab.).</li> <li>Iraunkortasun adierazleak urtero kalkulatu ahal izateko sail bakoitzeko beharrezko informazioa eman.</li> </ul>		
00_Bilera			<ul style="list-style-type: none"> <li>Sail edo arlo bakoitzeko lehentasunak finkatzeko orduan Plana erreferentzia moduan hartu eta bertan oinarritu.</li> </ul>	
01_Bilera	<ul style="list-style-type: none"> <li>Planaren ebaluazioaren eta adierazleen emaitzak ezagutu eta hauek baloratu eta interpretatu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Planaren ebaluazioaren eta adierazleen emaitzak ezagutu eta hauek baloratu eta interpretatu.</li> <li>Planaren eguneraketarako proposamenak egin (ekintzak birformulatu/ekintza berriak sartu)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Planaren ebaluazioaren eta adierazleen emaitzak ezagutu eta hauek baloratu eta interpretatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Planaren ebaluazioaren eta adierazleen emaitzak ezagutu eta hauek baloratu eta interpretatu.</li> </ul>
02_Bilera	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hurrengo urtera begira, zein ekintza garatu nahi diren erabaki eta aurrekontuetan sar litezkeen jardura zehatzak proposatu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hurrengo urtera begira, aurrekontuetan sar litezkeen jardura zehatzak proposatu eta Herritarren Parte Hartze Foroak proposatutakoak baloratu (ikuspegi teknikitik).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Teknikarien Mahaian eta Herritarren Parte Hartze Foroan proposatutako jarduerak baloratu eta hurrengo urteko aurrekontuetan sartuko direnak erabaki.</li> </ul>	



